

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2026/04/29

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko areto nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Olaia Lasa Olaziregi
Garazi Urdampilleta Astibia
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ekain Susperregi Ibarguren
Jon Albisu Mendiburu
Ibintza Irigorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Maria Victoria Joaristi Olariaga

Ezin etorria adierazi dute:

Rafael Bergaretxe Urdampilleta

AZTERGAIAK:

1. Aurreko ohiko eta ez-ohiko batzarrei dagokien aktak onartu ziren.
2. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduaren aldaketa onartu zen.
3. Oiartzungo udalerria bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu deklaratzeko prozeduran memoria osatzea onartu zen.

4. Arraguako ARR-1A eremuko Plan Bereziaren behin betirako onarpena eman zen.
5. Oiartzungo zerbitzu anitzeko Landetxe udal eraikineko taberna-jatetxea zerbitzu emakida bidez kudeatzeko kontratari dagokion zorren zuzenketa eta bermea itzultzeko erabakia hartu zen.
6. GARBITANIA S.A.ri. bitarteko propioa izendatuta izan den aldetik, Oiartzungo jarduerako ekonomikoetarako sailkapena duten hirigintza eremuetan hiri-hondakinekin parekaturiko hondakinak biltzeko enkargua egitea erabaki zen.
7. GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. eta Oiartzungo udalaren lankidetzarako, udalak egin beharreko jarduera-enkarguen araubide juridikoa arautzen duen esparru-hitzarmena onartu zen.
8. 2026/01 kreditu aldaketaren onarpenaren berri eman zen.
9. 2025eko Aurrekontuaren Likidazioaren berri eman zen.
10. Lokal baten erabilera etxebizitzara aldatzeko obrak egiteko proiektuari sortutako 2025. Urteko likidazioa baliogabetzea onartu zen.
11. Beste organoen jardueraren jarraipenaren berri eman zen.
12. Eskari-galderak. EAJ/PNV taldeko Janire Mitxelena zinegotziak Oiartzungo Partzuergoaren etorkizunaren inguruko galdera egin zuen.

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2026ko martxoaren 25ean egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta eta 2026ko apirilaren 21ean egindako Udal Osoko ez-ohiko bilkuran akta onartu ziren aho batez, aldeko 16 botorekin (EH Bildu 13, EAJ/PNV 3)

-II-

GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan 2013ko martxoaren 4ko tarifak integratzeko sistema ezartzearen ondorioz onartu zen, GGLAri atxikitua dauden Gipuzkoako administrazio Publikoen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra era bateratu eta homogeenan emateko arautzeko

Sozietatearen bilakaeratik eta MUGI sistematik bertatik premia berriak sortu dira, eta horiek Erregelamendua erreformatzea eta eguneratzea eskatzen dute, hain zuzen ere, arau-testuaren 12,19,21 eta 44 artikulua aldatzea.

Guzti hau kontuan hartuta, Idazkariaren txostena eta Herritarrak batzordeak 2026ko apirilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Lehenengoa.- Onartzea hasiera batean bidaiariak errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduaren aldaketa. Hain zuzen ere, Erregelamenduaren 12, 19, 21 eta 44 artikuluen aldaketa, eduki berria honako hau izanik:

“12. artikulua. Mugikortasun murriztua duten bidaiarien tarifa-araubidea

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak gainerako bidaiarien tarifa-araubide bera izango dute, bidaiari ibilgailuko zer espazio okupatu behar duten alde batera utzita.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonak, Mugi txartel pertsonalizatuarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean, nahi duten beste pertsona batek lagunduta joan ahal izango dira, beraien segurtasun eta erosotasuna bermatzeko beharrezkoa den laguntza emateko gai denak; laguntzaile horrek doan bidaiatu ahal izango du, eta itsuen laguntzaile denean, ahal bada, haien ondoan eseriko da.

Hirugarren baten laguntza behar izateari buruz desadostasunak gertatuz gero, gidarien irizpidea nagusituko da “in situ”, eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatuta eta gero.

19. artikulua. Haur-kotxe eta -aulkiak eramatea

Haur-kotxe eta -aulki irekiak onartuak izango dira ibilgailuetan, ibilgailuen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.

Kotxea edo aulkia plataforman utziko da, eta gainerako bidaiariei igarotzea oztopatu gabe kokatuko da. Kotxe edo aulki irekiak lotu beharko dira eta balazta ipinita edukiko dute; adingabea ibilgailua doan martxaren kontrako noranzkora begira egongo da. Kotxea edo aulkia daraman pertsonaren ardura izango da behar bezala kokatzea eta

lotzea, adingabearen eta gainerako bidaiarien segurtasuna bermatzeko moduan. Nolanahi ere, kotxea edo aulkia daraman pertsona kotxearen edo aulkiaren ondoan egon beharko da, eta une oro helduko dio.

Kotxeak eta aulkiak zenbatzeko xedez, haur-kotxe edo aulki bikoitzak edo handiagoak (bikientzat, edo hirukientzat) bi balira bezala zenbatu ahal izango dira, ibilgailuan dagoen espazioaren arabera.

Gehienez ere bi kotxe edota aulki ireki eraman ahal izango dira 18 metro arteko ibilgailuetan, eta bakar bat ibilgailu txiki edo mikrobusetan, betiere aulki gurpildunean lekualdatzen den pertsonarik ez badago ibilgailuan.

Ahal dela, haur-kotxe eta -aulki irekiak ibilgailuan sartuko dira horretarako gaituta dagoen atletik, aulki gurpildunak igotzeko arrapalari eragin gabe, baina bai ibilgailua inklinatzeko sistemari.

Ibilgailuan haur-kotxe edo -aulkia daramatela sartzen diren bidaiariek, edonola ere, errespetatu beharko dute aulki gurpildunetan lekualdatzen diren erabiltzaileek ibilgailuan sartzeko eta plataforman haientzat dagoen espazioa okupatzeko duten lehentasuna. Haur-kotxe eta -aulkiek lehentasuna izango dute, bakar-bakarrik, jadanik ibilgailuaren barruan badaude.

Ez da onartuko kotxe edo aulki irekirik sartzea, adingabea garraiatzen ez dutenean. Ahal dela, aurreko atletik sartuko dira kotxe edo aulki tolestua daramaten bidaiariak.

Maletategia duten ibilgailuetan, haur-kotxe edo -aulkiak nahitaez sartu beharko dira bertan.

Ez da errekarigurik ordainduko haur-kotxe edo -aulkia eramateagatik, erregelamendu honetako 13.9. artikuluan jasotakoaren arabera.

21. artikulua. Etxeko animaliak eramatea

Baimena ematen zaie etxeko animaliak babesteko 9/2022 Legean halakotzat definitutako konpainia-animaliei, txakurrak, katuak eta hudoak sartzea barne

Etxeko animaliek lagunduta bidaiatzea baimenduta dagoen zerbitzuetan, nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dira:

- a a. Animaliek beren ekintzen erantzule den pertsona batek lagunduta bidaiatu beharko dute
- a b. Animaliak kaiola, ontzi edo homologatutako beste edukiontzi itxi baten barruan eraman beharko dira nahitaez, zaintzailearentzako eserleku gehigarriak izan gabe eta haien usain edo zaratatagatik eragozpenik sortu gabe, edo, oro har, gainerako bidaiarien erosotasuna murriztu gabe. Horri buruzko eztabaidarik izanez gero, gidarien irizpidea nagusituko da. Zaintzaile bakoitzeko ontzi baterako sarbidea mugatzen da.
- b c. Maletategia duten ibilgailuetan, abereek bertan joan beharko dute nahitaez, kaiola, jasotze-elementu edo gailuz itxitako beste edukiontzi homologatu baten barruan, gorozkiak gordetzeko eta kentzeko.
- c d. Txakurrek zaintzailearen besoetan bidaiatu ahal izango dute, baldin eta eserlekuaren zabalera edo ibilgailuaren plataforma gaintzen ez badute. Bi kasuetan, animaliaaren ezaugarrietarako egokia den uhaldaren bidez lotu beharko dira, uneoro zaintzailearekin kontaktu fisikoan egon dadin, muturrekoa, baimendutako albaitaritzazentro batek emandako osasun-txartela eta erantzukizun zibileko aseguru bat dutela, indarrean dagoen legerian aurreikusitako higie-ne- eta osasun-baldintzetan eta segurtasun-baldintzetan. Gidariek animaliaaren osasun-txartela eskatu ahal izango dute, animaliaaren gutxieneko higie-ne- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituela adierazten duten zantzuak daudenean edo animaliarekin lotutako edozein motatako eztabaidak sortzen direnean.

Nolanahi ere, adierazitako osasun-txartela eta aseguru-poliza erakustea eskatu ahal izango da, pertsona edo ondasunei kalte eragiten dien arazoren bat gertatuz gero.
- a e. Animaliek ezin izango dute inola ere bidaiatu gaueko zerbitzuetan
- 0 f. Debe-katuta dago animaliak garraio publikoan sartzeko higie-ne- eta osasun-baldintza eskaseta eta/edo sartzeko horrek ibilgailuen garbitasun-baldintzak aldatzea edo beste erabiltzaile batzuei eragozpenak eragitea dakarrenean.
- b g. Pertsona bakoitzeko animalia bakarra onartuko da.

Ibilgailu baten plataforman gehienez ere bi animalia bidaiatu ahal izango dira aldi berean.
- a h. Eramailaren erantzukizuna izango dira animaliak eragin ditzakeen kalteak, salbu eta hirugarren batek edo garraioen enpresa operadoreak egiaztatutako erantzukizuna.
- b i. Bidaiariren batek animalia dela-eta eragozpenak jartzen dituen unean (adibidez, erreakzio alergikoak dituelako, edo usain edo zaratatagatik), eta animalia horren zaintzailea baino lehen igo bada, animalia eta zaintzailea ibilgailuaren beste leku batera aldatzeko bete-beharra izango dute.

Artikulu honetan adierazitakotik salbuetsita daude itsu-txakurrak eta laguntza-txakurrak, baldin eta eginkizun horiek betetzeko zentro homologatuek egiaztatuta badaude; hala bada, une oro bidaiatu ahal izango dute laguntzen dioten pertsonaren ondoan, eta ezargarria den araudian ezarritako baldintzetan.

44. artikulua. Baliozko garraio-titulua eramateko betebeharra

Garraio-tituluak, behar bezala balidatuta, zerbitzua erabiltzea ahalbidetzen du.

Haurrek, sei urtetik aurrera, baliozko garraio-titulua izan beharko dute bidaiatzeko, behar bezala balidatuta, helduen baldintza beretan, erregelamendu honetako 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Bidaiari guztiek baliozko garraio-titulu bat eduki beharko dute ibilgailuan sartzen diren unetik. Tituluaren ezaugarrien arabera, ibilgailuko sarrerako kontrolpean jarri eta gorde egin beharko dute, hondatu gabe, ibilbide osoan eta helmugako geltokian ibilgailutik irten arte, titulua erakusteko eska dezaketen garraio-enpresa eragileetako enplegatuen edo agente ikuskatzaileen eskura.

Tituluaren ezaugarriek ahalbidetzen badute bidaiari batek baino gehiagok erabiltzea, ibilgailutik irten den azken bidaiariak eduki beharko du beti titulua. Adierazitako tituluak eramailearen tituluaren izaera dute eta, hortaz, edozein pertsonak erabili ahal izango ditu.

Doan bidaiatu ahal izango dute, bakar-bakarrik, adingabeek, baimendutako pertsonak –izaera hori egiaztatzen duen agiria aldean dutela– eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileak, Mugi txartel pertsonalizatuarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean.

Derrigorrezkoa izango da aurreko paragrafoan adierazitako pertsonen doaneko tiket izenekoa eramatea, plazak zenbatzearen eta derrigorrezko aseguruaren estaldura izatearren.”

Bigarrena.- Jendaurrean erakustea aipatutako erregelamendu hori, hogeita hamar egunean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten.

Aldi berean erregelamenduaren testua Udalaren web orrian (www.oiartzun.eus) ikusgai egongo da.

7/1985 Legearen 49. artikulua azken paragrafoan ezarritakoaren arabera, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da erregelamenduaren aldaketa Udal Osoko Bilkurak akordiorik hartzeko premia gabe.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Idazkariaren txostena eta Herritarrak batzordeak 2026ko apirilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du, Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduaren aldaketa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	16	13 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-III-

OIARTZUNGO UDALERRIA BIZITEGI-MERKATU TENTSIONATUKO EREMU
DEKLARATZEKO PROZEDURAN MEMORIA OSATZEA

AURREKARIAK

Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2026/02/25ean honako erabakia hartu zuen:

“Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzan etxebizitza-arloko eskumena duen sailari Oiartzungo udalerria bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu deklaratzeko prozedura has dezan, lege ezarritako dokumentazioarekin, aurkeztea.

Bigarrena.- Bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzeko prozedura jarraituta, izendapena egiten bukatu dezala, udal honek, 12/2023 Etxebizitzaren Eskubidearen Legeak eta Hiri Alokairuen 29/1994 Legeak aurreikusitakoarekin bat, hartzea proposatu dituen neurriak martxan jar ahal izan ditzan.

Hirugarrena.- Aipatu 12/2023 Legearen 3.k) atalari dagokionez, Oiartzungo udalerrian edukitzaile handitzat bizitegi-erabilerako bost hiri-higiezin edo gehiagoren titularra jotzeko proposamena egitea”.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda sailetik jakinarazi dute espedientea Estatuko Administrazioa igorri behar denez, agiriak erderaz ere bidali behar direla. Horrekin batera, bi zuzenketa ere egitea eskatuko dutela. Lehena, edukitzaile handien kopurua 10 etxebizitza duten jabetan zehaztu ordez 5 etxebizitzako kopurura murriztea justifikatu behar dela eta, bigarrena, azken bost urteetan errentamendu kontraturik indarrean izan ez duten higiezin hutsei Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 17. artikulua 7. apartatua aurreikusitako errenta-muga aplikatzea nahi izanez gero, justifikazioa aurkeztea.

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera, justifikazio Memoria osatzea eta erderako itzulpena igortzea egokia da.

Guzti hau kontuan hartuta, Idazkariaren txostena eta Lurralde batzordeak 2026ko apirilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Justifikazio memorian honelako atalak eranstea:

“2.- DIAGNOSIA

Edukitzaile haundiak

Oiartzunen edukitzaile handien kontzeptua definitzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Katastroko zerbitzuak emandako datuen arabera, 3 edukitzaile daude 5 etxe baino gehiagoren titular direnak, horietako bik 6 etxebizitza dituzte eta besteak 5. Ez dago 10 etxebizitza duen jaberik.

3.- TENTSIO EREMU IZENDATZEA AHALBIDETZEN DUTEN INGURUABARRAK BETETZEAREN JUSTIFIKAZIOA

Bestalde, edukitzaile handien zehaztapenari dagokionez, aurreko atalean jaso bezala, Oiartzunen ez dago 10 etxebizitza duen jaberik. Horiek horrela, Etxebizitzarako Eskubidearen maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen 3. artikuluan esandakoari jarraituz, arrazoiketa horrekin etxebizitza-edukitzaile handien definizioa hamar higiezin edo gehiago dituzten entitateak izatetik bost edo gehiago izatera aldatzeko justifikazio nahikoa da.

Bestetik, bizitegi-merkatu tenkatutako eremuan kokatutako higiezin etxebizitza errentamenduko kontratuei, deklarazioa indarrean jarri eta azken bost urteetan errentamendu kontraturik indarrean izan ez duten higiezin hutsen kasuan, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 17. artikulua 7. apartatua aurreikusitako errenta-muga aplikatzea dagokie. Hau da, kontratu berriaren hasieran itundutako errentak ezingo du gainditu erreferentziazko prezioen indizeen sistemaren arabera aplikatu beharreko prezioen gehieneko muga”.

Aldi berean, Justifikazio Memoriaren, Ikerketa kuantitatiboaren eta Ekintza Planaren erderako alea ere bidali beharko da.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Idazkariaren txostena eta Lurralde batzordeak 2026ko apirilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzat, aho batez, onartu du, Oñartzungo udalerria bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu deklaratzeko prozeduran memoria osatzeko beharrezkoak diren tramiteak egitea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	16	13 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-IV-

ARRAGUAKO ARR-1A EREMUKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIRAKO ONARPENA

AURREKARIAK

HAPOk ARR-1A arean mugatutako lurzorua finkatu gabeko hiri-lurzoru gisa sailkatzen du, eta aurreikusitako garapena jarduketa integratu gisa gauzatzea erabakitzen du, antolamendu xehakatu bateratu bat ezartzeko Hiri Antolamenduko Plan Berezi bat formulatuz. BRITAC PROYECTOS S.L. 2024/07/14ean Plan Bereziaren proiektua eta dagokion Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako agiria aurkeztu zituen.

Plan Bereziak 12.702 m² azalera duen eremua antolatzen du, 4 lursail sortzen ditu bertan 2.772 m² okupazioa izango duten eraikuntzak aurreikusiz. Horietan 9.936 m² (t) konputagarriak egoitzako erabilerakoak izango dira; horrezaz gain, 5.5444 m² (t) sestra azpian, 1.010 m² (t) erabilera tertziariorako eta 300 m² (t) dotazioetara bideratuta. Egoitza erabilerari dagokionez, 1.987 m² (t) VPOko etxebizitza izango dira eta beste hainbeste, beste 1.987 m² (t), araubide bereziko etxebizitza tasatuak, eta gainerako 5.962 m² (t) salmenta libreko etxeak izango dira. Modu horretan, Arraguako hiri-lurrean etxebizitza babestuen estandarra, guztiaren % 40a, betetzea lortu da. Horren ondorioz, 96 etxebizitzetatik, 18 VPO eta 18 etxe tasatu izango dira. Eremuaren antolaketa osatzeko, hiri berdeguneen sistema orokorra 1.928 m²koa izango da, Lintzirin erreka ertzeko gunean, 157 m² erreken ubideari dagokio eta 331 m² bidegorri sarearena izango dira.

Modu horretan, Oñartzungo HAPOak antolaturiko hirigintzako parametroak betetzen dira, hauen hobekuntza eginez, eta, Hirigintzako estandarrei buruz onarturiko otsailaren 18ko 45/2025 Dekretua indarrean sartzearen ondorioz aurkezturiko txostenaren arabera, ezarritako baldintzak betetzen ditu Plan Bereziak.

Dokumentuaren tramitazioari dagokionez, parte-hartze prozesu baten ondoren alkatearen 2025/05/26ko 2026-965 Dekretuz bitartez prozedura abiarazteko erabaki hartu zuen, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.1 artikulua ezarritako administrazio sektorialen txostenak eskatzeari ekin zitzaion. Legez ezarritako epean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak eta Kultura Sailak, Ministerio de Transportes y Movilidad, Administrador de Infraestructuras Ferroviarias, eta URA Ur Agentziarena. Aipatu txostenak aldeko zentzuan eman dira eta URArena zenbait zuzenketa egiteko beharra ezarri zuen, hasierako onarpenearen ondorengo txostena aldekoa izan ahal izateko.

Oiartzungo Udaltzaren, 2025ko urriaren 28ko bilkuran, BRITAC PROYECTOS SL sustatzaileak aurkeztutako “ARR-1A EREMUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA – 2025 URRIA” dokumentuari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, Martxoaren 24ko Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 46/2020 Dekretuaren 31.3 artikularen arabera, nahitaezko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapidetik ondorioztatzen denaren baldintzapean. Era berean, hasierako onarpena eman ondoren eskatu beharreko txosten sektorialak eskuratzea agindu zuen.

Eusko Jaurlaritzako Industria trantsizio energetikoa eta jasangarritasuna departamentuak Ingurumen Ebaluazioaren Txostena eman zuen, aldeko irizpenarekin, honako EBAZPENAREN bidez, 2025eko urriaren 28koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Oiartzungo (Gipuzkoa) Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Arraguako ARR-1A HJeko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren aldaketari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa.

Hasierako onarpenaren ondoren, honako txostek sektorialak eskatu eta jaso dira: Hasierako onarpena eman ondoren eskatu beharreko txosten sektorialak: URA Ur Agentzia. Ekainaren 23ko 1/2006 Legeak, Urarenak, 7.k) artikuluan aurreikusitakoaren arabera; Gipuzkoako Foru Aldundia Bide Azpiegituretako departamentua. 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua, 94.2 artikularen arabera; Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital delakoari, Telekomunikazioei buruzko 11/2022 Legearen 50.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera; Administrador de Infraestructuras Ferroviarias, Añarbeko Urak S.A.

Bitartean dokumentua jendaurrean jarri zen 20 lanegunez eta alegazio bakarra jaso zen, Errenteriako udalarena, 2025/12/29an. Aipatu alegazioa sustatzailearen honako erantzuna jaso du:

“Alegazioa lau bloke nagusitan egituratzen da: anbulatorioaren inguruneari eragitea, bide-sistema orokorra aldatzea, ARR-1A eremurako sarbidea konpontzea eta Oiartzungo udalerritik kanpoko eremuei eragiten dieten hirigintza-erabakiak hartzea, hirigintza-tresna espezifikorik gabe eta administrazioen arteko aurretiazko akordiorik gabe.

ARR-1A Plan Bereziaren eremu osoa Oiartzungo udalerraren barruan dago, baina Errenteriako udalerritik hurbil dagoenez, hasierako dokumentazioan inguruko inguruneari buruzko erreferentzia grafikoak eta funtzionalak sartu ziren, hiri-integrazio egokia bermatzeko.

Plan Berezi hau gaitzen duen eremua denez, komenigarritzat jotzen da Arraguako auzo berrirako hasieran proposatutako zirkulazio-noranzkoak aldatzea, anbulatorioaren eta GI-2132 errepidearen Larzabaletik igarotzean egungo funtzionamendu-baldintzetan edozein aldaketa saihesteko.

Horretarako, O-10 planoan, orientazio hutsezko multzoaren planoan, funtsezko aldaketa bat sartzen da bi eremuetako trafikoaren antolamenduan: garapen berritik GI-2132 errepiderako eta anbulatorioko biderako ibilgailuen zuzeneko irteera kentzea.

Beraz, Oiartzungo Larzabal auzora doazen trafikoen egungo funtzionamendua mantentzen da aldaketarik gabe, nahiz eta bizitegi-auzo berriak sortutako irteera-trafiko guztia GI-636 errepidera bideratzen den lehendik dagoen zubiaren bidez. Azpiegitura horrek dagoeneko lotzen du eremua bide-sare nagusiarekin, eta fluxu horiek bere gain hartzeko gaitasun nahikoa du.

Konponbide horrek bermatzen du garapen berriak ez duela areagotuko irteerako trafikoaren presioa anbulatorioaren ingurunean, ezta GI-2132 errepidean ere, Errenteriarekin mugakide den zatian. Gainera, ingurune horretatik guztitik irteteko ordezko bide bat da, Errenteriako Nafarroa etorbidearen ekialdean dagoen biribilgunean trafikoaren karga deskargatzeko aukera ematen duena.

Egokitzen jotzen da Plan Bereziaren memoria eta dokumentazio grafikoa birformulatzea, jarduketa Arraguako ARR-1A eremura mugatzen dela berariaz jasota uzteko ”.

Guzti hau kontuan hartuta, Idazkariaren eta Udal Arkitekto teknikoaren txostenak eta Lurralde batzordeak 2026ko apirilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Lehenengoa.- Errenteriako udalak egindako alegazioa aintzat hartzea eta, ondorioz, Plan Bereziaren memoria eta dokumentazio grafikoa birformulatzea, jarduketa Arraguako ARR-1A eremura mugatzen dela espreski jasota uzteko.

Bigarrena.- BRITAC PROYECTOS SL sustatzaileak aurkeztutako “ARR-1A EREMUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA” dokumentuari behin betirako onarpena ematea, 2026ko apirilako data daraman dokumentu teknikoaren oinarriarekin eta 2024 abenduko Ingurumen Dokumentu Estrategikoarekin.

Hirugarrena.- 2/2006 Legearen 89. Artikuluan ezarritako argitalpenak egingo dira.

Laugarrena.- Tasa kontzeptuan 7.460,87 €-tako likidazioa onartzea.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Idazkariaren eta Udal Arkitekto teknikoaren txostenak eta Lurralde batzordeak 2026ko apirilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengo absolutuarekin, Arraguako ARR-1A eremuko plan berezia behin betikotzat onartu du.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	16	13 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-V-

OIARTZUNGO ZERBITZU ANITZEKO LANDETXE UDAL ERAIKINEKO TABERNA-JATETXEA ZERBITZU EMAKIDA BIDEZ KUDEATZEKO KONTRATURI DAGOKION ZORREN ZUZENKETA ETA BERMEA ITZULTZEA

2023ko martxoaren 1eko Oíartzungo Udaleko Osoko Bilkurak adostu zuen Oíartzungo zerbitzu anitzeko Landetxe udal eraikineko taberna-jatetxea zerbitzu emakida bidez kudeatzeko kontratua Unai Odriozola jaunari esleitzea, ondorengo baldintzetan:

- Kanona: 26.400 euro/urtean
- Epea: 2 urte, urtez urte luzagarria 4 urte arte
- Kontratua aurkeztutako eskaintzan eta prozedura arautu duten administrazio-baldintza zehatzen agirietan, eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko du.

2023ko otsailaren 20an jarri zuen esleipendunak 5.969,11 euroko behin betiko bermea.

Bi urteko epea igarota, ez zen luzapenik egin eta kontratua 2025eko otsailaren 28an amaitu zen. Egun horretan bertan Landetxe eraikineko taberna-jatetxean egindako ikuskapenean egiaztatu zen Baldintza

Teknikoen Agiriaren I. eranskinen inbentarioan jasotako ondasun eta instalazio guztiak baldintza onetan zeudela eta harrera akta sinatu zen., urtebeteko berme-epari hasiera emanez.

2024ko azaroaren 8an 7292 sarrera-erregistro zenbaki bidez titularrak Oiertzungo Udalarekin zorrik edo bestelakorik bazuen adieraztea eskatu zuen. 2024ko abenduaren 9an eskaerari erantzun zitzaion udal-idazkariaren ofizio bidez, eta, besteen artean, ondorengo hau adierazi zitzaion:

«Dagozkion egiaztapenak egin ondoren, ikusi ahal izan da 2024eko maiatzari eta 2024ko azaroari dagozkion kanonaren zatiak ez direla ordaindu. Horregatik, lehenbailehen ordaintzeko eskatzen zaizu».

Kontu hartzaileak txostena egin du, eta ondorengo proposatu du: «Unai Odriozola jaunak kanonari dagokion bi hilabete ordaindu gabe ditu oraindik eta 4.400,00 euroko zorra du Oiertzungo Udalarekin. Hori horrela, jarritako behin betiko bermea bere osotasunean itzuli beharrean, 4.400,00 euro gutxiago itzultzea proposatzen da».

Kontratuaren arduraduna den udal arkitekto teknikoak ere txostena egin du, eta ondorioztatu du ez duela eragozpenik ikusten jarritako bermea itzultzeko behin zorrak kenduta.

Titularrak, 2026ko martxoaren 2an, 2026-1880 zenbakidun sarrera-erregistro zenbaki bidez, itzulketa egiteko kontu korrante aldaketa eskatu zuen, ondorengora: ES8230350214382140022982 (Laboral Kutxa).

Horregatik guztiatik, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean aurreikusten den prozedura jarraiki eta horrek kontratazio organoari esleitzen dizkion eskumenekin bat, Kontratazio teknikiaren, Udal Arkitekto teknikoaren eta Kontuhartzailearen txostenak eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak 2026ko apirilaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Lehena.- Oiertzungo zerbitzu anitzeko Landetxe udal eraikineko taberna-jatetxea zerbitzu emakida bidez kudeatzeko kontratuaren baitan bi hilabeteri dagozkion kanonaren zatiak (4.400,00 euro), ordaindu gabe daudenak, behin betiko bermearen kontura zuzentzea.

Bigarrena.- Zuzenketa aplikatu ondoren geratzen den 1.569,11 euroko bermea itzultzea Unai Odriozola Monreali, Oiertzungo zerbitzu anitzeko Landetxe udal eraikineko taberna-jatetxea zerbitzu emakida bidez kudeatzeko kontratua egoki gauzatzeko jarritakoa.

Itzulketa hori ondorengo kontura egitea, titularraren eskaeraren arabera: ES8230350214382140022982

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean aurreikusten duen prozedura jarraiki eta horrek kontratazio organoari esleitzen dizkion eskumenekin bat, Kontratazio teknikiaren, Udal Arkitekto teknikoaren eta Kontuhartzailearen txostenak eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak 2026ko apirilaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du, Oiertzungo Landetxe udal eraikineko taberna-jatetxearen emakida kontratuari dagokion zor-zuzenketa onartzea eta bermearen dagokion zatia itzultzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	16	13 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

GARBITANIA ZERO ZABOR SL-RI BITARTEKO PROPIOA IZENDATUTA IZAN DEN ALDETIK, OIARTZUNGO JARDUERAKO EKONOMIKOETARAKO SAILKAPENA DUTEN HIRIGINTZA EREMUETAN HIRI-HONDAKINEKIN PAREKATURIKO HONDAKINAK BILTZEKO ENKARGUA EGITEA

AURREKARIAK

Udal Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 25ean, erabaki zuen GARBITANIA ZERO ZABOR SL erakundea izendatzea Oiartzungo Udalaren baliabide propiotzat. Bestalde, 2026/04/04ean, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman argitaratu zen erakundea Udalaren berezko bitarteko gisa kalifikatu zela, SPKLren 32.6 artikuluen a) atalean adierazitako edukiarekin. Udal hondakinen bilketako zerbitzuak proposamena egin du GARBITANIA ZERO ZABOR SL erakundeari egindako enkarguari dagokionez. Proposamen horri dagokion justifikazio-memoria erantsi zaio.

Udal idazkariak txosten juridikoa egin du Oiartzungo udalerrian jarduera ekonomikoetarako erabilera duten hirigintzako eremuetan etxeetako hiri hondakinekin parekatutako hondakinak biltzea GARBITANIA ZERO ZABOR SL erakundeari egindako enkarguaren proposamena Zuzenbidearekin bat datorrela ondorioztatuz.

Izan ere, botere adjudikatzailerik antolatu ahal izango dira obra-kontratuetako, horniduretako, zerbitzuetako, obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako prestazioak zuzenean gauzatuz, tarifa-konpentsazio baten truke, beste pertsona juridiko bat erabiliz, zuzenbide publikokoa edo zuzenbide pribatukoa, hari enkargua eman ondoren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere erabiltzen duten pertsona juridikoak bitarteko propio pertsonifikatutzat kalifikazio juridikoa merezi badu.

Organo eskudunari dagokionez, Oiartzungo udalerrian jarduera ekonomikoetarako erabilera duten hirigintzako eremuetan etxeetako hiri hondakinekin parekatutako hondakinak biltzeko enkargua onartzeko eskumena osoko bilkurari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.2 artikuluen arabera.

Bestalde, SPKLren 32.2.c) artikulua eskatzen duen bezala, bitarteko propioaren izaera berariaz aitorzen da GARBITANIA ZERO ZABOR SL erakundearen Estatutuetan eta eskatzen diren aipamenak sartzen dira:

Estatutuetan honako aipamen hauek jasotzen dira:

- Bere helburu sozialaren jarduerak aitorzea, bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa deklaratzeko aurreikusten denerako.
- Eskatzaileak baliabide propiotzat eta zerbitzu teknikotzat dituen erakundeen identifikazioa.
- Bitarteko propioei eta zerbitzu teknikoiei eman dakizkiekeen enkarguen araubidea (erakunde gomendio-emaelek emandako jarraibideen aldebakartasuna eta nahitaez bete beharrekoa bitarteko propioaren eta zerbitzu teknikoaren aldetik).
- Ezin izango dute parte hartu botere adjudikatzailerik deitutako lizitazio publikoetan, baldin eta bitarteko propio pertsonifikatua badira; hala ere, lizitatzailerik aurkeztzen ez bada, horien xede den prestazioa gauzatzeko enkargua ematea.
- M.P. akronimoa sozietatearen izenean sartzea.

Era berean, 2026/04/04ean bete zen Kontratazio Plataforman baldintza hau argitaratzea: GARBITANIA ZERO ZABOR SL bitarteko propioa izatea, zein botere esleitzailerik dagokionez; eta jarduera-sektoreak, non, bere helburu sozialean sartuta egonik, enkarguaren xede diren prestazioak gauzatzeko gai izango litzatekeen.

Prozedurari dagokionez, bitarteko propioentzako enkargua onartzeko prozedurari dagokionez, SPKLren 32.6 artikulua ezartzen duen baldintza bakarra da enkargua Kontratazio Plataforman argitaratuko den dokumentu batean formalizatzea, zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa bada, BEZik gabe. Formalizazio-dokumentuak enkarguaren iraupen-epea ezarriko du.

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.b artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, gomendioaren ebazpena sinatu ondoren, Gardentasunaren Atarian argitaratu beharko da, «haren xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta egiten diren azpikontratazioak adierazita, esleipendunak, esleipenerako jarraitutako prozedura eta horren zenbatekoa aipatuta».

Zerbitzuaren txostenean eta memorian jasotzen den bezala, berezko baliabideari legez eskatzen zaizkion baldintzak bete direla aztertu da:

- Giza baliabideak eta bitarteko materialak izatea.
- Bere jardunaren % 80a elkarrekin diren udalentzako egindako lanak izatea.
- Erakundearen gaineko kontrola partaide diren botere adjudikatzailerik izatea, kasu honetan, 13 udalek, eta udalen ordezkari bat erakundearen erabaki organoetan egotea.
- Kanpoko kontratazioak bere jardunaren % 50a baino gehiago ez izatea.
- Udalek bultzaturiko lizitazioetan ez duela parte hartuko baldintzatzen da.
- Udalen mandatuen araubide juridikoa zehaztea.
- Esan den bezala, erakundearen Estatutuaren jasotzea.

Eta, era berean, honakoa proposatu da GARBITANIA ZERO ZABOR, SL erakundeari Oiertzungo industria-poligonoetako hondakinen kudeaketa eraginkorra egiteko enkargua egitea 2026. urterako 240.402,54 €-tako aurrekontuarekin eta ondorengo urteetan Jarduera Plan Orokorren arabera zehaztuko da aurrekontuarekin.

Udal kontuhartzaileak txostena eman du honako ondorioarekin, espedientearen jasotako dokumentazioa aztertuta eta aldeztu aurreko fiskalizazio mugatuaren irismenaren barruan, aldeztu txostena ematea GARBITANIA ZERO ZABOR SL-ri 2026ko ekitaldian Oiertzungo jarduerako ekonomikoetarako sailkapena duten hirigintza eremuetan hiri-hondakinekin parekatutako hondakinak biltzeko enkarguaren ondoriozko gastuari, 240.402,54 €-koa, 1 0211.227.162.10.98 Kontratua: Zabor biltzea poligonoak partidaren kargura.

Horrenbestez, udal honetako Idazkariak, Kontuhartzaileak, zerbitzu teknikoak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko apirilaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Lehenengoa.- Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete ondoren 2026ko otsailaren 25eko udalbatzak GARBITANIA ZERO ZABOR SL Oiertzungo udalaren berezko baliabidea izendatuenez, honen bitartez, Oiertzungo udalerrian jarduera ekonomikoetako erabilera duten hirigintza eremuetan hiri-hondakinekin parekatutako hondakinak biltzeko zerbitzua kudeatzeko GARBITANIA ZERO ZABOR SL bitarteko propioari enkargua onartzea, 487.850,30 €ko urteko aurrekontuarekin.

Bigarrena.- 2026 urtean urriaren 1etik aurrera emango den zerbitzua, aurtengo kostea 240.402,53 €tan ezartzea. Hurrengo ekitaldietarako proiektatutako urte anitzeko gastua izanik, hitzarmenean ezarritako finantza-araubideari jarraituko zaio.

Hirugarrena.- Enkargua gauzatzeko epea 2026ko urriaren 1ean hasiko da, eta jarduketak amaitu arte iraungo du. Prestaketa-lanak akordio hau hartu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da. Kontzeptu

horretan zerbitzua behar bezala ezartzeko eta abian jartzeko beharrezkoak diren lan guztiak sartuko dira, hala nola plangintza operatiboa, giza baliabideen eta baliabide materialen antolamendua, udal-zerbitzuekiko koordinazioa, ibilbideen egokitzapena, prestakuntza logistikoa eta zerbitzua eraginkortasunez hasiko dela bermatzeko ezinbestekoak diren izapide guztiak.

Laugarrena.- Zerbitzua Oñartzungo udalaren “Oñartzungo udalerrian udal-hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen Ordenantza” betez emango da.

Bostgarrena.- Udalak egingo dizkion mandatuaren araubidea erakundearen xede diren jardueretara mugatuko da, udalak enkargua bertan behera uzten duen arte.

Seigarrena.- Izendapen hau, gainerako udalek egingo dutenarekin batera, GARBITANIA ZERO ZABOR SL-ren estatutuetan jaso dadin onartzea. Estatutuek honako edukia jaso beharko dute:

A A) Berezko baliabide izaera GARBITANIA ZERO ZABOR SL osatzen duten udalengan ematen dela.

B B) Mandatuaren araubide juridikoa.

C C) Erakundeak ezin izango duela udalaren lizitazio publikoetan parte hartu, baldin eta ez bada hutsak deklaritzen direnean.

D D) Gainerako baldintzak: elkarte-kide diren udalen ordezkaritza aginte-organismoetan egongo dela, bere jardunaren % 80 udalengandik jasotako mandatuak izango direla, ezin izango duela hirugarrenekin jardunaren % 50a baino gehiago kontratatu eta giza-baliabide propioak eta bitarteko materialak izan beharko dituela.

E E) Elkarteari mandatuak eman nahi dizkieten udalak, horien artean Oñartzungo Udala, zuzendaritza-batzarraren partaide izatea, batzar orokorreko partaide izateaz gain.

Zazpigarrena.- Hurrengo urtetarako zerbitzuaren baldintza zehatzak urtez urte Jarduera Plan Orokorraren (JPO) tramitazioan adostu eta kuantifikatu dira eta alkateari hauek onartzeko ahalmena ematen zaio.

Zortzigarrena.- Izendapen hau kontratazio-profilean argitaratuko da. Horretaz gain, 50.000 €ko aurrekontua duten mandatuak, BEZ kanpo, idatziz formalizatuko dira eta kontratazio-plataforman argitaratuko dira.

Azalpenak amaitu ondoren eta bozketa hasi aurretik, Jon Albisu Mendiburuk gaiarekin duen harremanarengatik aretoa uzten du. Ondoren, bozkatu egiten dute.

Udal honetako Idazkariak, Kontuhartzaileak eta zerbitzu teknikoak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko apirilaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du, Garbitania Zero Zabor SL-ri bitarteko propioa izendatuta izan den aldetik, Oñartzungo jarduerako ekonomikoetarako sailkapena duten hirigintza eremuetan hiri-hondakinekin parekaturiko hondakinak biltzeko enkargua egitea

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EH Bildu,
Aurka		
Abstentzioa	3	EAJ/PNV



-VII-

LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA: GARBITANIA ZERO ZABOR SL ETA OIARTZUNGO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERA-ENKARGUEN ARAUBIDE JURIDIKOA ARAUTZEN DUENA

AURREKARIAK

Oiartzungo udalerrian jarduera ekonomikoetako erabilera duten eremuetan hiri hondakinekin parekaturiko hondakinen biltzea egiteko enkargua egingo dio Oiartzungo udalak GARBITANIA ZERO ZABOR SL-ri, bere bitarteko propioa den aldetik.

Aipatu sozietateak, enkarguen araubide juridikoa ezartzeko xedez, bere kidetza duten 4 udalen arteko hitzarmen proposamena bidali du beti ere, baliabide propioei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.d) artikulua (aurrerantzean, SPKL) ezartzen duelako botere adjudikatzailerik eman diezazkizketen enkarguen araubide juridikoa eta administratiboa arautu behar dela, baldin eta bitarteko propio pertsonifikatuak izaera hori badu eta erregulazio hori estatutuetan edo ente hartzailearen sortze-egintzan ezartzen bada.

Ingurumen arloko teknikariak txostena eman du adieraziaz Oiartzungo Udalak egin beharreko jarduera-enkarguen araubide juridiko, ekonomiko eta administratiboa lankidetzan esparru-hitzarmen dokumentu arauemailean jaso dela. Hitzarmen hori beharrezkoa da Oiartzungo jarduera ekonomikoetarako sailkapena duten hirigintza eremuetan udal- hondakinak biltzeko enkargua egin ahal izateko. Teknikoki, proposatzen den lankidetzan esparru-hitzarmena egokia da, besteak beste, baliabide propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaeraren ondoriozko Garbitaniaren betebeharrak zehazten direlako, hala nola, eskatzen zaion zerbitzu publikoa eskaintzea, zerbitzua eskaintzean gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea, aholkularitza tekniko eta lankidetzan eskaintzea zerbitzuarekin zerikusia duten gaien inguruan, aholkularitza tekniko eta lankidetzan eskaintzea udal-teknikariei edo alkateak izendatutako pertsonen, sozietatearen helburu sozialekin zerikusia duten gaietan, legea eta kontabilitate-printzipioak betez, urteko kontuen memoria eta araudia betetzeari buruzko txosten aurkeztea, honako eremuei dagokienez: aurrekontua, finantza eta zor-eragiketak, langileen kontratazioa eta zerbitzuen eta horniduren kontratazio publikoa eta urteko jardueraren ikuskaritza-txostena aurkeztea.

Lurralde batzordeburuak txostena egin du, hitzarmenaren beharra eta egokitasunari buruzko alderdi desberdinak aztertuz. Udal idazkariak txostena egin du hitzarmenaren oinarri juridikoa, udalaren eskumenari dagokionez eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan ezarritako edukia betetzen dela adieraziz. Gainera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.d) artikulua ezarritako araubide juridikoa ezartzeari erantzuten diola azpimarratzen du.

Horrenbestez, udal honetako Idazkariak, Kontuhartzaileak eta zerbitzu teknikoak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko apirilaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Udala, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalekin batera GARBITANIA ZERO ZABOR SL-ri bere udal bazkideek egin beharreko jarduera-enkarguen araubide juridikoa arautzen duen lankidetzan hitzarmena onartzea (eranskinean jaso da).

Bigarrena.- Hitzarmenean eranskinean jaso den Datuen Babeserako dokumentua onartzea GARBITANIA ZERO ZABOR SL datuen eragile izango den aldetik.

Hirugarrena.- Alkateari ahalmena ematea lankidetz hitzarmena sinatzeko, bai eta haren garapenerako eta gauzatzeko beharrezkoak diren gainerako agiri guztiak sinatzeko ere.

Laugarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea GARBITANIA ZERO ZABOR SL-ri.

Bostgarrena.- Lankidetz hitzarmenak Udaleko webgunean argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, udal honetako Idazkariak, Kontuhartzaileak eta zerbitzu teknikoak egindako txostenak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko apirilaren 23an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du, lankidetzarako esparru-hitzarmena: GARBITANIA ZERO ZABOR SL eta Oiertzongo udalak egin beharreko jardura-enkarguen araubide juridikoa arautzen duena.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	12	EH Bildu,
Aurka		
Abstentzioa	3	EAJ/PNV

Bozkatu ondoren. Jon Albisu Mendiburu aretora sartzen da.

-VIII-

2026/01 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENAREN BERRI EMATEA.

DEKRETUA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2026-KALD-000001-00 zenbakiduna; ikusita Kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak; eta 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2026-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapituluakako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
1	PERSONAL GASTUAK	1.425,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	228.572,86
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	401.486,88
6	INBERTSIO ERREALAK	2.561.690,89
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		3.193.175,63

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	248.745,18
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	218.860,85
8	FINANTZA AKTIBOAK	2.725.569,60
FINANTZAKETA GUZTIRA		3.193.175,63

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

-IX-

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

DEKRETUA

Udal honen 2025eko aurrekontuaren likidazioari buruz kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenen.- Udal honen 2025eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINITZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2025-12-31n:	5.494.542,78
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2025-12-31n:	3.710.075,79
Aurrekontuko zordunak :	3.694.788,75
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	15.287,04
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2025-12-31n: Gastuen	2.899.176,99
aurrekontuko hartzekodunak:	1.609.191,84
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.289.985,15
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):	6.305.441,58
5.- Saldo kobragaitzak:	2.166.074,81
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:	44.497,55
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	4.094.869,22

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	741.349,66
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-207.410,63
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	2.065.000,04
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	117.884,75

5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	2.716.823,81
-----------------------------------	--------------

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	3.203.319,35
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	1.224.811,49
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	4.428.130,84

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Alkateak Idazkariari ematen dio hitza.

-X-

LOKAL BATEN ERABILERA ETXEBIZITZARA ALDATZEKO OBRAK EGITEKO PROIEKTUARI SORTUTAKO 2025. URTEKO LIKIDAZIOA BALIOGABETZEA ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko azaroaren 25eko bilkuran, Bidezarra bidea 5eko behe solairuan 2A lokalean etxebizitza erabilerara aldatzeko baimena eta horretarako obra baimena eman zion Jose Martin Araolaza Zumeta jaunari.

Orain berriz, baimenaren titularraren oniritziarekin, aipatu baimenak Aitziber Araolaza Mitxelena eta Alexander Galdos Arizmendi, lokalaren jabe direnen, izenean jartzea eskatzen dute, alde guztiak aurkezturiko idatzi baten bitartez.

Udal idazkariak egindako txostenean Jose Martin Araolaza Zumeta jaunari emandako Bidezarra bidea 5eko behe solairuan 2A lokala etxebizitza erabilerara aldatzeko baimena eta horretarako obra baimena, Aitziber Araolaza Mitxelena eta Alexander Galdos Arizmendiren izenean jartzea proposatzen da.

2026ko apirilaren 28an 826 eta 827 zenbakidun Alkate Dekretuen bidez Jose Martin Araolaza Zumeta jaunari emandako Bidezarra bidea 5eko behe solairuan 2A lokala etxebizitza erabilerara aldatzeko baimena eta horretarako obra baimena, Aitziber Araolaza Mitxelena eta Alexander Galdos Arizmendiren izenean jartzea erabaki da.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 208.2. artikulua xedatutakoaren arabera hirigintzako lizentziak eskualdatu egin ahal izango dira, eta eskualdaketa egindakotzat joko da lurrazala edo hari dagokion etxea edo eraikina eskualdatzearekin batera. Halere, bai eskualdatzen duenak, bai jasotzaileak, eskualdatzearen berri eman behar diote idatziz udalari. Hori egin ezean, titularrarentzat sor daitezkeen erantzukizunei lotuta egongo dira biak. Era berean, aplikatzekoa da Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 13. artikuluan aurreikusitako prozedura.

Kasu honetan, kontuan hartuta Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko azaroaren 25eko bilkuran dagokion tasa edo zerga-likidazioa onartu zuela, eta likidazio hori aurreko ekitaldiari dagokiola, haren indargabetzea izapidetzeko espedientearen gaineko eskumena Udal Osokoari dagokio.

Beraz, Udal idazkariak emandako txostenarekin adostasunean, Udalbatzari honako erabakia har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Bakarra.- 2025eko azaroaren 2025eko Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuran hartutako erabakiaren likidazioa baliogabetzea eta berri bat sortzea Aitziber Araolaza Mitxelena eta Alexander Galdos Arizmendiren izenean.

Idazkariak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Alkateak hitza hartzen du eta bozketara pasatzen dira. Udal idazkariak emandako txostenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du, lokal baten erabilerara etxebizitzara aldatzeko obrak egiteko proiektuari sortutako 2025. urteko eraikin instalazio eta obren gaineko zerga likidazioa baliogabetzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	16	13 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-XI-

HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN, LEHEN HIRU HILEKO DIRUZAINNTZA EXEKUZIOAREN, AURREKONTUKOAK EZ DIREN KONTUEN, AURREKONTUETAKO BALANTZEAREN, DIRU-FLUXUEN EGOERAREN, DIRUZAINNTZAREN ETA DIRU ZAINNTZA KONTUAREN BERRI EMATEA.

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

1. Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2026eko martxoaren 20tik apirilaren 24ra arte.

Zk. 2026/565tik 2026/787ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2026eko apirilaren 14ean eta 28an, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2026ko martxoan ez dago gasturik.

3. Lehen hiru hileko diruzaintza exekuzioaren, Aurrekontukoak ez diren kontuen, Aurrekontuetako balantzearen, Diru-fluxuen egoeraren, Diruzaintzaren eta Diru zaintza kontuaren berri ematea.

-XII-

ESKARI GALDERAK

Alkateak hitza hartu du eta aurreko Udal Osoko Bilkuran landutako gaiari buruzko azalpena emateko asmoa duela adierazi du; zehazki, OIartzungo Udal Haurreskolako 0-2 etapako zerbitzua Haurreskolak Partzuergoan integratzeko egindako eskaerari buruzkoa. Udalak egindako hasierako proposamenari dagokionez —hau da, Haurreskolak Partzuergo Urmendi eraikinean integra dadin—, zuzendaritza batzordeak ezezkoa eman du. Erabaki hori arrazoitzeko, adierazi dute Haurreskolak Partzuergoko estatutuek ez dutela halako aukerarik aurreikusten.

Beraz, egoera hori kontuan hartuta, Alkateak azaldu du gaur bertan egin dela Haurreskolak Partzuergoko zuzendaritzarekin lehen lan-bilera. Halaber, adierazi du zuzendaritza batzordeko kideak udalerrira bertaratu direla eta udal haur-eskolako instalazioak bisitatu dituztela aipaturiko integrazioa gauzatze aldera.

EAJ taldeko Janire Mitxelena zinegotziak hitza hartzen du eta honako adierazten du:

“Aurreko Plenoan ere ez genuen erantzun argirik jaso gai honen inguruan. Diskurtso asko egon zen, baina datu eta azalpen zehatz gutxi.

Eta horrek are gehiago handitzen du gaur ditugun zalantzak.

Bestalde, azken asteetan kontraesan nabarmenak ikusten ari gara. Instituzio batean diskurtso bat mantentzen da, eta bestean kontrakoa egiten da.

Zaila da ulertzea nola alde batetik integrazioaren inguruan zalantzak planteatzen diren, eta bestetik udal gobernuak berak integrazioa eskatzen duen, eta gainera alde bozkatzera iristen den, nahiz eta konbikziorik gabe izan.

Horrek ez du laguntzen argitasuna ematen.

Eta gainera, aurreko Plenoan entzun genuen tokiko errealitatea ezagutzeko herrian bizi behar dela gai honen inguruan hitz egiteko.

Gure ustez, eztabaida hau ez da nor bizi den lekuaren arabera, baizik eta erantzukizun publikoaren arabera. Gure lana da galderak egitea eta herritarren interesak defendatzea.

Gainera, herrian zabaltzen ari den errelato bat dago, alegia ez dela erantzunik jaso eta ez dela beste aukerarik izan.

Baina gure ustez, garrantzitsua da gauzak argi esatea: integrazioa eskatzeko urratsa erantzuna jaso aurretik egin zen.

Eta horrek zalantzak sortzen ditu hartutako erabakien inguruan eta jarraitu den prozesuaren inguruan. Horregatik guztiagatik, eta gai honen garrantzia kontuan hartuta, berriro planteatzen ditugu galderak, argi eta garbi:

- Zein da udal gobernuaren aurreikuspena HH2 gelaren inguruan?
- Integrazioa irailean ez bada gauzatzen, nola bermatuko da zerbitzua eta bere doakotasuna?
- Nork emango du zerbitzua eta zein baldintzatan?
- Zein egoeratan geratuko dira langileak?
- Eta integrazioa gauzatzen bada, zer gertatuko da HH2 zerbitzua behar duten familiekin? Zein alternatiba eskainiko zaie?

Gai honen garrantzia kontuan hartuta, uste dugu garaia dela erantzun argiak emateko eta ziurgabetasuna amaitzeko.”

Alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du Haurreskolak Partzuergoak udal haur-eskolako 0-2 etapa bere gain hartuko duela; ondorioz, udal gobernu-taldea zeregin horretan lanean hasi dela. Era berean, azaldu du udalak aspalditik eskatu zuela 0-2 etaparen titulartasun-aldaketa, eta, jakina denez, ikastolak ere eskaera bera egin duenez, dagokion izapidetzea hari dagokiola, ez udalari. Horrenbestez, Alkateak adierazi du ezin duela tramite horien inguruko informazio gehiagorik eman, hemendik aurrerako izapideak ikastolaren eskumenekoak baitira.

Halaber, Alkateak adierazi du, prozedura administratiboengatik edo epeengatik ikastolak 0-2 urteko gelen titulartasuna eskuratuko ez balu, Udal Partzuergoak duela gela horien titulartasuna; beraz, zerbitzua bermatuta egongo litzateke eta inola ere ez lirateke haurrak arreta gabe geratuko. Hala ere, berriro azpimarratu du dagokion izapidetzea egitea ikastolari dagokiola.

Janire Mitxelenak, orain integrazioari hasiera eman da, irailerako gauzatuta egongo da?

Halaber, Alkateak adierazi du konfiantza dutela bai euren jardunean, bai Haurreskolak Partzuergoaren zuzendaritzak helarazi dien prozeduran. Gaineratu du udalaren aldetik dagokion lana egingo dela, nahiz eta prozesu osoa ez egon euren esku, tartean beharrezko baimenak lortu behar direlako. Dena den, azpimarratu du ez dela eraikin berririk eraiki beharko, jarduera orain arte Haurreskolara bideratutako eraikinetan bertan garatuko baita. Horrenbestez, a priori ez litzateke zailtasun handirik egon beharko.

Gaurko egunarekin edukitako bileran lan-giro atsegina eduki dutela aipatzen du alkateak, xehetasun asko landu dituztela hori izanik helburua lortzeko bidea.

Janire Mitxelenak adierazi du pozten direla lan-giro positiboan jardun dutelako, baina berriz dio ez dutela erantzun zehatzik ematen. Subrogazioei dagokienez, nabarmendu du dagoeneko maiatzean gaudela eta abuztua oporraldi garaia dela kontuan edukita, zalantzan jartzen du irailerako integrazioa burutzeko denbora emango ote duen.

Beraz, denbora emango ez baluke, udal gobernuaren proposamena zein den galdetzen du.

Alkateak adierazi du datorren ikasturterako integrazioa gauzatuta egotea dela helburua, eta horretarako lanean jardungo dutela ziurtatu du. Azpimarratu du argi dituztela egin beharreko urratsak: eraikina, langileak eta beharrezko materiala badituztela. Horrez gain, beste hainbat arlo lantzeko daudela gaineratu du, eta horietan ere jarriko direla lanean. Ildo horretan, adierazi du gaur bertan hasi direla lanean, eta udalak dagoeneko teknikariek osatutako lan-taldea duela, zeina buru-belarri ari den lanean. Janire Mitxelena zinegotziak lanean hasi izana goraipatu du.



Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:25ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

Idazkaria



Sin.: Joana Mendiboure



Sin.: Maria Victoria Joaristi Olariaga

I. ERANSKINA

GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUA.

ZIOEN AZALPENA

- I. Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektibo kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostia, Irun eta Errenteriako udalek, Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, SAK, RENFE-Operadora enpresa-erakunde publikoak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzak 2012ko otsailaren 20an sinatutako lankidetzarako protokolo orokorrean, Gipuzkoan garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzea sustatzeko lankidetzarako esparru orokorra ezarri zen.

2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako lurraldeko tarifa-sistema bateratua ezarri zen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren eredua eta oinarri teknologikoa izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALDEBUS marka erabilia arrakastaz garaturik.

Tarifa-sistema bateratua MUGI txartelaren inguruan eratuta dago; txartelari esker, titularrak bidaiatu dezake sistemari atxikitako edozein garraio-eragilerekin, partekatua den zonakapen baten arabera, tarifa bateratuak, talde berezi bateratuak eta hobaria duten garraio-aldaketak ahalbidetzeko politikak erabilia.

Gaur egun, tarifa-sistema bateratuari atxikita daude Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakida duten garraio-eragileak, LURRALDEBUS markaren barruan elkartuta, Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz, Hernani, Oiartzun, Lasarte-Oria, Tolosa, Oñati, Hondarribi eta Andoain udalerrietako hiri-barneko autobusak eta Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA, eta, horiez gain, RENFE trenbideko garraio-eragilea eta Pasaia motora. Azken bi hauetan, erabiltzaileek tarifa-sistema bateratua erabil dezakete garraio-zerbitzua erabiltzeko ordainketa-baliabide moduan.

Tarifa-sistema bateratuak urte hauetan erakutsi duen heldutasun eta egonkortasunari esker, lortu egin dira haren ezarpenarekin lortu nahi ziren helburuak; Gipuzkoako garraio publiko kolektiboa erabiltzaileentzat erakargarriagoa den sistema gisa kokatzen lagundu du, erraz ulertzeko moduko eta erabiltzaileek onartutako printzipioetan oinarritutako tarifa-sistema bat ezarri du, eta garraio publiko kolektiboaren sistema sare integratu gisa ikusten lagundu du, batez ere

mugikortasun iraunkorragoa sustatzera bideratua eta ibilgailu pribatuaren mendekotasun txikiagoa duena.

- II. Tarifa-sistema baturatuaren ondoriozko garraio publikoaren egoera berriak berekin ekarri zuen zerbitzua erregulatzen zuten arauak onartzea eta egokitzea edo aldatzea, gipuzkoarrek eskubide eta betebeharrak berberak izan zitzaizkien, garraio-eskumenaren titularra edo zerbitzua ematen duena edozein izanda ere, eta garraio-operadoreak arau-esparru bakar baten babespean eman zezaten zerbitzua. Arau-esparru erkide horrek garraio-enpresa operadoreen betebeharrak arautzen ditu, hutsuneak konpontzen, araudirik ez dagoelako edo egitatezko kasu batzuk aurreikusi direlako, eta zerbitzua ematean beharrezko segurtasun juridikoa ematen die.

Erregelamendu hau oinarrituta dago Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako kontsurtzioakideak diren erakundeek sinatutako lankidetzaren hitzarmenetan; bertan, berariaz xedatzen da erakunde horiek konpromisoa hartzen dutela Gipuzkoako Lurralde Historikoko bidaiarien garraio publikoko zerbitzua arautzen duen araudia harmonizatzeko egokiak diren jarduerak hasteko.

Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularraren ematea era bateratu eta homogeneousan arautzea.

Erregelamendu hau ezargarria izango zaie garraio publikoko zerbitzua erabiltzen duten erabiltzaileei eta zerbitzu hori ematen duten garraio-eragileei.

- III. Garraio publikoaren jarduera herritarren zerbitzura bideratuta egon behar da, zerbitzu erregular, maiztasunezkoa, puntuala, azkarra, autobus-aldaketa ahalbidetzen duena, eroso eta segurua eskaintzea lortzeko, informazioa formatu egokietan eskaintzen duena, guztientzako diseinuaren printzipioak markatutako arauak jarraituz, eta zerbitzuaren egoera zehatzen arabera egokiena dena.

Gipuzkoako gizartearen bilakaeraren ondorioz, eskakizun berriak sortu dira garraio publikoko zerbitzuan: irisgarritasun unibertsalari eta mugikortasun murriztuari lotutakoak, haur-kotxe eta -aulkiak sartzeko modua antolatzekeo beharra, bizikletak, patineteak edo etxeko animaliak sartzeko baimentzeko aukera, biztanle-dentsitate txikiari edo eskaera-maila baxuari erantzuna emateko zerbitzuak, bakar batzuk adieraztearren. Eskaera horiei erantzuna eman nahi diegu Erregelamendu honetako artikuluen bidez, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek apustu argi bat eginda, pertsona guztiek garraio publikoa erabiltzea ahalbidetzen duen zerbitzu unibertsala sustatzeko, denok ibilgailu pribatua erabili behar izan gabe dugun mugikortasunerako eskubidea erabiliz.

Mugikortasuna oinarritzeko eskubidea da herritar guztientzat, eta zerbitzua edozein pertsonarentzat irisgarria, ingurune abegitsuan eskainia eta guztientzat seguru eta

erosoa izateak eragina du gizarte osoaren bizi-kalitatean. Diseinu unibertsala onuragarria da adin guztietako eta gaitasun guztietako pertsona guztientzat.

Erregelamendu honen xedea da garraio-zerbitzua edozein pertsonarentzat irisgarria izango dela bermatzea, pertsonak mugikortasun-arazoak, zentzumen-komunikaziorako arazoak, pertzepzio-arazoak zein dibertsitate kognitibo edo mentaleko arazoak izan edo ez.

Garraio publikoaren bidez mugikortasun irisgarria bermatzeko oinarria bidaiarien mugikortasun-kateko espazio eta une bakoitzean ezartzen diren irisgarritasun unibertsalerako baldintzak eta zehaztasunak lortu eta betetzea da, eta kate hori honela eratuta dago: azpiegitura edo instalazio finkoak (adibidez, geltokiak edo markesinak), ibilgailuak, bien arteko lotura, informazio-, seinaleztapen- eta orientazio-sistemak, eta, azkenik, berez zerbitzua dena ematea.

- IV. Erregelamendua, bestalde, honela egituratuta dago: Atariko Titulua eta bost titulu gehiago, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.
- V. Erregelamenduan berariaz jaso nahi izan dugu irisgarritasun unibertsalari buruzko berariazko titulu bat, I. Titulua, hain zuzen ere, eta bertan bereizi egin dira irisgarritasun unibertsalaren eta mugikortasun murriztuaren kontzeptuak.

Ildo horretan, erregelamenduan xedatzen da garraio-zerbitzu publikoaren titularrak diren administrazioek eskura dituzten tresna guztiak erabili behar dituztela pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko, eta, horrela, pertsona guztiek, eta bereziki mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasuna edo bestelako muga psikiko edo sentzoriala dutenek, aldi baterako edo behin betiko izan, garraio-zerbitzua erabili eta gozatu ahal izango dutela bermatzeko. Irisgarritasuna funtsezko eta ezinbesteko elementua da desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen eskubideak erabat eraginkorrak izan daitezen.

Egungo gizartean, bizi-itxaropena handituz doa etengabe, eta hala, pertsona ugari istripu edo gaixotasunen ondorioz murriztua dute mugitzeko eta komunikatzeko gaitasuna, eta halaber, pertsona ugari, egoeraren arabera, mugikortasun mugatua dute. Gizartea bera da garraioan irisgarritasun-baldintzen hobekuntza eskatzen duena, horrek pertsona horien eta, oro har, gizartearen bizi-kalitate hobea ekarriko baitu.

8. artikuluan, erabiltzaileen bizitzan norberaren egoera iraunkorraren edo behin-behinekoaren arabera mugikortasun murriztuko pertsonatzat hartzen diren pertsona multzoen zerrenda bat jaso dugu. Artikuluaren barruan, desgaitasunaren eta mendekotasunaren legezko definizioa gaindituta, oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak sartu dira, eta lehentasunerako araubide argia ezarri da erreserbatutako espazio eta eserlekuetan. Halaber, ibilgailuetan sartzeko

lehentasun-araubidea ezarri da, eta, hala, erabiltzaileen zein gidarien arau-hauste bezala tipifikatu da mugikortasun murriztua duten pertsonen erreserbatutako plaza horiek okupatzen ez uztea.

Ildo berean, aurretiazko erreserbarako araubide bat ezarri da ibilbide luzeko bidaietan, aulki gurgildunean lekualdatu behar diren pertsonentzat, eta, hala, zerbitzuaren titularra den administrazioak ordezkoko garraioa bermatuko dio erabiltzaileari, aurretiazko erreserba egin eta gero, erreserbatutako plaza edo espazioaren eskaerari garraio-enpresa eragileak erantzun ezin dionean.

Zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, mugikortasun murriztua duten pertsonen gastu gehigarria izaten dutela jakinda –zenbaitetan lagunduta bidaiatu behar baitute–, berariazko tarifa-araubide bat ezarri dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileentzat, Mugi txartelarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean; eta, hala, doan bidaiatu ahal izango dute. Ekintza positibozko neurri horren bidez, garraio publikora bakarrik iristeko autonomiarik ez duten pertsonen desabantaila ekonomikoak konpentsatu nahi dira.

Erregelamenduan arabera, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek sustatuko dute garraio-enpresa eragileek erabiltzaileei zuzentzen dieten informazioa formatu egokietan eskaintzea, pertsona guztientzat irigarri eta ulerterrazak izan daitezen, irisgarritasun kognitiboaren ildoei jarraituz. Halaber, arreta-zerbitzuetan eta web orrialdeetan, komunikaziorako laguntzak eta zerbitzu osagarriak ematea sustatuko du, hala nola, sistema handigarriak eta hautabidezkoak, ahoz eta zeinu-hizkuntzaz komunikatzeko sistema laguntzaileak, ukimen-komunikazioko sistemak eta beste gailu batzuk, pertsona guztiei komunikazioa ahalbidetzeko, eta dena pixkanaka- pixkanaka, gaiaren konplexutasuna kontuan hartuta.

Azkenik, aurreikuspen bat sartu da, alegia, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek autobusetako eta, hala badagokio, geltokietako gailu akustikoak aktibatze beharrezkoak diren urrutiko aginteen banaketa sustatzea, hala eskatzen duten pertsonen artean.

II. Tituluan, garraio-zerbitzua erabiltzean bidaiariek dituzten eskubide eta betebeharrei buruzkoan, erabiltzaileen interes askotarikoak kontuan hartu nahi izan dira, bizitza pertsonal eta profesionalaren beharrei erantzun ahal izateko.

Gipuzkoako errealitate soziolinguistikoarekin bat, erabiltzaileen hizkuntz eskubideak ere kontuan hartu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionean, eta eskubide horiek bermatu egin behar dituzte bai zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, bai garraio-enpresa eragileek.

Erregelamenduaren bidez, haur txikiak dituzten familien betebeharrei erantzun nahi zaie, familia-bizitza eta bizitza profesionala bateratzeko zailtasun handiak dituztenean. Era horretan, ahalbidetu egin da heldu batek 6 urtetik beherako 4

adingaberekin batera bidaiatzea eta adin horretatik aurrerako haurrek bakarrik bidaiatu ahal izatea, guraso edo tutoreek horretarako baimena ematen badiete. Nolanahi ere, ohiz kanpoko edozein egoera edo adingabeenganako arretarik eza hautemanez gero, gidariek horretarako gaitutako mekanismoak erabili ahal izango dituzte. Neurri horien bidez, familia eta lanbidea bateratzeko erraztasunak eman nahi dira eta, halaber, udalerri txikietan orokorra den jardun bat islatzea, izan ere, bertan, hiri-barneko garraioa ikastetxeetara joateko ohiko bitartekoa da.

Garraio iraunkorra eta modu-artekotasuna sustatzeko xedez, bizikletak eramaten dituzten pertsonak sartu ahal izango dira dituzten ezaugarrien arabera hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, zerbitzuaren egoera kontuan hartuta, eta lurraldeko goi-eremuetako linea eta geltokietan. Hala eta guztiz ere, herritarrei aldezturik iragarrita, zerbitzuaren titularra den administrazioak mugak jarri ahal izango ditu, egun jakin batzuetan edo ekitaldi jakinak daudenean.

Ildo horretan, halaber, tolestutako bizikletak eskuko fardel edo ekipajetzat hartuko dira, ondorio guztietarako.

Erabiltzaileak izan daitezkeen pertsonen dibertsitatea errespetatzeko, eta Europako gainerako herrialdeetan zein Estatuko beste hiri batzuetan dauden azken joerekin bat, baimendu ahal izango da etxeko animaliek lagunduta doazen pertsonen bidaiatzea. Maskota-kopurua, eta bereziki txakur-kopurua, etengabe eta biztanleriaren adina igotzearekin batera handitzen ari dela jakitun izanik, garraio-zerbitzuaren titularrak diren administrazioek txakur eta katuak eramatea baimentzeko apustua egin dute, eta kasu zehatz batzuetan, tamaina txikiko beste animalien bat ere bai.

Hala eta guztiz ere, hainbat baldintza ezarri dira etxeko animaliak garraiatzeko, gainerako erabiltzaileen konfort- eta erosotasun-baldintzak errespetatu eta animalien ardura dutenek erantzun dezaten animaliek sor ditzaketen kalte edo bestelako gorabeheren aurrean.

Zerbitzua normaltasunez emateko orduan, erabiltzaileen interes kontrajarriak zailtasunak edo haserrealdiak sor ditzaketela jakinda, erregelamenduaren bidez gidarien irudia nabarmendu nahi izan da, eta, hala, gidariaren irizpidea izango da nagusitzen dena erabiltzaileen artean edo erabiltzaileen eta garraio-enpresa eragileetako langileen artean desadostasunak gertatuz gero.

III. Tituluan, garraio-enpresa eragileen betebeharrak jaso dira. Berrito ere pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko helburuaz, erregelamenduaren bidez ezarri da zerbitzua emateari buruzko informazio guztiak modu irisgarrian eskaintzeko betebeharra; hala ere, betebeharrak hori arian-arian beteko da, gaiaren konplexutasun teknikoa kontuan hartuta.

IV. Tituluan, garraio-tituluari buruzkoan, Gipuzkoan 2013ko martxoaren 4an ezarri ziren tarifa bateratuen ondorioa den egoera berriari erantzuna emateko, txartela sartu da tarifa-sistema bateratuko tituluen barruan, eta tarifa-izaerako aparteko

errekargu bat sortzea aurreikusi da. Txartel pertsonalizatuak behar bezala ez erabiltzeagatik jarriko diren zigorren araubidea ezarri da, eta berariaz bidaltzen da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak onartu eta 2014ko apirilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeke eta erabiltzeko Baldintza Orokorretara.

V. Tituluan, erregelamendu honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzeagatik ezarriko den zehapen-araubidea aurreikusten da.

Amaitzeko, erregelamenduan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan jarraipen-batzorde bat sortzea erabaki da, honela osatuta egongo dena: kontsortzioko kide diren administrazioen ordezkariak, garraio-enpresen ordezkariak, eta mugikortasuna mugatua duten edo bestelako mugaketa psikiko edo sentzoriala duten pertsonen alde lan egiten duten elkarten ordezkariak. Kontsulta-izaera izango duen batzorde horrek erregelamendu hau bete eta garatuko dela zainduko du, eta, egokia bada, Gipuzkoako gizartearen eskakizunei behar bezala erantzun ahal izateko testuak behar dituen aldaketak proposatuko ditu.

Erregelamendu hau idazteko prozesuan, zuzenean eraginda dauden taldeek parte hartu dute.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. *Erregelamenduaren xedea eta erregelamendua ezartzeko eremua*

Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea.

Erregelamendu hau ezargarria izango zaie adierazitako garraio publikoko zerbitzua erabiltzen dituzten pertsonen eta zerbitzu hori ematen duten garraio-enpresa eragileei.

2. artikulua. *Zerbitzuaren izaera publikoa*

Bidaiarien garraio-zerbitzua izaera publikokoa da, eta, hortaz, garraioa erabiltzeko eskubidea izango dute hala nahi duten pertsona guztiek, erregelamendu honetan eta errepideko bidaiarien garraioari buruz indarrean dagoen legeria ezargarrian erabiltzaileentzat jasotako baldintzak eta betebeharrak muga bakarrak direla.

Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak eskura dituen tresna guztiak erabiliko ditu pixkanaka-pixkanaka pertsona guztien irisgarritasun eta mugikortasuna bermatzeko.

3. artikulua. Definizioak

Hona hemen kontzeptu batzuen definizioa, erregelamendu honen eraginetarako:

Bidaia: Erregelamendu honetan arautzen den garraio-zerbitzu publikoaren erabiltzaile guztiak. Pertsona bat definizio honen barruan sartuko da aldez aurretik tiketa erosten duen unetik edo zerbitzuaren titularra den administrazio publikoak finkatutako geltokiren batean zerbitzuaren erabilera eskatzen ari den unetik, lekualdatzen ari denean eta aipatutako administrazioak ere finkatutako beste geltoki batean ibilgailu horretatik jaitsi arte.

Adingabea: sei urtetik beherako bidaia.

Bidaia errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra: garraio publiko erregularrak, iraunkorrak edo aldi baterakoak, eta erabilera orokorrekoak honako hauek dira: administrazio publiko eskudun batek ezarritakoak diren eta eskaera orokorrari erantzutera zuzentzen direnak, errepideetan ibiltzen diren ibilgailuen bitartez. Zerbitzu horiek eskaerari egokitutako garraio-zerbitzu moduan konfiguratuta egon daitezke, edo ez.

Ibilbide luzeko zerbitzua: zerbitzu publikoko linea, III. mailako autokarren bidez ematen dena; autokar horiek egokituta daude bidaia erabiltzaileak eserita garraiatzeko, eta ez dituzte inolaz ere zutik doazen bidaia erabiltzaileak garraiatzen. Ibilgailu horiek maletategia izango dute, fardelak eta ekipajea, haur-kotxe eta -aulkiak, bizikletak eta etxeko animaliak garraiatzeko.

Ibilgailua: Errepide bidezko pertsonen garraio kolektiborako garraibide homologatua. Hau da: autokar edo autobusa, minibus edo mikrobusa eta taxibus.

Geltokia: administrazio publiko eskudunak bide publikoan egokitutako espazioa, garraio publikoko ibilgailuak geratzeko eta bidaia erabiltzaileak itxaroteko; bertan, halaber, bidaia erabiltzaileak ibilgailuetara igo eta bertatik jaisten dira.

Geltokiak bere eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren elementu guztiak ditu, administrazio publiko eskudunak emandako ezaugarri berezien arabera: markesina, informatzeko elementuak, eserlekuak, etab.

Bizikleta: bi gorpildun zikloa, gainean doan pertsonak pedalen bidez sortutako muskulu-energiak bakarrik edo bereziki bultzatuta mugitzen dena.

Irisgarritasun unibertsala: Ingurune, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuek zein objektu, tresna, lanabes eta gailuek bete behar duten baldintza da, pertsona guztiek segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomoen eta naturalenean horiek ulertu, erabili eta eskuratu ahal izateko. Berekin du "diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren" estrategia, eta ulertu behar da egin behar diren zentzuzko doikuntzak egingo direla.

Garraio kolektiboko sistemek irisgarritasun unibertsalaren diseinu-jarraibideak bete behar dituzte, erabiltzaile izan daitekeen edozein pertsonari egokia den zerbitzua eskaini ahal izateko, giza aniztasuna eta horren arabera eskakizunak kontuan hartuta; eskakizun horiek, hain zuzen ere, garraio modu bakoitzeko diseinu irisgarritasun zehaztasun tekniko multzo batean eta horien arteko elkarrekintzan gorpuzten dira.

Mugikortasun murriztua duten pertsonak: aulki gurgildunetan lekualdatzen diren pertsonak dira, eta, oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak.

Plataforma: autobusean gainerako espazioak baino gardenagoa dena; bertara, zuzenean iristen da kanpotik, eta eusteko elementuak edota eserleku bereziak ditu, aulki gurgildunetan lekualdatzen diren edo mugikortasun murriztua duten gainerako pertsonak, haur-kotxe eta -aulkiak, eta fardel jakin batzuk garraiatzeko.

4. artikulua. *Zerbitzuaren eskumena, antolakuntza eta ustiapena*

Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregular bakoitzean eskumena duen administrazio publikoa da zerbitzua ezartzen duena, eta, halaber, horren titularra da, bidaiarien errepide bidezko garraioari buruz indarrean dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoan zein, hedaduraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezargarria den araudiaren arabera.

Administrazio publiko horrek erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzua antolatu eta planifikatuko du, bai linea, ibilbide, geltoki eta ordutegi dagokienez, bai bere eskumenekoa den garraio horrekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, eta halaber, berariaz pertsona guztien irisgarritasun unibertsala bermatzen duten sistema eta elementu guztiei dagokienez, hala nola: inklinatzeko sistemak, arrapalak, plataforma jasotzaileak eta txirrin egokituak.

Administrazio publiko horrek, era berean, zerbitzua kudeatzeko modalitatea definituko du, eta, antolamendu juridikoan aurreikusitakoa betez, garraio-zerbitzu publikoa ustiatu eta bidaiariei eskainiko dien erakunde eragilea hautatuko du.

I. TITULUA. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

5. artikulua. *Esparru juridiko arautzailea*

Garraio-enpresa eragilea behartuta egongo da ezargarria den indarreko legerian, eta, nolanahi ere, emakida-tituluan edo zerbitzuaren ustiapena egiteko emandako agirian jasota dagoen garraio publikoetako irisgarritasun unibertsalari buruzko araudia betetzera.

6. artikulua. *Irisgarritasuna sustatzen duten elementuak*

- 1.** Ibilgailuak irisgarritasun-sistemez hornituta egongo dira. Aipatutako sistemak erabilgarri eta aktibagarri egongo dira beti, horretarako ezarritako gailuen bitartez, adibidez urrutiko kontrolen bitartez.
- 2.** Ibilgailuek dituzten ezaugarrien arabera, sartu-irteteko sistema hauek eduki beharko dituzte:
 - Inklinatzeko sistemak zoru baxuko autobusetan. Sistema horiek beti erabili beharko dira, ezaugarri orografikoek galarazten ez duten bitartean hala ahalbidetzen badute, mugikortasun murriztua duten bidaiariak igo eta jaisteko.
 - Arrapalak zoru baxuko autobusetan, aulki gurpildunetan mugitzen diren pertsonak ez ezik, mugitzeko material ortoprotesikoa (taka-takak, makuluak, etab.) behar duten bidaiariak ere erabili ahal izateko.
 - Plataforma jasotzaileak zoru altuko autobusetan. Aulki gurpildunetan mugitzen diren bidaiariak sartu-irteteko erabiliko dira.
- 3.** Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak deitzeko txirrinak zein ohartzeko sistemak ulertu eta erabiltzea errazteko piktogramak eta bestelako elementuak jartzea sustatuko du, eta, halaber, geltokietan informazio eskuragarria ematea. Ohartzeko sistema horiek ozentasun eta soinu egokiak izango dituzte, gidatzen duen langileari eragozpenik ez sortzeko modukoak.
- 4.** Zerbitzuaren titularra den administrazioak, halaber, ibilgailu eta geltokietan informazioa eskuragarria izatea, eta arreta-zerbitzuetan eta web orrialdeetan komunikaziorako laguntzak eta zerbitzu osagarriak ematea sustatuko du, hala nola, sistema handigarriak eta hautabidezkoak, ahoz eta zeinu-hizkuntzaz komunikatzeko sistema laguntzaileak, ukimen-komunikazioko sistemak eta beste gailu batzuk, pertsona guztiei komunikazioa ahalbidetzeko.
- 5.** Ikusteko zailtasunak dituzten pertsonak garraiatzeko, ibilgailuek seinale argidun eta akustikoak izango dituzte sartzeko ateetan, kirrinkari edo deigarriegiak ez direnak, ateen kokapena erraz aurkitzeko. Era berean, geldialdia eskatu dela bisualki eta soinuaren bidez informatuko da, eta funtzionamenduan mantenduko da ibilbide osoan.
- 6.** Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak sustatuko du autobusetako irisgarritasunerako gailu akustikoak aktibatzeko beharrezkoak diren urrutiko aginteen banaketa, hala eskatzen duten pertsonen artean.

7. artikulua. *Irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzea*

Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu garraio-sistema une bakoitzean dauden irisgarritasun- eta mugikortasun-beharretara pixkanaka egokitzeko.

Halaber, garraio-enpresa eragileetako langileei egokia den prestakuntza ematea sustatuko du, mugikortasun murriztua duten bidaiarien beharrei erantzutearren.

8. artikulua. *Mugikortasun murriztua duten bidaiarien definizioa*

Jarraian adierazitako pertsonak hartuko dira mugikortasun murriztua duten bidaiaritzat –besteak beste ibilgailuen barruan erreserbatutako plazak eta espazioak erabiltzeko xedez–:

- Aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonak.
- Zentzumen-zailtasunak (ikusmena, entzumena, mintzamina) eta adimen- zailtasunak dituzten edo garraio-zerbitzu arrunta erabiltzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak.
- Alderdi antropometrikoak direla kausa, maniobratzeko zailtasunak dituzten pertsonak, eta, hala, espazio guztietara iristeko edo eserlekuak erabiltzeko gaitasun mugatua dutenak.
- Bihotzeko gaixotasunak edo arnasa-eritasunak nahiz mugitzeko zailtasuna sortzen dieten bestelako gaixotasunak dituzten pertsonak.
- Adin handikoak direlako lekualdatzeko arazoak dituzten edo autonomiaz lekualdatu ezin diren pertsonak.
- Haurdun dauden emakumeak edo adingabeekin doazen pertsonak.
- Gorputz-adar immobilizatu edo igeltsatuta dauzkaten edo makuluak erabiltzen dituzten pertsonak.
- Mugikortasun funtzionalik ez duten eta lekualdatzeko arazoak dituzten pertsonak.
- Oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak.

9. artikulua. *Mugikortasun murriztua duten bidaiariak sartu-irtetea*

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak sartu eta irteteko orduan, segurtasun osoa bermatu beharko da, ezargarria den araudiaren arabera.

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak ibilgailuan sartzeko mailara igo ezin direnean, horren berri emango diote ahoz gidatzen duen langileari, eta gidariak egokiak diren baliabideak erabiliko ditu bidaiari horiek autobusean sartzeko. Halaber, hitz egiteko mugatuta dauden bidaiariak keinu bidez adieraziko diote gidatzen duen langileari.

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak ibilgailuan sartu eta bertatik jaitsi ahal izango dira erabiltzen erosoan zaien eta esfortzu fisikorik txikiena egitera behartzen dituen atea erabilita.

Mugikortasun murriztua duten bidaiarien aulki gurpildunak sartu eta irteteko, horretarako gaituta dagoen atea erabiliko da, inklinatzeko sistemari eta sartzeko arrapalari edo plataforma jasotzaileari eragin eta gero, eta ibilgailuaren martxaren noranzkoa kontuan hartuta, aurrerantz edo atzerantz begira kokatuko dira, kasuaren arabera, eta balazta jarrita.

Autobusei dagokienez, oro har, aulki gurpildun homologatuetan lekualdatzen diren bi pertsona, gehienez ere, sartu ahal izango dira aldi berean ibilgailuan, irisgarritasun- baldintzei buruzko arau teknikoaren arabera.

Aulki gurpilduntan lekualdatzen diren pertsonen lehentasuna izango dute ibilgailuan sartzeko orduan, haur-kotxe eta -aulkien edo bizikleten aurretik, betiere horiek jadanik ibilgailuaren barruan ez badaude.

Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako elementu lagungarriak edo eustekoak, hala nola taka-takak, behar bezala lotuta egongo dira bidaiatu bitartean. Elementu lagungarriak eramaten dituen pertsona izango da objektuek pertsonen edo ondasunen sor diezazkieteketen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio-enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada.

10. artikulua. *Ibilgailuan erreserbatuta dauden eserlekuak eta espazioak*

Bidaiariak, lehentasunik gabe, askatasunez erabili ahal izango dituzte ibilgailuko eserlekuak, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat berariaz erreserbatutakoak salbu. Erabiltzaileek ezin izango dute inolaz ere eserita bidaiatzeko eskakizuna egin -eskubide hori izango baitute soilik bete gabeko eserlekuak badaude-, ibilbide luzeko zerbitzua ematen duten autobusetan izan ezik.

Autobusetan, mugikortasun murriztua duten pertsonen lehentasunez erabili ditzaten, aulki gurpildunetarako bi espazio eta lau eserleku erreserbatuko dira gutxienez, 12 metro arteko luzera duten autobusak direnean, eta sei eserleku, 18 metroko luzera duten autobus artikulatuak direnean. Eserleku horiek sartu-irteteko ateetatik hurbil egongo dira, behar bezala seinaleztatuta eta balidatzaileak, txirrinak eta geldialdi- seinaleak irisgarri izateko moduan.

Mikrobusetan, mugikortasun murriztua duten pertsonen lehentasunez erabili ditzaten, aulki gurpildunetarako espazio bat eta bi eserleku erreserbatuko dira gutxienez.

Gainerako erabiltzaileek okupatu ahal izango dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak, betiere pertsona horiek ibilgailuan ez badaude edo, ibilbidean, eserleku horiek eskatzen ez badituzte. Eserlekuetan mugikortasun murriztua duen pertsonaren bati plaza uzten ez dioten bidaiariak eserita badaude, gidariak eskatuko die eserleku erreserbatu horiek erabili behar dituzten bidaiariei uzteko.

Ibilbide luzeko zerbitzuetan, eserleku zenbakidunen arabera salmenta-zerbitzua ematen duten garraio-enpresa eragileek mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako plazak erabiltzaileen eskura jarri ahal izango dituzte, bakar-bakarrik, gainerako plazak jadanik erosi direnean.

Aipatutako zerbitzuetan, bidaiariak errespetatu beharko dute esleitu zaien plaza, tiketeen adierazita dagoena. Nolanahi ere, garraio-enpresa eragileko langileek

plazaren esleipena aldatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean.

Zutik bidaiatzerik onartzen ez den zerbitzuetan, alderdi antropometrikoak direla kausa –aldi baterako edo behin-betikoak izan–, erosotasun- eta segurtasun-baldintza orokorretan lekualdatzeko espazio gehigarria behar duten bidaiariak zerbitzua ematen duen enpresari egoera horren berri eman ahal izango diote, bidaia hasi baino

30 minutu lehenago gutxienez. Modu horretan, garraio-enpresa eragileak erreserbatu ahal izango ditu pertsona horiek bidaiatzeko beharrezkoak diren plazak.

11. artikulua. *Ibilgailuan espazio erreserbatutik eza*

Ibilbide luzeko zerbitzuetan, garraio-enpresa eragileak zerbitzua antolatu ahal izateko, aulki gurgildunean lekualdatu eta espazio erreserbatu baten erabilera bermatu nahi duten mugikortasun murriztuko bidaiariak enpresa eragileari horren berri eman beharko diote ibilgailua irteteko finkatutako dataren aurreko laneguneko 18:00ak baino lehen.

Aipatutako erreserba egin bada eta egitean emandako zenbakiaren bidez egiaztatu bada, eta hala ere garraio-enpresa eragileak ezin badu erreserbatutako plaza edo espazioa eskaini bidaia egiteko orduan, horren ordezkoko garraibide bat emango du, eta horren kostua zerbitzuaren titularra den administrazioak hartuko du bere gain.

Espazio erreserbatua behar duen mugikortasun murriztuko bidaiariak artikulua honetako lehenengo paragrafoan araututa dagoen erreserba egin ez badu eta ibilgailuan bidaiari horrentzat espazio erabilgarririk ez badago, baldintza egokietan artatua izan daitekeen lehenengo zerbitzura bideratu ahal izango da.

12. artikulua. *Mugikortasun murriztua duten bidaiarien tarifa-araubidea*

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak gainerako bidaiarien tarifa-araubide bera izango dute, bidaian ibilgailuko zer espazio okupatu behar duten alde batera utzita.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonak, Mugi txartel pertsonalizatuarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean, nahi duten beste pertsona batek lagunduta joan ahal izango dira, beraien segurtasun eta erosotasuna bermatzeko beharrezkoa den laguntza emateko gai denak; laguntzaile horrek doan bidaiatu ahal izango du, eta itsuen laguntzaile denean, ahal bada, haien ondoan eseriko da.

Hirugarren baten laguntza behar izateari buruz desadostasunak gertatuz gero, gidarien irizpidea nagusituko da "in situ", eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatu eta gero.

II. TITULUA. GARRAIO-ZERBITZUA ERABILTZEAN BIDAIARIEK DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

I. KAPITULUA. Bidaiarien eskubideak

13. artikulua. Bidaiarien eskubideak

1. Bidaiariak, erregelamendu honen ezarpen-eremuaren barruan dauden enpresa eragileek emandako garraio-zerbitzuaren jasotzaileak izanik, garraioari buruzko araudi orokorrean ezarritako eta, berariaz, kapitulu honetan zein erregelamendu honetako gainerako xedapenetan eta ezargarriak diren gainontzeko araudietan adierazitako eskubideen titularrak izango dira.

2. Bereziki, honakoak dira bidaiarien eskubideak:

1. Garraiatuak izatea, eta horretarako behar den eskakizun bakarra baliozkoa den eta, hala badagokio, behar bezala balidatuta dagoen garraio-titulua eramatea. Bidaiariak une bakoitzean indarrean dauden garraio-tituluen artean aukeratu ahal izango dute, indarrean dauden tarifen arabera eta betiere erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betez. Garraiatuak izateko eskubidea erabiltzeko baldintza aukeratutako zerbitzuan plazak egotea da.
2. Oro har ezarritako eta programatutako zerbitzu-eskaintzaren baldintzetan garraiatuak izatea, irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalaren printzipioen arabera.
3. Autobus, autokar, mikrobus, minibus eta taxibusen zirkulazioari atxikitako derrigorrezko aseguruaren estalpean garraiatuak izatea, egokiak diren homologazio-arauak betetzen dituzten ibilgailuetan, eta behar bezala prestatuta dauden langileek gidatuak, horretarako gaitzen dituen administrazio-baimena dutela.
4. Zerbitzuan dauden tarifa, funtzionamendu eta baldintza zein gorabehera buruzko informazioa jasotzea, beti irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalaren printzipioen arabera.
5. Laguntza-txakurrek lagunduta joatea, animalia horiei ezargarri zaien indarreko legerian ezarritakoari jarraituz.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan informazioa erabili eta jasotzea.
7. Garraio-enpresa eragileetako langileengandik tratu zuzena jasotzea. Langileek erantzun beharko diete erabiltzaileek zerbitzuarekin zerikusia duten gaietan egiten dituzten laguntza- eta informazio-eskaerei.
8. Ibilgailuan sartzeari beren fardel edo ekipajea aldean dutela, betiere gainerako erabiltzaileei edo ibilgailuari eragozpen edo arriskurik sortzen ez badiete, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.
9. Haur-kotxe eta -aulkiak eramatea, prestazio horren truke errekarigurik ordaindu gabe, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.
10. Bizikletak eramatea, prestazio horren truke errekarigurik ordaindu gabe. Bizikletak barruan edo maletategian soilik eramango dira, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, eta aurretiaz zehaztuko diren linea, geltoki eta ordutegietan, erregelamendu honetako 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.

11. Ibilgailuetan sartzea etxeko animaliek lagunduta, prestazio horren truke inolako errekararik ordaindu gabe, betiere gainerako erabiltzaileei edo ibilgailuari eragozpen edo arriskurik sortzen ez badiete, erregelamendu honetako 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.
12. Garraio-enpresa eragileen ibilgailu guztietan nahiz instalazio finkoetan, une bakoitzean indarrean dagoen erreklamazio-orria eskatu eta eskuratzea, zerbitzua ematearekin zerikusia duen edozein erreklamazio jarri ahal izateko.
13. Bidaiaren zenbatekoaren itzulketa jasotzea, zerbitzua eten egiten bada.
14. Bidaiaren zenbatekoaren itzulketa jasotzea garraio-tiketa alde aurretik erosi denean, betiere erabiltzailea zerbitzua ematen duen enpresa eragilearen leihatilara bertaratzen bada zerbitzua irten baino 10 minutu lehenago gutxienez, eta dena erregelamendu honetako 22. eta 41. artikuluetan jasotakoaren arabera.
15. Gorabeheraren baten ondorioz ibilgailua baztertu behar bada, bidaia linea berean edo, ezinezkoa bada, antzeko ibilbidea duen beste linea batean jarraitzea. Bidaiariak ez dute ordezkotako ibilbide hori ordaintzeko beharrik izango, eta irisgarritasun-baldintza egokiak eskainiko zaizkie.
16. Ibilgailuetan aurkitzen diren objektu galduak berreskuratzea, objektu horien jabetza edo edukitza legitimoa egiaztatu eta gero. Objektu horiek garraio-enpresa eragilearen bulegoetan edo objektu galduen udal-bulegoetan entregatuko dira, garraio-enpresa eragileetako langileek aurkitutako egoera berean.

Objektu galduak aurkitu eta bi urtetan egongo dira haien jabetza egiaztatzen duten pertsonen eskura; aldi hori igaro eta gero, objektuak aurkitu zituen erabiltzaileari itzuliko zaizkio edo, ezinezkoa bada, objektuez arduratu zen garraio-enpresa eragileko langileari. Ibilgailu batean objektu bat galdu duela uste duen edozein bidaiari harremanetan jarri ahal izango da zerbitzua ematen duen garraio-enpresa eragilearekin, objektua berreskuratzeko.

14. artikulua. *Garraioaren baldintzak*

Erabiltzaileek eskubidea izango dute zerbitzuaren titularra den administrazioak zerbitzua emateko ezarritako eskaintza-baldintzetan garraiatuak izateko.

15. artikulua. *Informazioa*

Zerbitzuaren titularra den administrazioak zainduko du pertsona guztiek zerbitzu horren ezaugarri, baldintza, funtzionamendu eta tarifei buruzko edo bestelako gorabehera, kexa, iradokizun edo erreklamazioei buruzko informazioa pixkanaka jaso edo kontsultatzeko aukera izatea, edozein formatu irisgarritan, jatorria eta euskarria zein den ere.

Adierazitako formatu irisgarri eta hautazko horiek honakoak izan daitezke, besteak beste: karaktere handiak, hizkera erraza, braille, teknologia moldagarriaren bidezko komunikazio elektroniko irisgarriak eta audio-zintak edo antzekoak.

Hautazko formatuetako informazio hori ibilgailuetan, instalazio finkoetan, geltokietan, web orrialdeetan edo beste edozein tokitan eman beharko da.

Zerbitzuaren titularra den administrazioak sustatuko du erabiltzaileei ematen zaien informazioa euskaraz eta gaztelaniaz ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere etengabe ematea, garraio-zerbitzua erabiltzen duten atzerritarren eskaerei erantzutearren.

16. artikulua. *Hizkuntza-politika*

1. Kapitulu honetan ezarritakoari jarraituz, eta jarraitutasunez, bertan jasotakoaren arabera, bidaiariak, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, hizkuntza-eskubide hauek izango dituzte:

- a. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren titularrak diren administrazio publikoekin harremanetan jartzeko aukeratutako hizkuntza ofizialean artatua izateko.
- b. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten enpresa eragileekin eta enpresa horien establezimenduekin harremanetan jartzeko orduan, hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea; zerbitzu horietan ari diren langileak bidaiariak artatzeko moduan egon beharko dira, erabiltzen duten hizkuntza ofiziala edozein dela ere.
- c. Aukeratzten duten hizkuntza ofizialean, garraio-zerbitzuari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- d. Hizkuntza ofizialetako edozeinetan erreklamazioak egiteko eskubidea.

2. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Kontsumitzaileen Estatutuari jarraituz, bidaiariarekin harremanetan jartzeko orduan, bi hizkuntz ofizialen erabilera bermatuta egongo da honakoetan:

- a. Gipuzkoako lurralde-eremuko establezimenduetan, idazkun, ohar eta, oro har, jendeari zuzendutako komunikazioetan.
- b. Bidaiariak betetzeko prestatu diren inprimaki edo eredu ofizialetan.
- c. Atxikipen-kontratu, klausula-ereduak dituzten kontratu, kontratu arautu, baldintza orokor eta kontratu horiei lotutako edo kontratuak gauzatzearen ondoriozko dokumentuetan, betiere bidaiariak berariaz aukeratzten ez badu hizkuntz ofizialetako bat erabiltzea.
- d. Bidaiariei berariaz zuzendutako komunikazioak eta, halaber, fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak bi hizkuntzatan idatziko dira, betiere bidaiariak berariaz aukeratzten ez badu bi hizkuntza ofizialetako bat erabiltzea.
- e. Bidaiariei zuzendutako garraio-zerbitzuen eskaintza, sustapen eta publizitatean, erabilitako euskarriak edozein izanda ere.

3. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra ematen duten enpresa eragileek artikuluko honetako 1. eta 2. idatzi-zatietan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

17. artikulua. *Adintxikikoak garraiatzea*

1. Adingabeek doan bidaiatuko dute; hala ere, doaneko tiketa izenekoa eduki beharko dute, plazak zenbatzeko eta trafikoari buruzko legeriak ezarritako derrigorrezko aseguruaren estaldura izateko xedez.

Adingabearen adinaren inguruan desadostasunak gertatuz gero, gidariaren irizpidea nagusituko da "in situ", eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatu eta gero.

Adingabeak, une oro, beren segurtasunaren erantzule den pertsona batek lagunduta joan beharko dira.

Heldu bat gehienez ere lau adingabek lagunduta egon ahal izango da.

2. 6 eta 18 urte bitarteko bidaiariak ibilgailuan sartzen badira beren segurtasunaren erantzulea den pertsona heldu baten laguntzarik gabe eta tarifa-sistema bateratuko txartel pertsonalizatua (MUGI txartela) eramaten badute, gurasoek edo tutoreek baimendutako adingabetzat hartuko dira ondorio guztietarako, eta, hortaz, euren erantzukizunpean bidaiatuko dute.
3. Talde antolatuan 5 eta 10 urte bitarteko 5 adingabek baino gehiagok bidaiatzen badute (udalekuak, kanpamenduak, etab.), derrigorrezkoa izango da gutxienez bigarren laguntzaile heldu bat egotea adin horretako 10 lagun arte, eta beste laguntzaile bat gehiago lehenengoak gainditzen dituzten 15 laguneko, ezargarria den indarreko legerian xedatutakoari jarraituz.

18. artikulua. *Fardelak eta ekipajea*

1. Bidaiariak, lekualdatzen direnean, pakete edo objektu txikiak edo gainerako eskuko fardelak eramateko eskubidea izango dute, betiere gainerako bidaiariei eragozpenik edo arriskurik sortzen ez badiete eta ibilgailuan dauden plazak murrizten ez badituzte.

Oro har, ez da onartuko bidaiariak 100 x 60 x 25 cm-ko neurria gainditzen duten fardel, ekipaje edo bidaia-maletarik eramatea.

Zutik doazen bidaiariak onartzen diren garraiobideetan, fardel edo ekipaje onargarriak izango dira eskuarki erabili eta onartzen direnak, hala nola erosketako orgak, tolestuta dauden bizikleta tolesgarriak, haur-kotxe eta -aulki tolestuak edo antzekoak, aurreko paragrafoan adierazitako neurriei bestelakoak izan ditzaketenak, dituzten ezaugarrien arabera.

Nolanahi ere, bidaiariak behar bezala heldu beharko die sartzen dituen fardelei eta ekipajeari, ibilgailura igotzen den unetik hasi eta bertatik irten den arte.

Ibilgailuko sarrera eta irteeretan, ibiltzeko zonetan, erreserbatutako espazioetan edo gelditzeko orduan eragozpenak sortzen dituzten objektu edo fardelak ezingo dira inolaz ere lurrean utzi.

Maletategia duten ibilgailuetan, nahitaezkoa izango da toki hori erabiltzea ibilgailuaren barruan fardelak uzteko erreserbatutako espazioarenak (barruko erretiluak) baino neurri handiagoak dituzten fardelak uzteko, eta doakoa izango da garraio-titulua duen bidaiari bakoitzeko 15 kilo gaingitzen ez dituzten ekipajeak garraiatzea.

Fardela edo ekipajea behar bezala paketatuta egongo da ibilgailuko maletategian gordetzeko, hau da, bidaia egitean ekipajearen edukia maletategian barreiatzea edo gainerako fardelak kaltetzea saihesteko moduan.

Istripuen edo bestelako kausen ondorioz ekipajeek kalteak edo galerak pairatzen dituztenean, zerbitzu publikoa ematen duten enpresa eragileen erantzukizuna bidaiarien eskubideei buruz indarrean dagoen legerian ezarritakora mugatuko da, betiere bidaiarientzat berariaz zenbateko handiagoak edo baldintza hobeak adosten ez badira.

Eskuko fardelak daramatzan bidaiariari egokituko zaio ekipaje hori zaintzea, eta, ondorioz, bidaiari horren kontura izango dira ibilgailuaren barruan egon bitartean ekipajeak paira edo sor ditzakeen kalteak, betiere garraio-enpresa eragilearen erantzukizuna frogatzen ez bada. Frogatuz gero, ezargarriak izango dira indarrean dagoen legeriak ekipajei dagokienez xedatzen dituen mugak.

2. Zutik bidaiatzea dagoen ibilgailuetan, bidaiariak eskubidea izango dute kirola egin eta aisialdian erabiltzen diren objektu edo fardelak edo horien antzekoak direnak eta bigarren paragrafoan aurreikusitako neurriak gaingitzen dituztenak eramateko (adibidez, surfeko oholak, eskiak, musika-tresnak edota antzekoak), betiere horretarako nahiko espazioa badago, aulki gurpildunak edo kotxe edo haur-aulkiak uzteko erreserbatutako espaziora iristea eragozten ez badute, eta igarotzeko eta sartu-irteteko lekuetan trabarik egiten ez badute, eta halaber, pertsona bakar batek garraiatzeko modukoak badira, bi metroko garaiera gaingitzen ez badute, eta dagokien zorroak babestuta badaude. Espazio nahikoaren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da.

Fardela daraman bidaiariak bertikalean mantenduko du, gainerako bidaiariei eragozpenik sortu gabe edota bidaiarien zirkulazioan trabarik egin gabe, bai sartu eta irtetean, bai ibilgailuaren barruan.

Maletategia duten ibilgailuetan, objektu horiek bertan utziko dira, zorroan behar bezala sartuta.

Fardelak eramaten dituen pertsona izango da adierazitako objektuek pertsoneri edo ondasunei sor diezazkieketen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio-empresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada.

19. artikulua. *Haur-kotxe eta -aulkiak eramatea*

Haur-kotxe eta -aulki irekiak onartuak izango dira ibilgailuetan, ibilgailuen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.

Kotxea edo aulkia plataforman utziko da, eta gainerako bidaiariei igarotzea oztopatu gabe kokatuko da. Kotxe edo aulki irekiak lotu beharko dira eta balazta ipinita edukiko dute; adingabea ibilgailua doan martxaren kontrako noranzkora begira egongo da. Kotxea edo aulkia daraman pertsonaren ardura izango da behar bezala kokatzea eta lotzea, adingabearen eta gainerako bidaiarien segurtasuna bermatzeko moduan. Nolanahi ere, kotxea edo aulkia daraman pertsona kotxearen edo aulkiaren ondoan egon beharko da, eta une oro helduko dio.

Kotxeak eta aulkiak zenbatzeko xedez, haur-kotxe edo aulki bikoitzak edo handiagoak (bikientzat, edo hirukientzat) bi balira bezala zenbatu ahal izango dira, ibilgailuan dagoen espazioaren arabera.

Gehienez ere bi kotxe edota aulki ireki eraman ahal izango dira 18 metro arteko ibilgailuetan, eta bakar bat ibilgailu txiki edo mikrobusetan, betiere aulki gurpildunean lekualdatzen den pertsonarik ez badago ibilgailuan.

Ahal dela, haur-kotxe eta -aulki irekiak ibilgailuan sartuko dira horretarako gaituta dagoen atetik, aulki gurpildunak igotzeko arrapalari eragin gabe, baina bai ibilgailua inklinatzeko sistemari.

Ibilgailuan haur-kotxe edo -aulkia daramatela sartzen diren bidaiariek, edonola ere, errespetatu beharko dute aulki gurpildunetan lekualdatzen diren erabiltzaileek ibilgailuan sartzeko eta plataforman haientzat dagoen espazioa okupatzeko duten lehentasuna. Haur-kotxe eta -aulkiek lehentasuna izango dute, bakar-bakarrik, jadanik ibilgailuaren barruan badaude.

Ez da onartuko kotxe do aulki irekirik sartzea, adingabea garraiatzen ez dutenean. Ahal dela, aurreko atetik sartuko dira kotxe edo aulki tolestua daramaten bidaiariak.

Maletategia duten ibilgailuetan, haur-kotxe edo -aulkiak nahitaez sartu beharko dira bertan.

Ez da errekar gurik ordainduko haur-kotxe edo -aulkia eramateagatik, erregelamendu honetako 13.9. artikuluan jasotakoaren arabera.

20. artikulua. *Bizikletak eramatea*

1. Bizikletak onartuko dira, bakar-bakarrik, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, Administrazio bakoitzak bere eskuduntza pean dauden zerbitzuetarako aurrez zehazten dituen linea, geltoki eta ordutegietan.

Behar bezala adieraziko da zer geltoki eta lineatan baimenduta dagoen bizikletak daramatzaten pertsonak ibilgailuetan sartzea, eta baita horretarako dauden geldialdi- ordutegiak ere, egokia bada.

Maletategia duten autobusetan, bizikletak bertan utziko dira, dagokien zorroak babestuta.

Pertsona bakoitzeko bizikleta bat bakarrik onartuko da. Ibilgailuan, gehienez ere bi bizikleta eraman ahal izango dira aldi berean. Nolanahi ere, aulki gurpildunean lekualdatzen diren pertsonak eta haur-kotxe eta -aulkiek lehentasuna izango dute ibilgailuan sartzeko orduan, bizikleten aurretik, eta ibilgailuak aulki gurpildunean edo haur-kotxe edo -aulkian doan pertsonaren bat garraiatzen duenean ezin izango da bizikletarik sartu. Aitzitik, ibilgailuak bizikleta bat bakarrik garraiatzen badu, aulki gurpildun edo haur-kotxe edo -aulki bat sartu ahal izango da.

Edonola ere, bizikletak erdiko atetik sartuko dira, eta plataforman kokatuko dira; bizikleta daraman pertsonak egoki helduko dio, eta beti geratuko da bizikletaren ondoan.

2. Bizikleta tolestuak ibilgailu guztien barruan onartuko dira, ekipajea balira bezala, erregelamendu honetako 18. artikuluan jasotakoari jarraituz.

Bizikleta mota hori guztiz tolestuta egon beharko da erabiltzailea ibilgailuan sartzen den unean.

3. Ez da errekargurik ordainduko bizikleta eramateagatik, ez kabinan, ez maletategian, erregelamendu honetako 13.10. artikuluan jasotakoaren arabera.

4. Bizikleta eramaten duen pertsona izango da adierazitako objektuak pertsonen edo ondasunen sor diezazkiekeen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio- enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada.

21. artikulua. Etxeko animaliak eramatea

Baimena ematen zaie etxeko animaliak babesteko 9/2022 Legean halakotzat definitutako konpainia-animaliei, txakurrak, katuak eta hudoak sartzea barne

Etxeko animaliek lagunduta bidaiatzea baimenduta dagoen zerbitzuetan, nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dira:

- a. Animaliek beren ekintzen erantzule den pertsona batek lagunduta bidaiatu beharko dute
- b. Animaliak kaiola, ontzi edo homologatutako beste edukiontzi itxi baten barruan eraman beharko dira nahitaez, zaintzailearentzako eserleku

gehigarririk izan gabe eta haien usain edo zaratagatik eragozpenik sortu gabe, edo, oro har, gainerako bidaiarien erosotasuna murriztu gabe. Horri buruzko eztabaidarik izanez gero, gidarien irizpidea nagusituko da. Zaintzaile bakoitzeko ontzi baterako sarbidea mugatzen da

- c. Maletategia duten ibilgailuetan, abereek bertan joan beharko dute nahitaez, kaiola, jasotze-elementu edo gailuz itxitako beste edukiontzi homologatu baten barruan, gorozkiak gordetzeko eta kentzeko.
- d. Txakurrek zaintzailearen besoetan bidaiatu ahal izango dute, baldin eta eserlekuaren zabalera edo ibilgailuaren plataforma gainditzeko ez badute. Bi kasuetan, animaliaaren ezaugarrietarako egokia den uhalaren bidez lotu beharko dira, uneoro zaintzailearekin kontaktu fisikoan egon dadin, muturrekoa, baimendutako albaitaritza-zentro batek emandako osasun-txartela eta erantzukizun zibileko aseguru bat dutela, indarrean dagoen legerian aurreikusitako higie- eta osasun-baldintzetan eta segurtasun-baldintzetan. Gidariek animaliaaren osasun-txartela eskatu ahal izango dute, animaliaaren gutxieneko higie- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituela adierazten duten zantzuak daudenean edo animaliarekin lotutako edozein motatako eztabaidak sortzen direnean.
Nolanahi ere, adierazitako osasun-txartela eta aseguru-poliza erakustea eskatu ahal izango da, pertsonei edo ondasunei kalte eragiten dien arazoren bat gertatuz gero.
- e. Animaliek ezin izango dute inola ere bidaiatu gaueko zerbitzuetan
- f. Debekatuta dago animaliak garraio publikoan sartzea higie- eta osasun-baldintza eskasetan eta/edo sartze horrek ibilgailuen garbitasun-baldintzak aldatzea edo beste erabiltzaile batzuei eragozpenak eragitea dakarrenean.
- g. Pertsona bakoitzeko animalia bakarra onartuko da.
Ibilgailu baten plataforman gehienez ere bi animalia bidaiatu ahal izango dira aldi berean.
- h. Eramailaren erantzukizuna izango dira animaliak eragin ditzakeen kalteak, salbu eta hirugarren batek edo garraioen enpresa operadoreak egiaztatutako erantzukizuna.
- i. Bidaiariren batek animalia dela-eta eragozpenak jartzen dituen unean (adibidez, erreakzio alergikoak dituelako, edo usain edo zaratagatik), eta animalia horren zaintzailea baino lehen igo bada, animalia eta zaintzailea ibilgailuaren beste leku batera aldatzeko betebeharra izango dute.

Artikulu honetan adierazitakotik salbuetsita daude itsu-txakurrak eta laguntza-txakurrak, baldin eta eginkizun horiek betetzeko zentro homologatuek egiaztatuta badaude; hala bada, une oro bidaiatu ahal izango dute laguntzen dioten pertsonaren ondoan, eta ezargarria den araudian ezarritako baldintzetan.

22. artikulua. Ibilbideak etetea eta aldatzea

Oro har, obrak, jaiak, ekitaldi bereziak eta abar direla kausa ibilbidea aldatu edo zerbitzua aldi baterako eteten bada, jendearen jakinaren gainean jarri beharko da behar adinako aurrerapenaz, eta horretarako garraio-enpresa eragileen informazio-

zutoinak, markesinak eta web orrialdeak erabiliko dira, edo ibilgailuak berak. Informazio hori gorabehera bakoitzaren garrantziaren arabera antolatuko da, eta ahal dela eragindako pertsona gehienei emango zaie horren berri, informazioa eragindako geltoki eta lineetan jarrita.

Tiketaren zenbatekoa itzuliko da, bakar-bakarrik, zerbitzu bat hasi baino lehen eteten bada. Ez da ulertuko zerbitzua eten dela edozein linea ohiko ibilbidetik desbideratzea, edo zerbitzua hasi eta gero gelditzea, garraio-enpresa eragilearenaren borondatezkoak ez diren ezinbesteko arrazoiengatik.

Ibilgailua matxuratu delako zerbitzua eteten bada, zerbitzua ematen duen enpresak prestatu duen eta irisgarritasun-baldintza egokiak dituen beste ibilgailu bat erabili ahal izango dute bertan doazen pertsonak, garraio-titulu bera erabilia eta gidariaren jarraibideen arabera.

Bidaia osatzeko, garraio-enpresa eragilea behartuta egongo da ahalik eta azkarren ibilgailu bat jartzera, eta, egokia bada, matxuratutako ibilgailua dagoen lekutik hurbilen kokatutako basetik ekarriko du berehala, betiere hurrengo zerbitzua ordeztuko ibilgailua baino lehenago iristeko moduan badago eta bete gabeko plazak baditu. Hori dena irisgarritasun-baldintza egokietan egingo da.

Bidaiariak tiketaren zenbatekoa itzultzeko eskubidea erabiltzeko, baliozko garraio-titulua aurkeztu beharko dute, behar bezala balidatua, hala badagokio.

23. artikulua. *Atzerakoak ematea*

Tiketa ibilgailuaren barruan erosten bada, bidaiariak atzerakoak, diru xehean edo diru-paperean, jasotzeko eskubidea izango dute, 20 euro arte, erregelamendu honetako 45. artikuluan xedatutakoari utzi gabe.

Erabiltzaileak diru xeherik ez duelako bidaia ordaindu ezin badu eta ibilgailua martxan jarri bada, hurrengo geltokian jaitsi beharko da ibilgailutik.

II. KAPITULUA. Bidaiariak bete beharreko baldintza orokorrak

24. artikulua. *Bidaiarien betebeharrak*

Bidaiariak betebeharrak hauek izango dituzte beti:

- a. Baliozko garraio-titulua eramatea, eta, tarifa-sistema bateratuari dagokionez, behar bezala balidatua, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera; bidaiariak garraio-titulua gorde beharko du ibilbide osoan, eta zerbitzua ematen duen enpresako langileen eskura zein zerbitzuaren titularra den administrazioko ikuskatzaileen eskura.
- b. Garraio-enpresa eragileetako langileen jarraibideak betetzea, zerbitzuari eta horren gorabeherari lotutako gaitan.

- c. Instalazio eta ibilgailuetan agerian jarritako horma-irudi edo gomendioetan jasotakoa errespetatzea, eta ez egitea gainerako bidaiarientzat edo garraio-entresako langileentzat eragozpena den edozein ekintza.
- d. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak eta espazioak errespetatzea.
- e. Ibilgailuetan sartzeari eragotzi behar duen ateetatik, eta ibilgailuen barruan gainerako bidaiarien zirkulazioa erraztea. Halaber, tiketa erosi edo garraio-txartela balidatu eta gero, irteteko ateetatik hurbil kokatuko dira ahal dela, ibilgailuan sartu nahi duten pertsonen sarbidea utzita.
- f. Ibilgailura igotzea geltokian geldirik dagoenean, bakoitzari dagokion txanda errespetatuz, geltokira iritsi diren ordenaren arabera.
- g. Ibilgailutik jaistea finkatutako geltokietan, era ordenatuan, eta beti linea-amaierako geltokian.
- h. Ibilgailua gelditzeko eskaera behar adinako aurrerapenaz egitea, bertatik irteten edo bertan sartzeko.
- i. Segurtasun-uhalek nahitaez erabiltzea, uhalez hornituta dauden ibilgailuetan, betiere, bideko segurtasunari buruzko araudiari jarraituz, bidaiariak salbuetsita ez badaude.
- j. Eserleku osagarriak tolestea hala behar denean, adibidez, pertsonak igaro eta mugitzea zein horien erosotasuna galarazten dituzten jende-pilaketak daudenean.
- k. Higiene- eta osasun-egoera gainerako bidaiariei edo gidariei kutsatu edo eragozpenik sortzeko arriskuan (adibidez, usainengatik) ez jartzeko modukoa izatea.
- l. Zerbitzuak, ibilgailuak eta geltokiak gaizki erabiltzearen ondorioz edo ondasunak gaizki kokatzaren ondorioz, zerbitzuari atxikitako elementuetan edo gainerako bidaiariei sortutako kalteen aurrean erantzutea.
- m. Bidaiarien artean, zerbitzuarekin zerikusia duten arrazoiengatik eztabaida sortuz gero (leihoak ireki eta ixtea, aire girotuko gailuen funtzionamendua, etxeko animaliak sartzeari, etab.), gidarien irizpideak lehentasuna duela onartzea.

25. artikulua. *Debekuak erabiltzaileentzat*

- a. Ibilgailura igotzea, gidariak ohartarazi duenean ibilgailua guztiz okupatuta dagoela.
- b. Bidaiatzeko prestatuta ez dauden lekuetan bidaiatzea.
- c. Erregelamendu honetako 18. artikuluan adierazitakoez bestelako fardelak eramatea.
- d. Hainbat objektu eramatea, adibidez, beren izaera dela kausa, bidaiariei zuzenean edo zeharka, edo kanpoko alderdiekin batera, eragozpenak sortuz objektuak, eta pertsonen osotasun fisikoa edo osasuna arriskuan jarri nahiz ibilgailuan edo garraio-zerbitzuan kalteak sortuz ditzaketenak.

Bereziki debekatuta dago materia leherkorrak, sukoiak, korrosiboak, erradioaktiboak, pozoitsuak, toxikoak, kutsagarriak edo antzekoak sartzea edota garraiatzea.

- e. Ibilgailuan arriskutsuak izan daitezkeen animaliekin sartzea.
- f. Ibilgailuan patinak ipinita sartzea.
- g. Ibilgailuen barrualde edo kanpoaldean edo geltokietan idatzi, margotu, zikindu edo hondatzea edozein modutan.
- h. Paskinak, liburuxkak eta edozein propaganda edo publizitate mota banatzea ibilgailuen barruan.
- i. Ibilgailuen barruan eskean aritzea.
- j. Irratiak, soinua erreproduzitzeko edo komunikatzeko gailuak, gailu elektronikoak edo antzekoak erabiltzea beste bidaiariek edo gidariak entzuteko modukoa den eta gogaikarria izan daitekeen bolumena dutenean. Horren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da.
- k. Nabarmen hordituta edo estupefazienteen eraginpean sartzea, zerbitzuaren ohiko funtzionamendua galarazteko moduan.
- l. Ibilgailuen barruan erretzea eta droga toxikoak, estupefazienteak edo edari alkoholodunak kontsumitzea.
- m. Ibilgailuaren barruan edozein elikagai edo edari jan eta edatea, lekuan ohikoak direnak izan ezik, ibilgailuetako segurtasun- edo garbitasun-egoeraren aldaketa edo gainerako erabiltzaileentzat eragozpenak sor ditzaketenean.
- n. Ibilgailuko leihatiletatik objektuak jaurtitzea edo gorputz-atalak ateratzea.
- o. Gidariekin hitz egitea, zerbitzuarekin zerikusia duten beharrengatik ez bada; edo, justifikatutako kausarik gabe, ibilgailua martxan dagoela gidatzean arreta galarazi edo eragozpenak sortzen dituen edozein ekintza burutzea.
- p. Ibilgailutik jaistea edo bertara igotzea finkatutako geltokietatik kanpo edo ibilgailua mugitzen ari dela, justifikatutako kausarik gabe.
- q. Zutik bidaiatzea horretarako berariaz jarrita dauden segurtasun-gailuei behar bezala helduta edo lotuta egon gabe.
- r. Ibilgailuaren barruan, ibilgailua zirkulatzen ari dela barra edo heldulekuei behar bezala heldu gabe ibiltzea, balaztatu behar denean edo trafikoaren ondorioz edozein gorabehera gertatzen denean norberaren edo gainerako erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan jarritz.
- s. Ibilgailuan dagoen edozein segurtasun- edo laguntza-mekanismo justifikatutako kausarik gabe erabiltzea.
- t. Ateak ireki eta ixteko mekanismoak manipulatzeko edo indarrez erabiltzea.

Goian jasotako xedapenak urratzen dituen edonori ibilgailuan sartzea debekatuko zaio, edo, bidezkoa bada, ibilgailutik irteteko aginduko zaio, tiketaren zenbatekoa itzultzeko eskubiderik gabe.

Gidariak ibilgailuan sartu nahi duten eta erregelamendu honetan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez duten pertsonaiei jakinaraziko die bertan sartzea

debekatua dutela, eta baldintzak bete ala bidaiatzeko asmoa alde batera uzteko eskatuko die. Berdin jokatuko du gorabehera gertatzen bada pertsona ibilgailuaren barruan dagoela; horrelakoetan, erregelamenduan ezarritakoa betetzeko eskatuko dio, edo, hala egiten ez badu, hurrengo geltokian ibilgailutik jaisteko.

Erabiltzaileak bere jokaera mantentzen badu eta gidariaren eskaerari jaramonik egiten ez badio, gidariak berehala emango die horren berri ikuskapen-zerbitzuei edo agintaritzza-agenteei, garraio-enpresa eragilearen langilearen oharpenei kasurik ez egiteagatik salaketa jar dezaten, edota, bestela, aurpegiratutako egintzagatik egokia den salaketa jar dezaten.

III. TITULUA. GARRAIO-ENPRESA ERAGILEEN BETEBEHARRAK

26. artikulua. Informazioa

Garraio-enpresa eragilea arduratuko da garraio-zerbitzua emateak dituen ezaugarriei eta zerbitzuaren garapenean eragina duten gorabeheriei buruzko informazioa emateaz. Informazio hori pertsona guztiek eskuratzeko moduan eskaini beharko da.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eta zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazioak, bakoitzaren eskumenen eremuan, zaindu egingo dute betebeharrak hori pixkanaka gara dadin.

Ibilgailuetan, une oro indarrean dauden tarifak ikusgai egongo dira, eta, era berean, erregelamendu honetan baliozko garraio-titulurik ez duen edo behar bezala balidatuta ez daukaten bidaiarientzat aurreikusita dagoen tarifaren aparteko erreklama adieraziko da.

Halaber, erregelamendu honetako xedapenen laburpen bat jarriko da ibilgailuetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tarifa Sistema Bateratua kontratatze eta erabiltzeko Baldintza Orokorren laburpenarekin batera.

Horrez gain, garraio-enpresa eragileek erabiltzaileari jakinaraziko diete erreklamazio-liburua edota erreklamazio-orriak badaudela.

27. artikulua. Geldialdiak

Geldialdiak terminalak edo eskatutakoak izan daitezke.

Lineako geldialdi terminalak, edo ibilbidearen bukaerakoak, derrigorrezkoak izango dira, eta ordutegiak erregularizatzeko baliatuko dira.

Eskatutako geldialdiak dira ibilgailua bidaiariak sartu eta irteteko beharrezkoa den denboran soilik gelditzen denaldiak, ibilgailuaren barruan txirrina sakatuta geldialdia eskatu delako, edo gidariak geltokitik igarotzean eta martxa moteltzean ikusi duelako bertan bidaiariak badaudela eskua altxatua, ibilgailuan sartu nahi dutela adieraziz horrela.

Linea, ordutegi eta maiztasunak, behar bezala eguneratuak, bidaiarien eskura egongo dira beti geltokietan –haien ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean–, garraio-enpresa eragileen bulegoetan, eta web orrialdeetan. Informazioaren barruan, nolanahi ere, lehenengo eta azken zerbitzuaren hasierako ordutegia eta bidaien maiztasunak egongo dira. Maiztasuna 20 minutukoa edo hortik gorako tartekoa bada, abiaburuko irteera-ordutegi zehatzak adierazi ahal izango dira.

Garraio-enpresa eragileak informazio hori etengabe zabalduko du, linea bakoitzaren ezaugarrien arabera, sarearen planoak edo beste edozein informazio osagarri emanda, eta horretarako, zerbitzuaren titularra den administrazioaren edo Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren lankidetzara eskatuko du, erakunde horien eskumenak kontuan hartuta.

Garraio-enpresa eragileak behartuta daude ezarritako irteera-ordutegiak eta maiztasunak betetzera. Eskatutako geldialdietarako adierazitako maiztasun eta ordutegiak orientaziokoak dira, eta, besteak beste, trafikoaren edo klimatologiaren inguruabar txarrek eraginda suerta daitezke. Enpresaren kalitate-irizpideen barruan, finkatutako maiztasunak betetzeko baliabideak ezarri beharko dira, edo, egokia bada, ibilgailuak ibilbideko geltoki batetik ez igarotzeko iragarritako ordua baino lehen.

Zerbitzuen ordutegia eta maiztasuna zehazteko xedez, ibilgailuen barruan sartu diren ekipo eta informazio-panel guztiak sinkronizatuta egongo dira doitasun handiko denbora errealeko erloju baten bidez; erloju hori, halaber, sistemarekin sinkronizatuta egongo da, GPSko NMEA protokoloko bilbeen bitartez. Erloju hori izango da ordutegiak era ofizialean markatuko dituenak.

28. artikulua. *Ibilgailuak geltokietan aparkatzea*

Hainbat lineak partekatzen dituzten geltokietan, bi ibilgailu edo gehiago elkartzen direnean, ulertuko da geltokira iritsi den bigarren ibilgailua, lehenengoaz gain, bidaiariak sartu eta irtetea onartzeko arauzko lekuan dagoela.

Hirugarren edo laugarren dauden ibilgailuetako gidariak ez dituzte ateak irekiko, harik eta lehenengo lekura (geltoki-seinalearen parean) edo bigarrenera (atzetik datozen autobusetakoren batek bertan jarraitzen badu) iritsi arte. Ibilgailua bigarren lekuan gelditzen denean, gidariak egiaztatu beharko du geltokian ibilgailura igo gabe geratu den inor ez dagoela.

Ibilbideko geltokietan egiten den geldialdia bidaiariak sartu-irteteko beharrezkoa dena soilik izango da.

Geltoki terminaletan aparkatzen denean (gidariak atsedena hartzeko arauzko denboran eta ibilgailua iristen denetik ezarritako ordutegiaren arabera irten den arteko tartean salbu), sartzeko ateak irekita egongo dira, bidaiariak sartu ahal izateko.

Adierazitako geltokietan, aparkaldia lau minututik gorakoa izango dela aurreikusten bada, gidariak ibilgailuaren motorra geldituko du, eta martxan jarriko du irten baino

minutu bat lehenago. Geltokian motorra gelditzeko beharra betetzeko adierazitako lau minutuko denbora erreferentzia-esparrua da; motorra geldialdi luzeetan gelditzeko betebeharrak moduan ulertu behar da, bidaiari-lekua girotzeko beharrezkoa den aldia alde batera utzita.

Segurtasun-arrazoiak direla medio, debekatuta dago bidaiariak geltokitik kanpo sartu edo irtetea, ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta egokiak diren baldintzak badaude eta ibilgailuaren barruan zein hortik kanpo dauden erabiltzaileentzat arriskurik sortzen ez bada. Paragrafo honetan araututakoa ez zaio ezarriko ekitaldi berezietan baimendutako geltokien araubideari.

29. artikulua. *Ibilgailuak*

Garraio publikoko zerbitzuari atxikitako ibilgailuak identifikatuta egongo dira zerbitzuaren titularra den administrazioaren irudi korporatiboaren bidez, betiere horren aurka behar bezala arazoitutako kausarik ez badago.

Horrez gain, ibilgailuek emakida-tituluan edo zerbitzuaren baldintzak arautzen dituen agirian ezarritako identifikazio-elementuak izango dituzte, bai kanpoan, bai barruan.

30. artikulua. *Tarifak eta garraio-tituluak erabiltzeko baldintzak aldatzea*

Tarifak, titulu motak edo horiek erabiltzeko baldintzak aldatzea baimentzen denean, horren berri emango zaie bidaiariei bere garaian.

Txartelen balioaren muga-eguna iritsi baino lehen agortu ez diren baliozko txartelak aldatzea baimentzen bada, ibilgailu guztietan jarriko da horri buruzko informazioa.

31. artikulua. *Publizitatea ibilgailuetan*

Zerbitzuaren titularra den administrazioak ibilgailuen barrualdean zein kanpoaldean publizitatea onartzeko edo debekatzeko aukera ezarri ahal izango du, eta, nolanahi ere, egokia den irudi korporatiboa errespetatuko da.

Publizitatea ez da trabarik izango ibilgailuak garraio publikoko ibilgailu moduan identifikatzeko. Ez du eraginik izango gidariak ikus-espazioetan, eta ez da baimenduko, inolaz ere, publizitatea ibilgailuaren aurrealdean jartzea.

Publizitatearen edukiek Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legeria beteko dute, eta bereziki emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari zein droga-mendekotasunaren prebentzioari buruzkoa.

32. artikulua. *Higiene- eta erosotasun-baldintzak*

Bai ibilgailuak, bai zerbitzua emateko garraio-enpresa eragileek erabiltzaileei arreta emateko erabiltzeko instalazio finkoak egoera onean mantenduko dira, bidaiariak osasungarritasun- eta higiene-baldintza egokietan erabili ahal izateko moduan.

Gidariek komunikaziorako eta soinua erreproduzitzeko gailuak zein irratiak erabiltzen dituztenean, erabiltzaileak ez gogaitzeko moduko bolumenean jarriko dituzte. Nolanahi ere, gogaikarritzat hartuko da 55 LAeq (dB)-tik gorako muga-balioa, ibilgailuko kabinaren barruan neurtuta, ateak eta leihoak itxita daudela.

33. artikulua. *Ibilgailuen garbiketa eta mantentzea*

Ibilgailuei, zerbitzuan hasi baino lehen, aurreko artikuluan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren aldizkako garbiketak egingo zaizkie; era berean, ibilgailuak desinfektatu eta bertako intsektuak hilko dira, ezargarria den araudian xedatutako epeetan.

Halaber, egunero, ibilgailua zerbitzuan jarri baino lehen, garraio-enpresa eragileak egiaztatuko du inklinatzeko sistemek, arrapalek eta plataforma jasotzaileek, txirrinek eta sakagailuek zein ikusizko eta soinu bidezko ohar-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela.

Orobat, ibilgailuak zerbitzuan hasi baino lehen, egiaztatu egingo da ateak ireki eta ixteko sistemak, tiket-makinek eta balidatzaileek zein kokapen- eta komunikazio-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela, eta segurtasun-osagai guztiak eskuragarri daudela eta erabiltzeko egoeran (mailuak, kristal-apurtzaileak, suitzalgailuak, derrigorrezko segurtasun-uhalak, etab.); baita ere, erregai- eta olio-maila, pneumatikoen egoera eta gainerakoak egokiak direla zerbitzua emateko.

Sartu-irteteko arrapala, plataforma jasotzaile, tiket-makina eta balidatzaile, komunikazio- eta klimatizazio-sistemen edo segurtasunean eraginik ez duen ibilgailuko beste edozein elementuren funtzionamenduan gertatzen den edozein irregulartasun berehala konpondu beharko da urgentziaz. Ibilgailua egoera horretan erabiltzeko baldintza izango da aurkitutako arazoa eta ibilgailuaren ordezkari beste bat jartzeko ezintasunaren arrazoiak zerbitzuaren titularra den administrazioari jakinaraztea, aurkitutako arazoa konpontzeko aurreikusten den epea adierazita.

34. artikulua. *Ibilgailuen segurtasuna*

Garraio publikoko zerbitzuaren ustiapenari atxikitako ibilgailuak, behar bezala homologatutako modeloak izango direnak, funtzionamendu-egoera onean egongo dira, beren ezaugarri teknikoak indarrean dagoen Ibilgailuen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera izango dira, eta ibilgailuen azterketa teknikoak (IAT) zein emakida-baldintzak bete eta egunean eduki beharko dituzte.

Inolaz ere ez da zerbitzurik egingo segurtasun-baldintzak betetzen ez dituzten ibilgailuak erabilia.

35. artikulua. *Ibilgailuak gidatzea*

Gidariek ibilgailuak gidatzeko orduan, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea zehatz-mehatz bete beharko dute, eta baita legea garatzen duten araubideak ere.

Gidariak ibilgailua emeki gidatu eta gelditu beharko du, eta geldialdiak zein abiadak astinaldi edo mugimendu zakarrik gabe egingo ditu, bidaiarien eta oinezkoen zein zirkulazioaren segurtasunari bereziki adi.

Oro har, geldialdiak egingo dira ibilgailua espaloiarekiko paraleloan jarrita, eta gainerako ibilgailuen nahiz oinezkoen trafikoari ahalik eta eragozpenik txikiena eginez, bide publikoan ezarritako trafikoaren antolamenduak, garraio publikoaren sustapena dela-eta, autobusei lehentasuna ematen dienean salbu.

36. artikulua. *Istripua gertatzea*

Istripua gertatzen bada, gidariak formalizatuko du partea, gertatutako egintzei buruz ahalik eta informaziorik zabalena emanez, eta bidaiariei adieraziko die zein den gorabehera izapidetzeko bide egokia.

Garraio-zerbitzua erabiltzean kaltetuta suertatzen diren erabiltzaileek gidariari eman beharko diote gertatutako egintzen berri, gidaria egintza horiez ohartu ez bada. Ez zerbitzuaren titularra den administrazioa, ez zerbitzua ematen duen enpresa eragilea ez dira erantzule izango erabiltzaileek gertatutakoaren parterik ematen ez badute gerta daitezkeen ondorio negatiboen aurrean, betiere ezinbesteko inguruabarrek gertatutakoaren berri adierazitako moduan ematea galarazten badute.

Halaber, erabiltzaileei gogoraraziko zaie erreferentziako garraio-tiketaren egiaztagiria gorde behar dutela.

37. artikulua. *Bidaiariei edota hirugarrenei kalte egitea, istripu baten ondorioz*

Zerbitzua ematen duen enpresak hitzartuak izango ditu indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrezkoak diren aseguruak, istripu baten ondorioz bidaiariei edo hirugarrenei sortzen zaizkien kalte pertsonal edo materialak egoki ordaintzeko.

38. artikulua. *Ibilgailuen edukiera*

Ibilgailuan sartzen den bidaiari-kopurua ez da zirkulazio-baimenean zehaztutakoa baino handiagoa izango. Ibilgailuaren edukiera beteta dagoenean, ez da irekiko igotzeko atea, eta gidariak gorabehera horren berri emango du bere trafiko-zentroan.

Ibilgailuaren barruan, erraz ikusten den lekuan, adierazita egongo dira eserleku-kopurua, zutik joan daitezkeen bidaiarien kopurua, eta, hala badagokio, aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonentzat eta mugikortasun murriztua duten gainerako bidaiarientzat erreserbatuta dauden plaza- eta espazio-kopurua.

Zutik doazen bidaiariak garraiatu ahal izango dira, bakar-bakarrik, hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, dituzten homologazio-ezaugarri teknikoaren arabera, eta berariazko arrazoiengatik baimenduta dauden zerbitzuetan.



Debekatuta dago bidaiariak garraiatzea horretarako erabiltzen ez diren eta egokituta ez dauden lekuetan.

39. artikulua. *Garraio-enpresa eragileetako langileen betebeharrak*

Garraio-enpresa eragileetako langileek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

1. Erregelamendu honetan eta derrigorrez bete beharrekoak diren gainerako arauetan xedatutakoa zehaztasun osoz betetzea.
2. Erabiltzaileekin une oro tratatu zuzena mantentzea, egiten ari diren zerbitzuari lotuta dauden laguntzeko eta informatzeko eskaerei erantzunez.
3. Enpresaren irudi korporatiboa mantentzea eta gutxieneko higieen-baldintzak betetzea, bereziki bidaiariekin aurrez aurreko harreman zuzena duten langileek.

Garraio-enpresa eragilearen betekizuna izango da adierazitako betebeharrak nahiz araudi orokorraren ondorioz bidaiariei dagozkien guztiak bertako langileei betearaztea.

40. artikulua. *Tiketa emateko betebeharra*

Garraio-enpresa eragileak behartuta daude zerbitzua eskudirutan ordaintzen duten erabiltzaileei egokia den paperezko tiketa ematera, baita doan bidaiatzen dutenei ere, plazak zenbatzearen eta derrigorrezko aseguruaren estaldura izatearren.

41. artikulua. *Tiketaren zenbatekoa itzultzea*

Tiketaren zenbatekoa itzultzea egokia izango da egoera hauetan:

1. Zerbitzua hasi baino lehen eten egiten bada, erregelamendu honetako 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Tiketa aldeztu aurretik erosi eta gero erabiltzailea leihatilan aurkeztu bada, ibilgailua irten baino gutxienez hamar minutu lehenago. Ez da itzulketarik egingo ibilgailua jadanik irten denean.

Ibilbidea tarifa-sistema bateratuko txartelen bidez ordaintzen bada, txartelaren zenbatekoa itzuliko da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak horretarako ezarritako prozeduren arabera.

42. artikulua. *Erreklamazio-liburua edota -orriak*

Garraio-enpresa eragileek erreklamazio-liburuak edota -orriak jarriko dituzte erabiltzaileen eskura, bidaiariei kexak eta erreklamazioak egin eta zerbitzuaren titularraren den administrazioak horien berri izan dezan.

Liburuaren ale bat edo erreklamazio-orrien kopuru nahikoa egongo dira erabiltzaileen eskura leku hauetan:

1. Tiketak emateko baimendutako instalazio finkoetan.
2. Tiketak emateko baimendutako instalazio finkorik ez dagoen lekuetan geldialdiak egiten dituzten zerbitzuetako ibilgailu guztietan.

Erreklamazioak egingo dira zerbitzua ohi bezala emateari eraginik ez sortzeko moduan, eta zerbitzua, ahal dela, ez da geldituko. Nolanahi ere, gidariek arreta emango diete adierazten zaizkien erreklamazioei, zerbitzua ohi bezala ematea ez aldatu, ez kaltetzeko moduan eta gainerako bidaiariei eragozpenik ez sortzeko moduan; hori gertatzen bada, erreklamazioa garraio-enpresa eragilean instalazio finkoetan aurkeztuko da, edo ezarritako baliabide elektronikoen bitartez.

Bidaiariak erreklamazioa egin eta garraio-enpresa eragileak erreklamazioa jaso eta gero, garraio-enpresak zerbitzuaren titularra den administrazioari helaraziko dio aipatutako erreklamazioa hogeita hamar egun balioduneko epean, egokitze jotzen dituen alegazioekin batera, eta erreklamazio-jartzailearen nahia onartzen duen ala ez adierazita.

Zerbitzuaren titularra den administrazioak egokiak diren neurriak hartuko ditu, garraio-eragile guztiek, pixkanaka, erreklamazioak interneten bidez egiteko aukera eskain dezaten.

IV. TITULUA. GARRAIO-TITULUA

I. KAPITULUA. Garraio-titulua

43. artikulua. *Garraio-titulua*

Garraio-titulua, behar bezala balidatua, hala badagokio, ibilbide jakin batean bidaiatzeko baimena ematen duen agiria da.

Baliozko garraio-tituluak dira aldian behingo tiketa, tarifa-sistema bateratuko txartelak, behar bezala balidatuak, doaneko tiket izenekoa, aparteko errekgua ordaindu dela egiaztatzen duen ordainagiria eta une oro zerbitzuaren titularra den administrazioak edo, egokia denean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak baimendu dituztenak.

Zerbitzuaren titularra den administrazioak, berez edo Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren bidez, garraio-tituluak sortu ahal izango ditu, eta baita horiek eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak ere.

Garraio-tituluak istripu-kasuetarako egokia den derrigorrezko aseguruaren estaldura darama berekin. Istripua gertatuz gero, aseguru-etxeak garraio-titulua eskatuko du, ibilbidearen zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzeko.

44. artikulua. *Baliozko garraio-titulua eramateko betebeharra*

Garraio-tituluak, behar bezala balidatuta, zerbitzua erabiltzea ahalbidetzen du.

Haurrek, sei urtetik aurrera, baliozko garraio-titulua izan beharko dute bidaiatzeko, behar bezala balidatua, helduen baldintza beretan, erregelamendu honetako 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Bidaiari guztiek baliozko garraio-titulu bat eduki beharko dute ibilgailuan sartzen diren unetik. Tituluaren ezaugarrien arabera, ibilgailuko sarrerako kontrolpean jarri eta gorde egin beharko dute, hondatu gabe, ibilbide osoan eta helmugako geltokian ibilgailutik irten arte, titulua erakusteko eska dezaketen garraio-enpresa eragileetako enplegatuen edo agente ikuskatzaileen eskura.

Tituluaren ezaugarriek ahalbidetzen badute bidaiari batek baino gehiagok erabiltzea, ibilgailutik irten den azken bidaiariak eduki beharko du beti titulua. Adierazitako tituluak eramailearen tituluaren izaera dute eta, hortaz, edozein pertsonak erabili ahal izango ditu.

Doan bidaiatu ahal izango dute, bakar-bakarrik, adingabeek, baimendutako pertsonak –izaera hori egiaztatzen duen agiria aldean dutela–, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileak, Mugi txartel pertsonalizatuarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean.

Derrigorrezkoa izango da aurreko paragrafoan adierazitako pertsonak doaneko tiket izenekoa eramatea, plazak zenbatzearen eta derrigorrezko aseguruaren estaldura izatearren.

45. artikulua. *Tiketa ibilgailuan bertan erostea*

Bidaiariak aldi baterako tiketaren zenbateko zehatza ordainduko du, ahal bada; nolanahi ere, gidaria behartuta dago egokiak diren atzerakoak ematera.

Ibilgailuek zirkulatu beharko dute eskudirua dutela –xehea edo billeteak– atzerakoak eman ahal izateko, erregelamendu honetako 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ibilgailuetan txeketegia eraman ahal izango da, eta horren bidez eskudirutan eman ezin diren atzerakoak itzuliko dira. Emandako txekeak diru bihurtu daitezke hurrengo egunetik aurrera, garraio-enpresa eragilearen bulegoetan edo zehaztu daitezkeen beste leku batzuetan.

46. artikulua. *Garraio-titulua egiaztatzea*

1. Bidaiariak garraio-titulua erosten duenean, egiaztatu beharko du erositako titulua egokia dela eta, hala badagokio, jasotako atzerakoak zuzenak direla.
2. Bidaia anitzeko tiketak erabiltzen badira edo tarifa-sistema bateratuko txartelaz ordaintzen bada, erabiltzaileak egiaztatu beharko du balidazioa edo kontrola behar bezala egin dela eta egiten ari den bidaiaren datuekin bat datorrela.

3. Tiketaren titulartasuna

Tiketa leihatilan edo interneten bidez saltzeko aukera ematen duten ibilbide luzeko zerbitzuetan, tarifa-sistema bateratuko txartelen bidez erositako tiketak izendunak izango dira, eta bertan adieraziko da erreferentziako txartelaren zenbakia. Ibilgailuan sartzeko, bidaiariak erositako tiketa erakutsiko dio gidariari txartelarekin batera, bietako datuak bat datozela egiaztatzeko.

Datu horiek bat ez badatoz, edo txartela egiaztatu gabe badago, tiketa era automatikoan ezeztatuko da.

47. artikulua. *Aparteko errekgua ordaintzeko betebeharra*

1. Sarreran kontrolatutako edo behar bezala balidatutako garraio-titulurik ez duten bidaiariak behartuta egongo dira tiketa erostera, 50 euroko tarifa-izaerako aparteko errekgua ordainduta egindako ibilbidearen truke edo egin nahi dutenaren truke.

Kopuru hori lau lanegunen barruan ordaindu ahal izango da, edo berehala. Berehala ordainduz gero, aparteko errekguaren zenbatekoa 20 eurora murriztuko da.

Zerbitzuaren titularra den administrazio publikoak eguneratu ahal izango du artikulua honetan arautzen den tarifa-izaerako aparteko errekguaren kopurua, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumoko prezioen indizearen arabera (KPI).

2. Garraio-enpresa eragileetako gidari eta ikuskatzaileak ahaldunduta daude aurreko paragrafoan aurreikusitako aparteko errekgua kobratzeko, erabiltzaileak baliozko edo behar bezala balidatutako garraio-titulurik ez duela egiaztatzen den unean bertan ordaindu nahi badu; hala bada, erabiltzaileari emango zaio egindako ordainketari dagokion ordainagiria.
3. Bidaiariak aparteko errekgua ordaindu nahi ez badu, eta ibilgailua martxan badago, egiten den lehenengo geldialdian jaitsi beharko da ibilgailutik.
4. Bidaiariak aparteko errekgua ordaindu ezin badu baliozko edo behar bezala balidatutako titulurik gabe zerbitzu publikoa erabiltzen ari zela egiaztatzeko unean bertan, eta bidaia jarraitu nahi badu, gidariak edo ikuskatzaileak salaketa-orria beteko du; bertan, bidaiariaren identitatea, eguna, ordua, linea eta gertatutakoa jasoko dira (titulurik gabe edo baliozko txartelik gabe bidaiatzen ari bada, eta azken kasu horretan txartelaren titularra identifikatuko da), artikulua honetako lehenengo paragrafoan aurreikusitako aparteko errekgua ordain dezan.

Xede horrekin, bidaiariak behartuta daude beren burua identifikatzera, gidari edo ikuskatzaileari NAN edo agiri baliokidea eta, hala badagokio, oker balidatuta dagoen garraio-txartela erakutsiz.

Bidaiariak ikuskatzeko eginkizunetan laguntzeko betebeharra borondatez betetzen ez badu, zerbitzua ematen duten enpresetako langileek poliziaren laguntza eskatu ahal izango dute.

5. Aparteko errekararen ordainketa egiten ez bada artikulu honetako lehenengo idatzi-zatiaren bigarren paragrafoan ezarritako epearen barruan, salaketa jarriko da, egokia den zehapen-prozedurari hasiera emateko.

II. KAPITULUA. Garraio-titulu pertsonalizatua

48. artikulua. *Garraio-titulu pertsonalizatuen baliotasuna eta erabilera*

Garraio-titulu, oro har, erabilera pertsonal eta besterenezinekoak izango dira.

Garraio-titulu pertsonalizatua bere izenean erosi duen pertsonak garraio-titulua zaindu eta kontserbatzeko erantzukizuna izango du, garraio-titulua arduraz erabiliko du, eta galtzen badu edo kentzen badiote, ahalik eta azkarren eman beharko du horren berri Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Erabiltzailearen Arretagunean.

Garraio-titulu pertsonalizatua galdu dela jakinarazten ez den bitartean, bere izenean erosi duen pertsona izango da txartelaren iruzurrezko erabileraren erantzule.

Garraio-titulu pertsonalizatuaren titularra 14 urtetik beherako adintxikikoa bada, gurasoek edo tutoreek gorde eta zaindu beharko dute.

49. artikulua. *Garraio-titulu pertsonalizatuen erabilera okerra edo iruzurrezkoa*

Garraio-tituluak aurkeztu egin beharko dira, garraio-titulu pertsonalizatuaren eramaileen identitatea egiaztatzeko agiriren batekin batera, behar bezala identifikatuta dauden ikuskatzaileek edota garraio-enpresa eragileko langileek hala eskatzen dutenean.

Egoera irregularra gertatuko da garraio-titulu pertsonala eta besterenezina era okerrean erabiltzen denean.

Garraio-titulu oker erabilita egongo da behean jasotako egoeretan, gerora beste egoera batzuk gehitu badaitezke ere:

- a. Txartel pertsonalizatuaren gainean gezurrezko informazioa inprimatuta dagoenean.
- b. Txartel pertsonalizatua jasota dagoen pertsonaren identitatea ez duen beste pertsona batek erabiltzen duenean.
- c. Txartel pertsonalizatu faltsutua denean, edo txartelean jasotako edo inprimatutako informazioa aldatu denean.
- d. Jaisteko orduan ez balidatzea, beste zona bateko geldialdian jadanik egin delako, egindako ibilbidearen truke tarifa txikiagoa ordaintzeko helburuaz.
- e. Tarifa-sistema bateratuaren beherapen handiagoak lortzeko helburu bakarra duten ekintzak egiten direnean.

- f. Txartel pertsonalizatua erabili duen pertsonak uko egitea bere identitatea egiaztatzeko behar den agiria erakusteari, ikuskapen-zerbitzuek edo garraio-enpresa eragileko langileek hala eskatzen dutenean.

Txartel pertsonalizatuaren gainean gezurrezko informazioa inprimatuta dagoenean, txartela erosi duen pertsonak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatu beharko dio akatsa konpontzeko.

Ikuskatzaileek eta garraio-enpresa eragileetako langileek txartelak kenduko dituzte oker edo iruzurrez erabiltzen direnean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko indarrean dauden Baldintza Orokorren arabera.

50. artikulua. *Zigorrak garraio-titulu pertsonalizatuak oker erabiltzeagatik*

Erabilitako garraio-titulua tarifa-sistema bateratuko txartela denean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzza izango da txartelak oker edo iruzurrez erabiltzeagatik zigorrak ezartzen dituen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko indarrean dauden Baldintza Orokorren arabera.

V. TITULUA. ZEHATZEKO ARAUBIDEA

51. artikulua. *Zehatzeko araubidea*

Erabiltzaileek nahiz garraio-zerbitzua ematen duten enpresa eragileek dituzten betebeharrak ez betetzea arau-hauste administratiboa izango da, eta horren ondorioz, Autonomian indarrean dagoen legerian eta, bereziki, lurreko garraioak eta kontsumitzaile zein erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak arautzen dituen legerian aurreikusitako zehapenak ezarriko dira.

Erregelamendu honetan jasota dauden eta adierazitako legerian berariaz jasota ez dauden betebeharrak ez betetzea arau-hauste administratiboa izango da, eta erregelamendu honetan adierazitakoaren arabera zigortuko da.

52. artikulua. *Eskumena*

Erregelamendu honetan ezarritako arau-haustek egiteagatik zehapen-espedienteak hasi, izapidetu eta ebazteko eskumena izango dute legez edo araubidez eskumen hori esleitua duten organoek.

Erregelamendu honetan tipifikatutako arau-haustek gertatuz gero, eskumen hori egokituko zaio arau-haustea eragin duten egintzak gertatu diren zerbitzu publikoaren titularra den administrazio publikoari.

53. artikulua. *Erregelamendu hau ez betetzearen ondoriozko arau-hausteen definizioa eta sailkapena*

Arau-hauste administratiboak subjektu erantzuleek burututako egintzak edo ez-betetzeak dira, erregelamendu honen arabera tipifikatu eta zigortuta daudenak.

Arau-hausteak arin, larri edo oso larri moduan sailkatuta daude, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 140.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

1. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

- a. Ibilgailuan baimendutako gehieneko okupaziora iritsi denean, bidaiariei sartzen uzteko debekua ez betetzea.
- b. Ibilgailuak dituen sartu-irteteko sistemak ez erabiltzea, mugikortasun murriztuko pertsona bat bertan sartu edo irten behar denean.
- c. Zerbitzuak irauten duen bitartean, erregelamendu honetako 6. artikuluan aurreikutsita dauden derrigorrezko irisgarritasun-sistemak aktibatuta ez edukitzea.

2. Hauek dira arau-hauste larriak:

- a. Mugikortasun murriztuko pertsona bati erreserbatutako eserlekua ez uztea, mugikortasun murriztua ez duen beste pertsona bati hala eskatzen dionean. Era berean, arau-haustea izango da, erregelamendu honetako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, erreserbatutako eserleku bat okupatzen ari den erabiltzailea enpresa eragileak eserleku hori uztera ez behartzea, eserleku hori erabili behar duen mugikortasun murriztuko pertsona bat dagoenean.
- b. Bigarren aulki gurpilduna kokatzeko espazioa erreserbatuta ez edukitzea, mugikortasun murriztuko bidaiariren batek erregelamendu honetako 11. artikuluan aurreikusitako erreserba egin badu.
- c. Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetan etxeko animaliak bertan sartzeari buruzko 21. artikuluan zehaztutako baldintzetakoren bat ez betetzea.
- d. Erregelamendu honetako 25.e artikuluan adierazitako debekua haustea.
- e. Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetako 25.g., 25.l. eta 25.p. artikuluetan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.
- f. Erregelamendu honetako 25.k artikuluan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.
- g. Erregelamendu honetako 32. artikuluan ibilgailuaren barruko giroari buruz zehaztutako baldintzak ez betetzea.
- h. Tikitaren zenbatekoa itzultzeko betebeharra ez betetzea, itzulketa hori egokia denean erregelamendu honetako 41. artikuluari jarraituz.

3. Hauek dira arau-hauste arinak:

- a. Fardelak daramatzaten bidaiariei sartzen uztea, erregelamendu honetako 19. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez denean.
- b. Etxeko animaliak daramatzaten bidaiariei sartzen uztea, erregelamendu honetako 21. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez denean.
- c. Erregelamendu honetako 24.j. artikuluan ezarritako higie- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituzten bidaiariei ibilgailuan sartzen uztea.
- d. Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetako 25.h. eta 25.i., 25.j. eta 25.m. artikuluetan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste horiek egitea ez galaraztea.
- e. Erregelamendu honetako 25.f. artikuluan zehaztutako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.
- f. Aparteko errekgua ez ordaintzea erregelamendu honetako 47. artikuluan ezarritako epearen barruan.
- g. Eta oro har, erregelamendu honetatik espresuki eratorritako obligazio eta debeku guztien ez-betetzeak, arau-hauste larria edo oso larria ez badira.

54. artikulua. *Erantzukizuna Erregelamendu hau ez betetzearen ondoriozko arau-haustek egiteagatik*

1. Garraio-enpresa eragileek edota bertako langileek arauak hausten dituztenean, erantzukizuna emakidaren edo baimenaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoarena izango da, alde batera utzita erantzukizun hori sortu duten ekintzak edo ez-betetzeak enpresek edo enpresako langileek burutu dituzten; hala ere, beren ustez egokiak diren egintzak ondoriozta daitezke arauak berez hautsi dituzten pertsonen aurka.

2. Bidaiariek arauak hausten dituztenean, erantzukizuna bidaiariena izango da.

18 urtetik beherako adingabeak egindako egintzen erantzukizuna aitortzen denean, erantzule solidarioak izango dira, adingabearekin batera, gurasoak, tutoreak, hartzailak eta legezko edo izatezko zaintzailak, hurrenkera horretan, horiei guztiei ezarritako betekizuna betetzearen, hau da, 18 urtetik beherakoei egozten zaien administrazio-zehapena prebenitzeko betebeharra.

Erantzukizun solidarioa ezarri den isunaren ondoriozko diruzkoa izango da hertsiki, eta, bidezkoa bada, sortutako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra.

3. Nolanahi ere, arau-hauste independentetzat hartuko dira ibilaldi desberdinetan egiten direnak, nahiz eta arau berak edo antzekoak hautsi.

Hala ere, araua hautsi duten egintzek garraio-enpresa eragilearen bulegoetan egiten den jarduera administratiboarekin zerikusi zuzena dutenean, edo erabilitako ibilgailuarekin, eta ibilgailuaren abiagunea zen enpresa-egoitzara itzuli arte zuzendu ezin direla frogatzen denean, egintza horiek arau-hauste bakartzat hartuko dira, nahiz eta bien bitartean egindako ibilaldietan eginak izan.

55. artikulua. *Erregelamendu hau betetzeko baldintzak ikuskatzea eta egiaztatzea*

1. Garraio-enpresa eragileek ikuskatu ahal izango dute bidaiariak nola betetzen dituzten Erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak; hala ere, zerbitzuaren titularra den administrazio publikoko ikuskatzaileek ere ikuskapena egin ahal izango dute.

2. Aipatutako enpresa eragileetako langileak baimenduta daude adierazitako betebeharrak nola betetzen diren zaindu eta ikuskatzeko. Hautemandako arau-hausteen berri eman beharko dute egokia den salaketaren bidez; eta, egokia bada, zehapen-espedientea irekiko da, hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Adierazitako ikuskatzaileek eginkizun horiek betetzen dituztenean, beren izaera egiaztatzen duen agiria aldean izango dute, eta erakutsi egin beharko dute, bidaiariren batek hala eskatzen badie.

3. Ikuskatze-lanak egiten dituzten garraio-enpresa eragileetako langileek ez dute agintaritzza-izaerarik; bai, ordea, zerbitzuaren titularra den administrazio publikoko ikuskatzaileek.

56. artikulua. *Zehatzeko espedienteari hasiera ematea*

1. Erregelamendu honetan arau-hauste moduan tipifikatutako egintzak edo urraketak egiteagatik zehapena jartzeko ahalmena ofizioz hasiko da, eskumena duen organoak hala erabakita, bai bere ekimenez, bai beste organo batzuek eskaera arrazoitua egitearen ondorioz, bai salaketaren bidez.

2. Beste organo batzuen eskaera arrazoituak barnean izango ditu arau-haustea izan daitezkeen egintzen kontaketa, horien tipifikazioa, data, egintzak gertatu ziren egunak edo denboraldi jarraitua, eta, ahal dela, ustezko erantzuleen identifikazioa.

Eskaera arrazoitua aurkeztea ez da loteslea izango zehatzeko ahalmena duen organoarentzat; nolana ere, eskaera aurkeztu duen organoari jakinarazi beharko dio prozedura ireki den ala ez.

3. Salaketa zehapen-espedienteari hasiera emateko modu bat izan daiteke.

Salaketak, berak bakarrik, ez du salatzailea bihurtzen zehapeneko prozeduran interesa duen alderdi. Salatzaileak prozeduran izango duen parte-hartze bakarra

izango da prozedura ireki den ala ez jakiteko eta, egokia bada, amaiera emateko ebazpenaren berri izateko eskubidea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzea arautzen duen araudian aurreikusitakoaren arabera legitimaziorik ez badu eta zehapen-prozedurari hasiera ematea eskatzen ez badu.

4. Zehapen-prozedurak, halaber, alde interesdunak hala eskatuta hasi ahal izango dira, banakako edo taldeko legezko eskubide edo interesen titularra dela egiaztatzen badu.

Hipotesi horretan, ezargarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzeari buruzko araudia.

57. artikulua. *Zehatzeko ahalmena gauzatzea*

1. Aurreko artikuluan araututako moduetakoren batean salatzen diren arau-hausteen ondoriozko zehapen-espedienteak izapidetuko dira ustez urraketa diren egintza edo ez-egiteak burutu diren unean ezargarria den Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzeari buruzko araudian xedatutakoaren arabera.

2. Prozedura hasten denetik sei hilabeteko epean ebazpena jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da, Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen legerian ezarritako moduan eta ondorioekin.

Aurreko atalean adierazitako araudian ezartzen diren kasuetan ez ezik, prozedura interesdunei egoztekoak diren arrazoiengatik geldirik dagoen bitartean ere eten egingo da sei hilabeteko epe hori.

58. artikulua. *Erregelamendu honetan tipifikatutako arau-hausteei dagozkien zehapenak*

1.- Arau-hauste arinak ohartarazpenaz edo 450 euro arteko isunaz zigortuko dira.

Arau-hauslea berrerorlea bada, ez da bidezkoa izango ohartaraztea, eta isuna jarrita zigortuko da.

2.- Arau-hauste larriak 451tik 1.000 euro arteko isunez zigortuko dira.

3.- Arau-hauste oso larriak 1.001etik 2.000 euro arteko isunez zigortuko dira.

4. Zehapenak alderdi hauek kontuan hartuta mailakatuko dira: egintza arau-hausleak gizartean duen oihartzuna, nahitasuna, babestutako ondasun juridikoan arau-haustea eragindako kalteen izaera, legez kanpo lortutako onuraren norainokoa eta jokabide arau-hauslearen errepikapena edo ohikotasuna.

Berrerotzea izango da araua hautsi duen pertsonak urtebeteko epean izaera bereko urraketa bat baino gehiago egin duenean eta hala aitortu denean ebazpen irmoaren bitartez.

5. Zehatzeko ahalmena duen administrazio publikoak jarriko ditu isunak, bai borondatezko epean, bai premiamendu bidez, ezargarriak diren arauen arabera.

6. Erregelamendu honetan jasotako arau-haustea, era berean beste legezko xedapen batzuetan edo arloko araudian jasota daudenak, berariazko legeriaren arabera zigortuko dira.

7. Egokiak diren zehapenak ezartzea eta hirugarrenei sortutako kalte-galerak ordaintzeko egon daitekeen betebeharra ez dira elkarri lotuta egongo.

59. artikulua. *Erregelamendu honetan jasotako arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa*

1. Arau-hauste oso larriek hiru urte igarotakoan preskribatuko dute, larriek bi urte igarotakoan, eta arinek sei hilabete igarotakoan.
2. Arau-hauste oso larriak egiteagatik ezarritako zigorrak hiru urte igarotakoan preskribatuko dute, arau-hauste larriak egiteagatik ezarritakoek bi urte igarotakoan, eta arau-hauste arinak egiteagatik ezarritakoek urtebete
3. Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatuko da arau-haustea egin zen egunaren biharamunetik hasita. Arau-haustea jarraitutasunez egiten denean, epe hori zenbatuko da arau-haustea izan zen azken egintza egin zen egunetik hasita, edo legez kontrako egoera ezabatu zenetik hasita.

Arau-haustearen preskripzioa eten egingo da prozedura administratiboa hasten denean, ustezko erantzuleak horren berri izanda. Preskripzioa berriro hasiko da, epe osorako, ustezko erantzuleari egoztekoa ez den kausaz prozedura gelditzen denetik hilabetea bete denean, edo prozedura erantzukizun-aitortzarik gabe amaitzen den egunaren hurrengoan.

Prozeduraren xedea lortzera bideratzen den eta arrazoizko eran xede horrekiko proportzionala den edozein jarduketa burutzeak galarazi egingo du prozedura gelditzat ematea, nahiz eta jarduketa hori berariaz aurreikusita ez egon prozedurari buruzko arauan, betiere jarduketa hori organo eskudunaren erabakia bada eta behar bezala dokumentatuta badago.

4. Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatuko da zehapena ezartzeko ebazpena bide administratiboan irmo egiten den egunaren biharamunetik hasita.

Zehapenaren preskripzioa eten egingo da betearazteko prozedura hasten denean, zigortutakoak horren berri izanda. Preskripzioa berriro hasiko da, epe osorako, zigortutakoari egoztekoa ez den kausaz prozedura gelditzen denetik hilabetea bete denean.

Betearazteko prozeduraren xedea lortzera bideratzen den eta arrazoizko eran xede horrekiko proportzionala den edozein jarduketa burutzeak galarazi egingo du prozedura gelditzat ematea, nahiz eta jarduketa hori berariaz aurreikusita ez egon prozedurari buruzko arauan, betiere jarduketa hori organo eskudunaren erabakia bada eta behar bezala dokumentatuta badago.

Zehapenaren preskripzioa geldiaraziko du, halaber, epaileak betetzeko behar hori eteteak, eta epe osoa berriro zenbatzen hasiko da epailearen etendura kentzen den egunaren biharamunetik hasita.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. *Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren lankidetzaz*

Garraioak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko, garraio-zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazio publikoak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzaz sustatuko du, zerbitzu horietarako erabiltzen diren ibilgailuek askatasunez zirkula dezaten, eta garraio publikoko geltokiak, erreserbatutako erreiak eta garraio publikorako erabiltzen diren gainerako bideak libre mantentzea daitezen.

Era berean, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak garraio-zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazio publikoari eta enpresa eragileei lagunduko diete, bidaiariren batek ezagarriak diren betebeharrak eta debekuak bete ez dituenetan eta bere jokaera zuzentzen ez duenean.

Bigarrena. *Erregelamendu honi segimendua egiteko jarraipen-batzordea*

1. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak adostuko du erregelamendu honen jarraipena egiteko batzorde bat sortzea, erregelamendua indarrean jartzen denetik hilabeteko epean.
2. Aipatutako jarraipen-batzordea honela osatuta egongo da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari bat eta kontsortzioko kide diren tokiko erakundeen bi ordezkari, erregelamendu hau ezagarri zaien bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra ematen duten enpresa eragileen lau ordezkari, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren bi ordezkari, eta irisgarritasuna edo mugikortasuna mugatua duten pertsonen bi ordezkari.

Batzar Orokorrak, aipatutako jarraipen-batzordea sortzea adosten duenean, Batzordearen barruan garraio-enpresa eragileak eta irisgarritasun edo mugikortasun mugatua duten bidaiariak nahiz bidaiarien errepide bidezko



erabilera orokorreko

garraio-zerbitzu publiko erregularren titularrak diren administrazio publikoak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak bera ordezkatzeko dituzten pertsonak izendatzeko ditu.

3. Jarraipen Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira, besteak beste: erregelamendu honen aplikazioa aztertu eta ebaluatzea, eta, aldi berean behingo ebaluazioari jarraituz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari bertan aldaketak egiteko proposamenak aurkeztea.

4. Jarraipen Batzordeak bere barne-araudia onartzeko du, bidezkoa bada, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak arautzen duten estatutuen arabera.

Xedapen Iragankorra

Bidaia-errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten garraio-enpresa eragileek urtebeteko epea izango dute, erregelamendu hau argitaratzen denetik hasita, bertan irisgarritasunari buruz ezarri diren ezaugarri teknikoetara egokitzeko.

Modu iragankorrean, ibilgailuek soinu bidezko ohar-sistemarik ez duten bitartean, gidariak jakinaraziko diete ibilgailuaren barruan dauden eta ikusmen-urritasuna duten pertsonen aldean aurretik adierazi dioten geltokira iritsi direla.

Xedapen Indargabetzailea

Indargabetuta daude erregelamendu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen orokorrak.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Erregelamendu hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik 15 egun baliodun igarotzen direnean.

Bigarrena. Bidaia-errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten garraio-enpresa eragileek behar bezala zabalduko dute erregelamendu hau bertako langileen artean.

Donostia, 2026ko martxoak 16an

**«B» DOKUMENTUA.
GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAUAK**

AURKIBIDE OROKORRA

ATARIKO TITULUA

**IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK, HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA
APLIKATZEARI BURUZKOAK.**

LEHENENGO TITULUA

**ARRAGUAKO ARR – 1A EREMUAN APLIKATU BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAU BIDE
OROKORRA.**

1.1. KAPITULUA.

KALIFIKAZIO XEHATUKO ARAUBIDEA.

**1.2. KAPITULUA. HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA GAUZATZEKO
ARAU BIDE JURIDIKOA.**

BIGARREN TITULUA

**EREMUAN APLIKATZEKOAK DIREN GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAU OROKORRAK,
ERAIKUNTZARI ETA ERABILERARI BURUZKOAK.**

**2.1 KAPITULUA. BIZITEGI-ERABILERAKO ETA EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO LURZATIEI
APLIKATU BEHARREKO GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAU OROKORRAK.**

**2.2 KAPITULUA. BIZITEGI-ERABILERAKO ERAIKUNTZETAKO LOKALEN BIZIGARRITASUN-
BALDINTZA OROKORRAK. ESPAZIOEN DIMENTSIOA, OINARRIZKO
ESKAKIZUNAK ETA OINARRIZKO INSTALAZIOEN ZUZKIDURA.**

**2.3 KAPITULUA. BIZITEGI-ERABILERAKO ERAIKINETAKO INSTALAZIOEN ERAIKUNTZA-
KALITATEKO ETA FUNTZIONALITASUNEKO BALDINTZAK.**

2.4 KAPITULUA. BIZITEGI-ERAIKINEN ETA HORIEN ELEMENTUEN SEGURTASUN-BALDINTZAK.

**2.5 KAPITULUA. SESTRA GAINEAN ERAIKITA EZ DAUDEN ERABILERA PRIBATUKO
ESPAZIOAK TRATATZEKO BALDINTZAK.**

**2.6 KAPITULUA. INGURUMEN-BALDINTZA ZUZENTZAILEAK, KONPENTSATZAILEAK EDO
BABESLEAK.**

2.7 KAPITULUA.

HEGAZKINTZA ZIBILAREN BALDINTZAK.

HIRUGARREN TITULUA

**GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK, ARRAGUA ARR-1A HJE EREMUKO
LURZATIEI APLIKATU BEHARREKOAK, ERAIKUNTZARI ETA ERABILERARI DAGOKIENEZ .**

AURKIBIDE XEHATUA

ATARIKO TITULUA

IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK, HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA APLIKATZEARI BURUZKOAK.

- 0.1. artikulua. Esku-hartze eremua.
- 0.2. artikulua. Indarrean jartzea eta indarraldiaren baldintzak.
- 0.3. artikulua. Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren arau-esparrua.
- 0.4. artikulua. Plana osatzen duten dokumentuak eta horien helmen arautzailea.
- 0.5. artikulua. Plangintzako aldaketak.

LEHENENGO TITULUA

ARRAGUAKO ARR – 1A EREMUAN APLIKATU BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAU BIDE OROKORRA.

1.1 KAPITULUA. KALIFIKAZIO XEHATUKO ARAUBIDEA.

1.1.1 artikulua. ARR-1A HJE eremuaren «kalifikazio xehatuko» araubidea formulatzea.

1.2 KAPITULUA. HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA.

- 1.2.1 artikulua. Araubide orokorra.
- 1.2.2 artikulua. «Hirigintzako eraikigarritasuna» esleitzeko baldintzak.
- 1.2.3 artikulua. Gauzatze araubidearen zehaztapena.
- 1.2.4 artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak, instalazioak eta erabilerak.
- 1.2.5 artikulua. Urbanizazioa materializatzeko eta dagozkion lanak gauzatze beharrezkoak diren obra-proiektuak formulatzeko araubidea.
- 1.2.6 artikulua. Urbanizazio-kargen finantzazio-baldintzak.
- 1.2.7 artikulua. Urbanizazioa mantendu eta kontserbatzeko baldintzak.
- 1.2.8 artikulua. Lagapenaren xede diren zuzkidura publikoetarako lursailen araubide juridikoa.
- 1.2.9 artikulua. Komunitatearen parte-hartzearen araubide juridikoa hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan.
- 1.2.10 artikulua. Partzelazio-baldintzak. Lurzati minimoa.
- 1.2.11 artikulua. Zortasunak lurzati pribatueta.
- 1.2.12 artikulua. Eraikitze eskumena erabiltzea.
- 1.2.13 artikulua. Lehen erabilerako lizentziak emateko baldintzak.

BIGARREN TITULUA

EREMUAN APLIKATZEKOAK DIREN GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAU OROKORRAK, ERAIKUNTZARI ETA ERABILERARI BURUZKOAK.

2.1 KAPITULUA. BIZITEGI-ERABILERAKO ETA EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO LURZATIEI APLIKATU BEHARREKO GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAU OROKORRAK.

2.1.1 artikulua. Bizitegi-erabilera intentsiboko eta zuzkidura-ekipamenduko lurzatietan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa.

2.1.2 artikulua. Lerrokatzeak egoitza- eta zuzkidura-lurzatietan.

2.1.3 artikulua. Eraikinen profila eta garaiera egoitza- eta zuzkidura-lurzatietan.

2.1.4 artikulua. Eraikuntzaren ezaugarri formalak.

2.1.5 artikulua. Gorputz irtenen edo hegaleen trataera.

2.1.6 artikulua. Aparkalekuen erregulazioa lurzati pribatuan.

2.2 KAPITULUA. BIZITEGI-ERABILERAKO ERAIKUNTZETAKO LOKALEN BIZIGARRITASUN-BALDINTZA OROKORRAK. ESPAZIOEN DIMENTSIOA, OINARRIZKO ESKAKIZUNAK ETA OINARRIZKO INSTALAZIOEN ZUZKIDURA.

2.2.1 artikulua. Bizigarritasun-baldintza orokorrak.

2.2.2 artikulua. Etxebizitzetara zuzendutako lokalen bizigarritasun-baldintzak.

2.2.3 artikulua. Bizitegi-erabilereiz bestelakoetara (komertzialak, ekipamendua eta abar) bideratutako bizitegi-eraikuntzetako lokalen bizigarritasun-baldintzak.

2.2.4 artikulua. Garaje-erabilera zuzendutako lokalen bizigarritasun-baldintzak.

2.2.5 artikulua. Trastelekuei eska dakizkiekeen bizigarritasun-baldintzak.

2.3 KAPITULUA. BIZITEGI-ERABILERAKO ERAIKINETAKO INSTALAZIOEN ERAIKUNTZA-KALITATEKO ETA FUNTZIONALITASUNEKO BALDINTZAK.

2.3.1 artikulua. Zerbitzu-sareen eta gainazaleko tratamenduen ezaugarri nagusiak.

2.3.2 artikulua. Oinezkoentzako bideak, espaloiak eta espazioak zolatu eta sendotzea.

2.3.3 artikulua. Instalazioen baldintza orokorrak.

2.3.4 artikulua. Hirigintzako oztopoak ezabatzea.

2.3.5 artikulua. Argindar-sarearen eta kaleko argien ezaugarriak.

2.3.6 artikulua. Ur-hornidurako sarea eta zerbitzua arautzeko baldintzak.

2.3.7 artikulua. Saneamendu-instalazioen baldintza orokorrak.

2.3.8 artikulua. Aireztatze-tximinien baldintza orokorrak.

2.4 KAPITULUA. BIZITEGI-ERAIKINEN ETA HORIEN ELEMENTUEN SEGURTASUN-BALDINTZAK.

2.4.1 artikulua. Segurtasun-baldintza orokorrak.

2.4.2 artikulua. Baoak, leihoak eta terrazarako irteerak babestea.

2.4.3 artikulua. Estalkirako irteera.

2.5 KAPITULUA. SESTRA GAINEAN ERAIKITA EZ DAUDEN ERABILERA PRIBATUKO ESPAZIOAK TRATATZEKO BALDINTZAK.

2.5.1 artikulua. Sestra gaineen eraikita ez dauden erabilera pribatuko espazioen kontserbazioa eta apaindura.

2.6 KAPITULUA. INGURUMEN-BALDINTZA ZUZENTZAILEAK, KONPENTSATZAILEAK EDO BABESLEAK.

2.6.1 artikulua. Neurri orokorrak.

2.6.2 artikulua. Neurri bereziak.

2.6.3 artikulua. Kalitate akustikoa.

2.6.4 artikulua. Lurzoruaren kalitatea.

2.6.5 artikulua. Zuzenketa-neurriak obra-fasean.

2.6.6 artikulua. Mugikortasun-jasangarritasunaren gaineko eragina murriztera bideratutako neurriak.

2.6.7 artikulua. Zuzenketa-neurriak urbanizazio-proiektuetan.

2.6.8 artikulua. Zuzenketa-neurriak eraikuntza-proiektuetan.

2.7 KAPITULUA.

HEGAZKINTZA ZIBILAREN BALDINTZAK.

2.7.1 artikulua. Zortasun aeronautikoak.

2.8 KAPITULUA.

TRENBIDE-SEKTOREAREN BALDINTZAK.

2.8.1 artikulua. Afekzio-eremua.

HIRUGARREN TITULUA

GARAPENEN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK, ARRAGUA ARR-1A HJE EREMUKO LURZATIEI APLIKATU BEHARREKOAK, ERAIKUNTZARI ETA ERABILERARI DAGOKIENEZ ARR-1A ARRAGUA

BIZITEGI-ERABILERA INTENTSIBOKO LURZATIA

- * PRI/ARR-1A,1
- * PRI/ARR-1A,2
- * PRI/ARR-1A,3
- * PRI/ARR-1A,4

ZUZKIDURA-LURZATIA

- * PD1
- * PD2

ESPAZIO LIBREETARAKO LURZATIA. BERDEGUNEAK

- * ELZV1
- * ELZV2
- * ELZV3
- * ELZV4
- * ELZV5

IBAI-IBILGUETARAKO LURZATIA

- * CF1

BIDE-SARERAKO LURZATIA

- * RV1

BIDEGORRIRAKO LURZATIA

- * CB1

ESPAZIO LIBREETARAKO LURZATIA. OINEZKOENTZAKO GUNEAK

- * ELZP1
- * ELZP2

ATARIKO TITULUA

IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK, HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA APLIKATZEARI BURUZKOAK.

0.1. artikulua. Esku-hartze eremua.

Hiri Antolamenduko Plan Berezi honen jarduerarako eremua da Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Arragua izenez identifikatutako ARR-1A Hirigintza Jarduerarako Eremua.

0.2. artikulua. Indarrean jartzea eta indarraldiaren baldintzak.

Hiri Antolamenduko Plan Berezi hau indarrean sartuko da behin betiko onetsi ondoren eta indarrean dagoen legeriak argitaratzeko ezarritako baldintzak betetakoan, eta horrela jarraituko du indargabetzen ez den bitartean.

Oiartzungo Udalak berrikusi edo aldatu egingo ditu hiri-dinamikak hala eskatzen badu.

Planeko ezarpen bat edo batzuk baliogabetu, bertan behera utzi edo aldarazteak ez dio gainerakoan baliozkotasunari eragingo, betiere horietakoren bat aplikatzea ezinezkoa gertatzen ez bada behintzat, haiekin elkartuta egoteagatik edo haien mendeko izateagatik.

0.3. artikulua. Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren arau-esparrua.

Hiri Antolamenduko Plan Berezi hau Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legegintza-esparruan formulatu da, eta, hori, funtsean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak osatzen du.

Gainera, hirigintzako lege-esparru hauetara egokitu beharko da.

- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.
- 45/2025 Dekretua, otsailaren 18koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Errehabilitazioaren Legea onartzen duena.
- 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa.
- 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruari Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duena.
- AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokiaren kanona zehazteari buruzkoa.
- 11/2008 LEGEA, azaroaren 28koa, Hirigintza-jardueren sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen parte-hartzea aldatzekoa.
- 3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.
- 80/2022 DEKRETUA, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituenak.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aitzinean osorik babestekoak.

Eta aplikagarriak diren eta plan honetan eragina duten beste arau sektorial batzuk, hala nola ibai-ibilguz buruzkoak.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/60/EE Zuzentaraua, 2007ko urriaren 23koa, uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2000ko urriaren 23koa, erkidegoaren jardura-esparrua ezartzen duena ur-politikaren eremuari dagokionez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testuategina onartzen duena, ekainaren 22ko 11/2005 Legeak eta apirilaren 23ko 4/2007 Errege Lege Dekretuak aldatua.
- 10/2001 Legea, uztailaren 5koa, Ur Plangintza Nazionala onartzekoa, ekainaren 22ko 11/2005 Legeak partzialki aldatua.
- 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuak eta abenduaren 9ko 638/2016 Errege Dekretuak aldatua; eta 927/1988 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Uraren Administrazio Publikoaren eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua onartzen duena, uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuak aldatua.
- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoaren berrikuspena onartzen duena.
- 903/2010 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoa, 901/2020 Errege Dekretuan eta 902/2020 Errege Dekretuan garatua.
- 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Osoarena.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua.
- 38/2015 Legea, irailaren 29koa, Trenbide Sektorearena, eta Trenbide Sektorearen Erregelamendua, abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuak onartua.

Nolanahi ere, dokumentua Oiarzungo Plan Orokorren egiturazko jarraibideen arabera idatzi da.

0.4. artikulua. Plana osatzen duten dokumentuak eta horien helmen arautzailea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera, Plan Berezi honek honako agiri hauek ditu:

1. Plan Bereziaren dokumentuak:

-	«A» dokumentua.	Informazio- eta justifikazio-memoria
-	«B» dokumentua.	Garapeneko hirigintza-arauak
-	«C» dokumentua.	Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta
-	«D» dokumentua.	Gauzatzearen antolakuntza eta kudeaketako jarraibideak
-	«E» dokumentua.	Ekonomia- eta finantza-arloetako bideragarritasunaren azterlana
-	«F» dokumentua.	Jasangarritasun ekonomikoaren memoria
-	«G» dokumentua.	Hegazkintza zibileko zehaztapenak betetzea
-	«H» dokumentua.	PLANOAK

- Informazio-planoak.
- Antolamendu xehatuaren planoak.

Memoriak Plan Berezi honen azalpena, deskribapena eta justifikazioa biltzen ditu.

Garapeneko hirigintza-arauek aplikatu beharreko araudi partikularra biltzen dute.

Gauzatzea antolatzeke eta kudeatzeko jarraibideen azterlanak kudeaketan eragina izango duten jarraibideak biltzen ditu.

Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlanak eragiketaren bideragarritasunari buruzko funtsezko parametroak ezartzen ditu.

Jasangarritasun ekonomikoari buruzko memorian, gauzatutako antolamenduaren erabilerak eragindako hornidurak, zerbitzuak eta mantentze-lanak ordaintzeko udalak duen gaitasuna aztertzen da.

Planoek Plan Bereziari dagokion informazioa eta antolamendu grafikoa jasotzen dituzte.

2. Dokumentuen izaera arautzailea

Planaren eduki arautzailea artikuluko 1. epigrafean adierazitako agiri-multzoan definituta geratzen bada ere, «B. Plan Orokorren garapeneko hirigintza-arauek», «C. Gauzatzea antolatzeke eta kudeatzeko jarraibideen azterlana», «D. Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlana» eta «E. Planoak» dokumentuko antolamendu xehatuko planoak dira, berariaz, izaera arautzaile eta erregulazioko hori dutenak hirigintzako esku-hartzearen gainean, eta, horrenbestez, haiek ezarritakora egokitu beharko da nahitaez.

Adierazitakoa alde batera utzita, O-04 planoan jasotako antolamendu xehatua egokitu ahal izango da, eta behar bezala justifikatutako aldaketa txiki batzuk egin ahal izango dira, aldaketa horiek partaidetza-prozesuaren edo urbanizazio-proiektuaren ondorioen ondorio badira. Aldaketa horien bidez doikuntzak egin ahal izango dira bide-sarean, aparkalekuen mugetan, berdegune libreetan (estandarren betetze-maila justifikatuta) eta espaloietan eta oinezkoentzako eremuen mugetan. Era berean, gutxieneko estandarren arabera justifikatu beharko dira trafikoaren antolamendua, abiadura murrizteko kale-mozketak, aparkaleku-plazen birkokapena eta abar.

Azkenik, eremu barruko lurzatiei aplikagarri zaizkien eraikuntza- eta erabilera-arau urbanistiko partikularretan definitutako bizitegi-lurzati bakoitzerako aurreikusitako etxebizitza-kopurua handitu edo murriztu ahal izango da, eraikuntza-proiektuen banaketa- eta diseinu-beharren arabera.

Proiektu honen gainontzeko dokumentuek izaera bereziki adierazlea, erreferentziazkoa edo justifikatzailea dute; beraz, bere edukian aurrekoekin kontraesanik izanez gero, dokumentu haiek gailenduko dira.

3. Desadostasunak dokumentuen artean

Hirigintza-zehaztapen bati buruzko desadostasun zehatzik egonez gero eskala desberdinetan egindako arau-izaera duten planoen artean, eskala zabalagoan eginiko planoetan ezarritakoa nagusituko da, baldin eta desadostasuna azkenotako edukian agerikoa den akats material bati zor ez bazaio.

0.5. artikulua. Plangintzako aldaketak.

Indarraldiaren amaieran aurreikusitakoez gain, Udalak egoki iritziz gero, Plan Berezi hau aldatu ahal izango luke, plana onesteko erabilitako izapide berarekin.

LEHENENGO TITULUA

ARRAGUAKO ARR – 1A EREMUAN APLIKATU BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAU BIDE OROKORRA.

1.1 KAPITULUA. KALIFIKAZIO XEHATUKO ARAUBIDEA.

1.1.1 artikulua. ARR-1A HJE eremuaren «kalifikazio xehatuko» araubidea formulatzea.

1. ARR-1A hirigintza-eremua Hiri Antolamenduko Plan Berezi honetan finkatutako zonifikazioko ezarpenetatik etorritako kalifikazio xehatuaren araubidepean geratzen da.

Ezarpen horiek Oiartzungo Hirigintza Arau Orokorretan finkatutako sistematikari erantzuten diote.

2. Testuinguru horretan, Eremuan jarraian adieraziko diren erabilera xehatuko zona motak bereizten dira:

- Bizitegi-erabilera intentsiboko lurzatiak

«PRI/ARR-1A.1» eta «PRI/ARR-1A.4» bitarteko lurzatiak.

- Zuzkidura-lurzatiak

«PD1» eta «PD2» lurzatiak.

- Espazio libre eta berdeguneen lurzatiak

«ELZV1» eta «ELZV5» bitarteko lurzatiak.

- Ibai-ibilguak

«CF1» lurzatia.

- Bide-sarea

«RV1» lurzatia.

- Oinezkoentzako gunek

«ELZP1» eta «ELZP2» lurzatiak.

- Bidegorrien sarea

«CB1» lurzatia.

3. Erabilera xehatuko zona horiei dagokien erabilera- eta eraikuntza-araubidea aplikazio orokorreko hirigintza-arauetan finkatutakoa da, eta Oiartzungo Plan Orokorren 19. artikuluan bilduta dago.
4. Plan Berezia garatzeko idatzi behar den Urbanizazio Proiektuak zertxobait egokitu ahal izango ditu dokumentu honetan ezarritako antolamendu xehatuko mugaketak, betiere egokitzapen horiek justifikatuta badaude ikuspuntu tekniko edo funtzionamenduaren ikuspegitik.

1.2 KAPITULUA. HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA.

1.2.1 artikulua. Araubide orokorra.

Hiri Antolamenduko Plan Berezi hau garatu eta gauzatzeko araubide juridikoa –hirigintza eraikigarritasuna esleitzea, gauzatzea, eraikitze eskumena baliatzea, eta abar– hurrengo ezarpenetara egokituko da:

- Oiertzungo Plan Orokorrean ezarritako araubidea; bai, oro har, Hirigintza-arau orokorretan, eta bai, berariaz, ARRAGUA ARR-1 H.I.A. HJE eremuari dagokion arau partikularrean.
- Edukietan ezarritako araubide juridikoaren zehaztapenak.

1.2.2 artikulua. «Hirigintzako eraikigarritasuna» esleitzeko baldintzak.

1. Jarduketan integratuko eremuak:

ARR-1A hirigintza-jarduera eremuak, Arau Subsidiarioen arabera, finkatu gabeko hiri-lurzoruko esparru bat osatzen du, bizitoki-erabilera intentsiborako zona global bat duena.

Plan Berezi honek jarduketa integratuko eremu bat mugatzen du, egikaritze-unitate baten parekoa, baina eremu hori Urbanizazio Proiektuari dagokionez izapidetu eta ARR-1B ondoko sektorearekin batera gauzatu beharko da, bi eremuek duten hiri-jarraitutasuna dela eta.

Eraikigarritasunaren esleipenak, Plan Orokorrearekin bat, honako ezarpen hauei erantzuten die:

- * Lurzuaren guztizko azalera..... 12.702 m²
- * Jarduketa integratuko eremuaren guztizko azalera..... 12.702 m²
- * Eremuaren erabilera- eta eraikuntza-tipologia bereizgarriaBizitegi-erabilera intentsiboa

Azaldutako irizpide orokorreari jarraituz, Plan Bereziak zehatz-mehatz ordenatzen ditu lurzati eraikigarriak, eta Plan Orokorrean proposatutako eraikigarritasunak honela birbanatzen ditu, erabilere arabera:

BIZITEGI-LURZATIEI ESLEITUTAKO IRABAZIZKO ERAIKIGARRITASUNAK

LURZATIA	AZALERA m ²	ERAIKIGARRITASUNA NA (Sestra AZPIAN)	ERAIKIGARRITASUNA NA (Sestra GAINEAN)	ERAIKIGARRITASUNA NA (Sestra GAINEAN)	ERAIKIGARRITASUNA UNA GUZTIRA
		Garajeak	Hirugarren sektorekoa (*) (**)	Etxebizitzak (***)	
		Sabaiaren azalera m ² (s)	Sabaiaren azalera m ² (s)	Sabaiaren azalera m ² (s)	Sabaiaren azalera m ² (s)
PRI/ARR-1A.1	735 m ²	1.470 m ² (s)	257 m ² (s)	2.981 m ² (s)	4.708 m ² (s)
PRI/ARR-1A.2	903 m ²	1.806 m ² (s)	257 m ² (s)	2.981 m ² (s)	5.044 m ² (s)
PRI/ARR-1A.3	651 m ²	1.302 m ² (s)	248 m ² (s)	1.987 m ² (s)	3.537 m ² (s)
PRI/ARR-1A.4	483 m ²	966 m ² (s)	248 m ² (s)	1.987 m ² (s)	3.201 m ² (s)
GUZTIRA	2.772 m²	5.544 m² (s)	1.010 m² (s)	9.936 m² (s)	16.490 m² (s)

(*) Lurzati bakoitzean aurreikusitako hirugarren sektoreko erabilerearen sabaia kalkulatzeko, ataripeen okupazioaz gain, honako azalera hauek ere hartu dira kontuan: atariak, instalazio-gelak, garbiketa-gelak, haur-orgak eta bizikletak gordetzeko guneak, eta abar; 175 m² (s) izango dira 30 etxebizitzako atarietan, eta 120 m² (s) 18 etxebizitzako atarietan.

(**) Hirugarren sektoreko erabilerearen eraikigarritasuna handitu edo murriztu ahal izango da, lurzati bakoitzean atarietarako, erreserba-geletarako eta instalazioetarako geratzen den eraikigarritasunaren arabera.

(***) Plan Orokorreko ordenantzen 20. artikuluan adierazitakoaren arabera, banaketa horizontaleko eraikinetako sarrera-guneak eta instalazio-gelei dagokien sabai eraikia (hondakinak, telekomunikazioak, eraikinaren liburuak, garbiketa-gela, mugikortasun-gela) ez dira zenbatuko hirigintza-eraikigarritasunaren ondorioetarako.

1.2.3 artikulua. Gauzatzeko araubidearen zehaztapena.

Plan Berezi honetan zehaztutako jarduketa integratuko eremua gauzatzeko, dagokion Urbanizazio Proiektua izapidetu beharko da, ondoan dagoen ARR-1B sektorearekin batera.

Jarduketa integratuari dagokionez, aurreikusten da egikaritze-unitate bat mugatzea, eta haren garapena Ituntze jarduketa-sistemaren arabera gauzatuko da, gaur egun indarrean dagoen Kooperazio-sistemaren ordean.

Urbanizazio-proiektu hori Udalarai aurkeztuko zaio, izapidetu dezan, Plan Berezi hau eta AIU ARR-1B Plan Partziala behin betiko onartu eta sei hilabeteko epean, gehienez.

Era berean, laga egingo dira sistema orokorretara zuzendutako lursailak.

1.2.4 artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak, instalazioak eta erabilerak.

Plan Bereziaren eremuan ez da antolamenduz kanpoko elementurik deskribatzen.

1.2.5 artikulua. Urbanizazioa materializatzeko eta dagozkion lanak gauzatzeko beharrezkoak diren obra-proiektuak formulatzeko araubidea.

Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren esku-hartze eremuan aurreikusitako urbanizazio-obra urbanizazio-proiektu baten xede izango dira, ARR-1B lurzoru urbanizagarriko sektorearekin batera, mugatutako egikaritze-unitatei dagokienez. Urbanizazio-proiektu hori faseka gauzatu ahal izango da, eremuen bizitegi-garapenaren arabera.

Urbanizazio-proiektuak esparru publikoetako urbanizazioaren eraikuntza-zehaztapenen definizioa bilduko du.

Urbanizazio-kargen finantzaketa arloko eta sektoreko jabeek hartuko dute beren gain, dagozkien irabazizko aprobetxamenduen zuzeneko proportzioan.

1.2.6 artikulua. Urbanizazio-kargen finantzazio-baldintzak.

Urbanizazio kargak finantzatzearen eraginetarako, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatutakoa beteko da, eta, batez ere, haren 22., 25. eta 147. artikuluetan xedatutakoa.

Halaber, Oiarzungo Plan Orokorrean ezarritakoa beteko da eta, batez ere, ARRAGUA eremuari dagokion arau partikularrean ezarritakoa.

Horrekin bat etorriz, jarduketa integratua egikaritzean, Hiri Antolamenduko Plan Berezi honen «C. Egikaritzaren Antolamendu eta Kudeaketa Jarraibideen Azterlana» eta «D. Bideragarritasun Ekonomiko eta Finantzarioko Txostena» izeneko dokumentuetan finkatutakoa aintzat hartuko da.

1.2.7 artikulua. Urbanizazioa mantendu eta kontserbatzeko baldintzak.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoarekin bat, arloko jabeek urbanizazio-lanak mantendu eta zaintzeko kostuak ordaindu beharko dituzte obra egikaritzen diren bitartean eta Oiarzungo Udalak lagapen publikoko lurak behin betikoz eta modu ofizialean jasotzen dituen arte.

Jabeek urbanizatu, mantendu eta zaindu beharko dituzte, iraupen mugagabearekin, arloaren barruan sartutako lurak, jabetasun eta erabilera pribatukoak direnean.

1.2.8 artikulua. Lagapenaren xede diren zuzkidura publikoetarako lursailen araubide juridikoa.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatutakoarekin bat, eta, bereziki, 186. artikuluan ezarritakoarekin bat, Udalaren aldeko lagapenaren xede izango dira Hiri Antolamenduko Plan Berezi honek zuzkidura publikoetarako jarritako lursail eta ondasun guztiak, bai sistema orokorren sarekoak direnak, bai tokiko sistemen sarekoak direnak.

Lursail eta ondasun horien araubidea eta izaera juridikoa kasu bakoitzean, indarrean den legedian xedatutakoari jarraiki, Hiri Antolamenduko Plan Berezi honetan nahiz etorkizunean atxikitako destinitik hartuko direnak izango dira.

1.2.9 artikulua. Komunitatearen parte-hartzearen araubide juridikoa hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan.

Sustapenaren eta Udalaren arteko zehaztapen eta konpromiso guztiak edozein jarduketa egin aurretik sinatutako hitzarmen batean jaso beharko dira.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatutakoaren arabera, Oiarzungo Udalarik dagokion eremuko eraikigarritasunaren % 15i dagokion eraikuntza-eskubidea lurzati eraikigarrian esleitu ahal izango da, edo aipatutako hitzarmenean adostutakoak ordezkatu ahal izango du.

1.2.10 artikulua. Partzelazio-baldintzak. Lurzati minimoa.

Plan Bereziaren definitutako lurzatiak minimoak dira, eta, beraz, horien artean soilik gehitu ahal izango dira, antolamenduak ezarritako bolumenen antolamenduari eutsiz.

Gauzatze-unitateetan eraikuntza-proiektuak egiteari dagokionez, antolaturiko irabazizko lurzatiak erregistro-finka independenteetan zatitu ahal izango dira, eremua garatzeko finkak sortzeko, eta azpilurzati horiek lurzati minimoaren izaera lortuko dute, irabazizko izaera duten lurzatiaren hirigintza-fitxa bakoitza gauzatzeko baldintzen arabera.

1.2.11 artikulua. Zortasunak lurzati pribatuetan.

A priori eta espresuki ez da erabilera publikoko zortasunik ezarri lurzati pribatuen gainean, diseinatutako erabilera publikoko ataripeen erabileratik eratorritakoak eta sestra azpiko eraikuntza pribatuen gainean kokatutako espazio publikoenak izan ezik.

Kudeaketa proiektuaren izapidetzea aprobetxatuz, egoki deritzen erabilera publikoko zortasunak edo lurzatiaren artekoak zehazterik egongo da, bereziki, azpiegituren eta instalazioen pasabideei eta garajeetarako sarrerei dagokienez.

1.2.12 artikulua. Eraikitze eskumena erabiltzea.

Eremuan eraikitze jardura indarrean den hirigintza-legedian, Oiarzungo Plan Orokorrean eta udal-ordenantzetan ezarritako baldintzatzaile orokorretara egokituko da.

Antolatutako eraikuntzak Planaren denbora-horizontearen barruan gauzatzea aurreikusten da, gauzatzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterlanari dagokion dokumentuan jasotako zehaztapenen arabera.

Edozein kasutan, xehetasun-azterlanak idatzi ahal izango dira, Plan honen zehaztapenak mugatzeko edo egokitzeko helburuarekin, aipatutako tresna mota horren irismenaren xede diren gaitan.

Plan honetan lurzati bakoitzerako berariaz ezartzen diren garapeneko hirigintza-arauetan horri buruz definitzen diren zehaztapenen arabera egingo dira beharrezkoak diren eraikuntza-proiektuak eta horien arabera emango dira eta nahitaezko udal-lizentziak.

1.2.13 artikulua. Lehen erabilerako lizentziak emateko baldintzak.

Lehenengoz okupatzeko lizentziak emateko, lurzatiaren edo azpilurzatiaren fatxadaren pareko urbanizazioa amaitu egin beharko da eta lurzatiak edo azpilurzatiak behar diren zerbitzu guztiak izango ditu behar bezala funtzionatzeko.

Antolatutako lurzatietan altxatutako eraikinak lehenengoz okupatzeko lizentziak emateko baldintza izango da barne hartutako azpifaseko urbanizazio-obrak egikaritzea, mugatzen diren heinean.

BIGARREN TITULUA

EREMUAN APLIKATZEKOAK DIREN GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAU OROKORRAK, ERAIKUNTZARI ETA ERABILERARI BURUZKOAK.

2.1 KAPITULUA. BIZITEGI-ERABILERAKO ETA EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO LURZATIEI APLIKATU BEHARREKO GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAU OROKORRAK.

2.1.1 artikulua. Bizitegi-erabilera intentsiboko eta zuzkidura-ekipamenduko lurzatietan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa.

1. Araubide orokorra:

Lurzati hauetan garatuko diren eraikinek eraikuntza- eta erabilera-baldintza hauek bete beharko dituzte:

- * Lurzati horietarako indarrean dauden Plan Orokorrak, eta, bereziki, ARR 1A ARRAGUA HJE eremuari dagokion Arau Partikularrak definitutako eraikuntzako eta erabilera oinarrizko araubidea.
- * Aplikatzekoak diren udal-ordenantzak.

Hiri Antolamendurako Plan Berezi honetan bildutako araubidean ARR-1A eremuari buruz ezarritako baldintza orokorrak.

2. Bizitegi-erabilera lurtzatiei aplika dakizkiekeen baldintza partikularrak

Hiri Antolamenduko Plan Berezi honek, kasuan kasuko «Garapeneko Hirigintza Arau Partikularretan», aurreikusi egiten ditu lurzati bakoitzerako eraikigarritasunaren esleipen bat eta eraikinen formari buruzko erregulazio jakinak.

Eraikinen formaren eta esleitutako eraikigarritasunaren arteko egokitzapena eraikina lerrokatzei —lerrokatzeen okupazio maximoa— eta hartutako bolumen formari egokitzatuz ebatziko da.

2.1.2 artikulua. Lerrokatzeak egoitza- eta zuzkidura-lurtzatiean.

Eraikuntzako lerrokatzeak kasuan kasuko Garapeneko Hirigintza Arau Partikularrean eta Plan Berezi honetako lerrokatze-planoetan ezarritakoari egokituko zaizkio, baina O-07 planoan adierazitako lerrokatzeak soilik izango dira nahitaezkoak.

Sestra azpiko lerrokatze maximoak bat datoz lurzati eraikigarri bakoitzaren mugekin.

Ez da nahitaezko lerrokadurarik ezarri zuzkidura-lurtzatiei; beraz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreikusitako 300 m² (s) horiek gauzatu ahal izango dira xede hori duen lurzatian.

2.1.3 artikulua. Eraikinen profila eta garaiera egoitza- eta zuzkidura-lurtzatiean.

Oiartzungo Plan Orokorreko hirigintza-arauetan ezarritako izaera orokorreko erregulazioak aintzat hartuta, lurzati mota bakoitzerako Plan Berezi honetako Garapeneko Hirigintza Arau Partikularrean definitutako baldintzak aplikatuko dira.

Azken horien artean sartzen da erreferentzia maila. Hortik abiatuta, kudeaketa-proiektutik eratorritako erregistroko lurzati ezberdinei aplikatu beharreko eraikuntzako garaiera neurtuko da.

Plan honetako O-06 planoak eraikin bakoitzaren altuerak eta profilak zehazten ditu, baita hirigintza-fitxa partikularrak ere.

Bizigarritasunari buruzko ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritako baldintzak aplikatuta, antolatutako profiletan aurreikusitako eraikigarritasuna beteko ez balitz, lurzati bakoitzean atiko-solairu gehigarri bat eraiki ahal izango da; solairu horrek 2 metroko atzeraemangunea izango du lerrokaduraren mugarekiko.

2.1.4 artikulua. Eraikuntzaren ezaugarri formalak.

Eraikuntzek, bai materialak erabiltzean, bai haien osaera formalean, inguruko arkitektura eta paisaia izan beharko dituzte kontuan.

Udalak, hala erabakitzen badu, konposizio-irizpide bat edo materialen erregulartasun bat definitu ahal izango du, eraikuntza-multzoak homogeneoak izan daitezten. Kasu horretan, eraikuntza-lizentzia ematea baldintzatu ahal izango da irizpide hori bete dadin.

Etxebizitzetara zerbitzua ematen dieten instalazio eta azpiegitura guztiak kanpoko hartunetik edozein hornidura-punturaino lurpetik edo eraikinaren barrualdetik igaro beharko dira.

2.1.5 artikulua. Gorputz irtenen edo hegaleen trataera.

Plan Berezi honetan antolatutako eraikinetan, fatxadaren lerrokaduretatik irteten diren elementuak eraiki ahal izango dira, bide publikoaren gainetik nahiz lurzati eraikiezinaren gainerako azaleraren gainetik.

Hegalak itxiak (begiratokiak, galeriak eta antzekoak) edo irekiak (balkoiak, terrazak eta antzekoak) izan daitezke. Ekainaren 28ko 80/2022 Bizigarritasun Dekretu berriaren ondoriozko kasuistika kontuan hartuta, haien kokapena librea izango da fatxada bakoitzean, mota bakoitzerako okupazio-mugarik gabe. Atzeraemanguneak ere modu librean ezarri ahal izango dira.

Fatxadaren lerroarekiko hegal irekien eta itxien irtengunea ez da 1,50 metrotik gorakoa izango.

Hegaleko edozein punturen eta ondoko finkaren arteko gutxieneko distantzia 1,00 metrokoa izango da.

2.1.6 artikulua. Aparkalekuen erregulazioa lurzati pribatuan.

Lurzati bakoitzeko arau partikularretan zehaztutako aparkaleku-plazen kopurua gutxienekoa izango da, eta Plan Berezi honetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Bizitegi-lurzati bakoitzean gutxieneko aparkaleku-hornidura zenbatzeko, defizita egonez gero, ondoko lurzati-tan dauden plaza soberakinak kontabilizatu ahal izango dira.

Plan honetan lurzati pribatuetan aurreikusitako aparkalekuetarako sarbideak, aldi berean, sarrera eta irteeratzat hartuko dira.

2.2 KAPITULUA. BIZITEGI-ERABILERAko ERAIKUNTZETAKO LOKALEN BIZIGARRITASUN-BALDINTZA OROKORRAK. ESPAZIOEN DIMENTSIOA, OINARRIZKO ESKAKIZUNAK ETA OINARRIZKO INSTALAZIOEN ZUZKIDURA.

2.2.1 artikulua. Bizigarritasun-baldintza orokorrak.

Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren eremuan eraikiko diren bizitegi-erabilera-erakinek indarreko lege-xedapenetan ezarritako bizigarritasun-baldintza orokorrak bete beharko dituzte, baita indarrean dagoen hirigintza-plangintza eta ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritakoa ere (Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen).

Kapitulu honetan zehaztutako aurreikuspenak Ordenantza hauek baino arau-maila handiagoa duten indarreko gainerako lege-erakundeek ezarritako irizpideak betez aplikatuko dira. Kontraesanak sortuz gero, beste xedapen horietan ezarritako irizpideak aplikatuko dira.

Babes ofizialeko etxebizitzetan, etxebizitza tasatu autonomikoak barne, dagokien araubideari lotutako bizileku-erakuntzen kasuan, horiek arautzen dituzten berariazko lege-erakundeek ezarritako aurreikuspenak aplikatuko dira lehentasunez.

Babes ofizialeko etxebizitzaren ordenantzetan jasotako zehaztapenak HAPOaren araudian, udal-ordenantzetan edo plan honetako ordenantzetan jasotakoak baino murriztaileagoak badira, guztien artean murriztaileenak aplikatu beharko dira.

2.2.2 artikulua. Etxebizitzetara zuzendutako lokalen bizigarritasun-baldintzak.

Kasu guztietan, ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua aplikatu beharko da (Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen).

Etxebizitzaren gutxieneko tamaina: Ezin izango dira eraiki 40 m² erabilgarri baino gutxiagoko azalera erabilgarria duten etxebizitzak, esekitokia eta espazio irekiak kenduta (balkoiak, terrazak, etab.). Baldintza hori betetzen ez bada —lehendik zegoen lokalak azalera txikiagoa du—, etxebizitza berria onartu ahal izango da, proposatutako ezaugarrien eta konponbidearen arabera, betiere gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen baditu eta aldeko txosten teknikoak badu. Lokal bat ezin izango da zatitu hasieran aurreikusitakoa baino azalera txikiagoa duten etxebizitzetan.

2.2.3 artikulua. Bizitegi-erabilerekin bestelakoetara (komertzialak, ekipamendua eta abar) bideratutako bizitegi-erakuntzetako lokalen bizigarritasun-baldintzak.

Bizitegi-erabilera-erakundeak ez diren erabilera baimenduetarako bizitegi-erakuntzetan sortzen diren lokalen bizigarritasun-baldintzak, oro har, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean eta udal-ordenantzetan araututakoak izango dira.

Alderdiaren bat arautzen ez bada, babes ofizialeko etxebizitzetan horrelako lokaletarako ezarritako diseinu-irizpideak aplikatuko dira.

2.2.4 artikulua. Garaje-erabilera zuzendutako lokalen bizigarritasun-baldintzak.

«B» DOK. GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAUAK

OIARTZUN

2026ko apirila

Etxebizitza-eraikinetako garaje-erabilerako lokalen diseinua HAPOaren araudian eta eraikuntzaren arloan aplikagarriak diren udal-ordenantzetan ezarritakoaren arabera egingo da. Horrez gain, HAPOan edo udal-ordenantzetan arautu gabeko gainerako gaitan, ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritakoa aplikatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituenak.

Garajerako lokalek irisgarritasun-araudia, suteen aurkako araudia eta dagokien araudi sektoriala beteko dute.

2.2.5 artikulua. Trastelekuei eska dakizkiekeen bizigarritasun-baldintzak.

Etxebizitza-eraikinetako trasteleku-erabilerako lokalak diseinatzeko, ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritakoa bete beharko da; dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen ditu.

2.3 KAPITULUA. BIZITEGI-ERABILERAKO ERAIKINETAKO INSTALAZIOEN ERAIKUNTZA-KALITATEKO ETA FUNTZIONALITASUNEKO BALDINTZAK.

2.3.1 artikulua. Zerbitzu-sareen eta gainazaleko tratamenduen ezaugarri nagusiak.

Plan Berezi honetako azpiegitura-planoek Eremuan ezarri beharreko zerbitzu-sareen eskemak irudikatzen dituzte bakar-bakarrik.

Kapitulu honetan deskribatzen diren bide, espaloi eta oinezkoentzako esparruen azaleko tratamenduek gutxienekoen izaera dute.

Bai batzuk bai besteak xehetasun osoz aztertuko dira Urbanizazio Proiektuan. Ezaugarriek bat etorri beharko dute Oiartzungo Udaleko Ordenantzekin nahiz horiei eragiten dien berariazko araudiak ezarritakoarekin.

2.3.2 artikulua. Oinezkoentzako bideak, espaloiak eta espazioak zolatu eta sendotzea.

Bideak hurrengo oinarritzko baldintzekin gauzatuko dira, haiek sendotu eta zolatze aldera:

- Oinarriaren azpi pikortsua.
- Oinarri pikortsua.
- Asfaltozko akabera gainazalean.

Espaloiak pixka bat armatuta dagoen hormigoizko zolata baten bitartez eratuko dira, ale egiturako oinarri trinko gainean egina, hormigoizko ertzekin eta asfaltoan edo urbanizazio-proiektuak definitu beharreko materialean egindako lauza txikietan amaitutako gainazalarekin.

Pikorrekin egina izango dira bidegorrien oinarriaren azpia eta oinarria, eta akaberako azala, berriz, asfaltoz, eta aurrez hormigoizko oinarri bat gauzatu ahalko da.

Behar-beharrezkoak diren azaleretara mugatu beharko dira zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dituzte (zoladura iragazkorak, andelak edo ekaitzetarako gailuak eta abarrak); lehendik zegoen egoeraren aldean jariatzea handitzen bada, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko dute horien bitartez. Sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusitako beharko dute, halaber.

Oro har, gainazal iragazkorren gutxieneko ehunekoa % 20koa izango da espaloietan, eta % 35koa plaza eta hiri-berdeguneetan.

Edonola ere, urbanizazio-proiektuak behar bezala adierazi beharko du urbanizatu behar diren lurzoruen espazio libreen akabera iragazkorren ehunekoa zein den.

Oro har, komunikabideetako zeharkako drainatzeetan ezin zaio ibar bati erantsi arro propioaren azaleraren % 10 baino handiagoko isurtze-eremurik. Baldintza hori bete ezean, handitu egin beharko da ibar hartzaileko ibilguak duen huste-ahalmena, 500 urteko errerika-denborako uholdearekin ez dadin egungo egoerarekiko gain-igoerarik gertatu.

Jabari publiko hidraulikora edo itsas eta lehorreko jabari publikora isurtzen diren ibilgailuen zirkulazio-plataformen garbiketa-urak husten dituzten garraio-azpiegituretako drainatze-lineetan, isuri aurretik kutsadura minimizatzeko sistemak aurreikusitako dira, betiere KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN PLAN HIDROLOGIKOAREN 48. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.3.3 artikulua. Instalazioen baldintza orokorrak.

Oiartzungo udalerrian eraikitzen diren bizitoki-erabilerara zuzendutako eraikinek indarrean diren legezko xedapenetan instalazioetarako ezarritako eraikuntza-kalitateko eta funtzionaltasuneko

eskakizunak bete beharko dituzte, Eraikuntzako Kode Teknikoa, hura garatzeko ateratako xedapenak, indarrean den hirigintza-plangintza eta Ordenantza hauek barne.

Oro har, eraikinen eremu komunetan argiztapenak kontsumo txikikoa eta argi-errendimendu handikoa izango dela zehazten da.

2.3.4 artikulua. Hirigintzako oztopoak ezabatzea.

Hiri Antolamenduko Plan Berezi hau garatzeko izapidetzen den Urbanizazio Proiektuak zehaztapenak egokitu beharko ditu hurrengo araudian ezarritakora: Eusko Legebiltzarraren Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea, eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak.

2.3.5 artikulua. Argindar-sarearen eta kaleko argien ezaugarriak.

Linea eta instalazio elektriko orok indarrean dauden araubide ofizialak bete beharko du, baita enpresa kontzesionarioen arauak ere.

Eremu bakoitzaren argi-azterketa egingo da, jasangarritasun energetikoari buruzko azterlanarekin bat etorritik.

Kaleko argiak efizienteak izango dira energiaren aldetik, eta argi-kutsadura saihestuko dute.

Eremuan ezingo da aireko linea elektrikorik jarri, eta linea guztiek lur azpian egon beharko dute.

Urbanizazio osoan S1 argiztapen-klasea ezarriko da, eta argiek 15 lux eta 5 lux arteko batez besteko balioak izango dituzte.

2.3.6 artikulua. Ur-hornidurako sarea eta zerbitzua arautzeko baldintzak.

Urez hornitzeko sarea hurrengo aurreikuspenak betetzeko diseinatuta egongo da, kasu bakoitzean indarrean dagoen araudia betez:

- a. Edateko urez hornitzea
- b. Ureztatzea
- c. Suteen aurkako babesak (ur-harguneak)

Ur-hornidura Udalarena izango da, eta Oiartzungo Udala arduratuko da horretaz.

Baldintza horiek 2006ko martxoaren 17ko 314. zenbakiko Errege Dekretu bidez onetsitako Eraikuntzako Kode Teknikoak ezarritakoak dira.

2.3.7 artikulua. Saneamendu-instalazioen baldintza orokorrak.

Eraikin guztietan, saneamenduko barne-instalazio bereizle bat jarri beharko da; hura bere aldetik lotuko da udal-sarera.

Osasun-aparatu, harraska eta ikuztegi guztiek itxiera hidraulikoa izango dute, eta sifoiak erraz erregistratu eta iristeko modukoak izango dira.

Lurzatien barnean kokatutako kutxatila edo erregistro-putzuen arteko eroanbide-tarteak zuzenak eta % 1,5etik gorako malda uniformekoak izango dira.

Garajeek hustubide bat izango dute 200 m² (s) edo frakzio bakoitzeko, sarera sartu aurretik koipeak bereizteko gailua izango duena.

Fatxadaren kanpoaldeko euri-uretarako zorrotenak burdinurtu, altzairu galvanizatu edo antzeko materialekin egindako piezekin errematatu eta babestuko dira, 2,00 metroko altueraraino.

Komunetako tangek edukiera txikia izango dute, baita deskarga mota hautatzeko aukera ere.

2.3.8 artikulua. Aireztatze-tximinien baldintza orokorrak.

Aireztatze-tximiniak kolektore orokor edo bateratuen eta hodi independenteen bidez ezartzea baimentzen da, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- A.- Hodi guztiek —kolektoreek eta indibidualek— bertikalak izan behar dute eta ez dute inolako desbideratzerik izan behar. Material erregaitzez egin beharko dira.
- B.- Instalazio horien gutxieneko sekzioa indarrean diren legezko xedapenek, bereziki, Eraikuntzako Kode Teknikoa barne, ezarritakoa izango da.
- C.- Kolektoreek eta hodi indibidualek kanpoko girotik termikoki behar bezala babestuta egon beharko dute, tximiniaren tiro zuzena oztopatuko duten tenperatura-galerak saihestearren.
- D.- Aireztatzeko eta errektuntza-keak irteteko hodi indibidualak ezin izango dira kolektore berera lotu.

2.4 KAPITULUA.BIZITEGI-ERAIKINEN ETA HORIEN ELEMENTUEN SEGURTASUN-BALDINTZAK.

2.4.1 artikulua. Segurtasun-baldintza orokorrak.

Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren eremuan bizitegi-erabileretarako eraikitzen diren eraikinek segurtasun- eta babes-arloan indarrean diren legezko xedapenetan ezarritako eskakizun funtzionalak eta eraikuntzari lotutakoak bete beharko dituzte, eta, bereziki, Eraikuntzako Kode Teknikoan eta hura garatzeko ateratako xedapenetan ezarritakoak, sute-egoerei nahiz beste baldintza batzuei dagokienez.

2.4.2 artikulua. Baoak, leihoak eta terrazarako irteerak babestea.

Gai horiei dagokienez, arloan indarrean diren legezko xedapenetan ezarritakoa beteko da, Eraikuntzako Kode Teknikoan ezarritakoa bereziki.

2.4.3 artikulua. Estalkirako irteera.

Eraikin orok teilaturako irteera erraz eta eraginkorra izango du, teilatuaren espazio komun batetik.

2.5 KAPITULUA. SESTRA GAINEAN ERAIKITA EZ DAUDEN ERABILERA PRIBATUKO ESPAZIOAK TRATATZEKO BALDINTZAK.

2.5.1 artikulua. Sestra gainean eraikita ez dauden erabilera pribatuko espazioen kontserbazioa eta apaindura.

Jabetza partikularreko lorategiak, patioak edo espazio libreak apaindura- eta duintasun-baldintza egokietan mantendu beharko dira, eta beharrezko urbanizazio-baldintzak hornituko zaizkie —euri-uren bilketa, argiteria eta abar—.

Itxi gabeko apaindura-eraikinak eta erabilera nagusiaren erabilera osagarrietarako eraikinak indarrean den hirigintza-plangintzan berariaz adierazten diren kasuetan eta baldintzetan bakarrik onartuko dira. Nolanahi ere, Udalak ixteko material jakinak eta kolore eta forma zehatzak erabiltzea eskatu ahal izango du, horiek ingurunera egokitzeko.

2.6 KAPITULUA. INGURUMEN, GENERO ETA HIZKUNTZA ARLOETATIK ERATORRITAKO ZUZENKETA-, KONPENTSAZIO- EDO BABES-BALDINTZAK

2.6.1 artikulua. Neurri orokorrak.

Eremuko esku-hartzeetan, oro har, Oiartzungo Plan Orokorraren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Azterlanean xedatutakoa aplikatuko da. Era berean, aplikagarriak izango dira Plan Berezi honen Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren 9. eta 10. apartatueta jasotako alderdiak ere, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien proposamenari eta planaren ingurumen-jarraipenerako proposatutako neurriei buruzkoak, hain zuzen.

Era berean, Plan Berezi honen «C» dokumentuan —PREBENTZIO-, ZUZENKETA- ETA KONPENTSAZIO-NEURRIAK KLIMA-ALDAKETA KONTUAN HARTUTA— jasotako zehaztapen guztiak aplikatuko dira.

Planaren ondoriozko proiektuen ingurumen-ebaluazioan, aintzat hartuko dira lurraldearen baldintzatzaileak eta eginiko irismen-dokumentuan adierazten diren ingurumen-irizpideak.

Urbanizazio-proiektuak espezie autoktonoak eta baldintza bioklimatikoetara egokituta dauden espezieak erabiltzea lehenetsiko du eta, beraz, gutxieneko mantentze-lanak behar dituzten landareak erabiliko dira.

Ibaiadarraren ibilgu eta ertzetan haltzadi kantaurrearen espezieak landatuko dira (batez ere haltzak eta lizarrak).

Ureztatze-sistemak saihestu edo ahalik eta gehien murriztuko dira, eta ura berrerabiltzea ahalbidetzen duten sistemak sustatuko dira.

Eremura egindako lur-ekarpenetan kontrolatu egingo da landare inbaditzaileak ez sartzea, hala nola *Cortaderia selloana* eta *Buddleja davidii* espezieak; horrenbestez, landare inbaditzaileak egon diren lurak ezin izango dira berrerabili.

Urbanizazio-proiektuak ahalik eta gehien murriztuko du azalera iragazgaitza, eta, ahal den neurrian, euri-ura iragazten duten materialak erabiliko dira oinezkoen eta ibilgailuen zirkulaziorako eremuetan.

Urbanizazio-proiektuak bide-sarea diseinatuko du eta, horrela, eraikin eta zuzkidura-lurzatietatik bidegorrira sartzeko bide zirkularrean ibilgailuen eta bizikleten arteko bizikidetza bermatuko da; gainera, ibilgailuen abiadura mugatzeko neurriak ezarriko dira. Era berean, urbanizazio-proiektuak bizikletentzako aparkalekuak eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak barne hartuko ditu.

Obrak, bai eta lurzorua okupatu beharra dakarten jardura osagarriak ere, proiektua egikaritzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatuko dira. Kontratistaren instalazio-eremuak, barnean hartuta makinak gordetzeko guneak, obra-txabolak, obrako materialak aldi batean pilatzeko guneak, landare-lurra eta hondakinak aldi baterako metatzeko eremuak, ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpideei jarraikiz proiektatuko dira.

7/2022 Legeak, apirilaren 8koak, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzekoak, eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutakoaren arabera kudeatu beharko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorritakoak barne.

Eraikuntza-proiektuek, batez ere publikoek, argi naturalaren erabilera optimizatzeko sistemak izango dituzte, bai eta CO₂ isuri txikiko materialak ere, fabrikazio-, instalazio- eta garraio-prozesuetan energia-kontsumo txikia dutenak.

Argiteria publikoan kontsumo txikiko sistemak erabiliko dira, baita automatizazioa, piztea eta itzaltzea erregulatu eta kontrolatzeko sistemak ere.

Errepidez eta trenbidez salgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko plan berezian adierazitakoa aplikatuko da (Eusko Jaurlaritz, 2001).

Gainera, jarduketa-proposamen orokor gisa, honako ekintza hauek gauzatuko dira:

- 1.- Bizikidetzatza-gune bat ezarriko da Euskotreneko geltokiaren ondoan, garraio-zentro intermodal gisa, adin-tarte guztientzako komunikazio-sistema jasangarri eta egokia bermatzeko.
- 2.- Jendearentzat irisgarriak diren karga- edo hornidura-puntuak ezarriko dira, erabiltzaile guztientzat diskriminaziorik gabeko sarbidea bermatuko duten erregai alternatiboak hornitzeko. Erregulazio hori eta hiri-diseinuan txertatzea nahitaez jaso beharko dira eremua garatuko duen urbanizazio-proiektuan.
- 3.- Urbanizazio-proiektuak urbanizatu behar den lurzorua espazio libreetako akabera iragazkorren ehunekoa adierazi beharko du; ehuneko hori gutxienez % 20koa izango da (Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 48. artikulua).
- 4.- Kanpoko argiteria publikoaren azterketa egingo da, espazio publiko bakoitzerako argiztapen-maila eta argiztapen-denbora optimoak ebaluatzen. Erregulazio hori eremua garatuko duen urbanizazio-proiektuan integratu beharko da. Kanpoko argiteria jartzeko, kanpoko argiteria duten instalazioetako energia-efizientziari buruzko Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da. Erregelamendu hori azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuaren bidez onartu zen. Etorkizuneko kanpoko argiztapen-sistemek ITC-EA-01 instrukzio teknikoak eskatzen duen gutxieneko energia-efizientzia baino handiagoa izan beharko dute.
- 5.- Udalari dagokio ARR-1A eremua eta ARR-1B sektorea Babes Akustiko Bereziko Eremu izendatzea, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 45. artikulua arabera. Zentzu horretan, Oiarzungo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urriaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Arraguako ARR-1A eta ARR-1B hirigintza-eremuen multzoa Babes Akustiko Bereziko Eremu izendatzea. Jendaurreko informazio-aldian ez zen alegaziorik aurkeztu.
- 6.- Urbanizazio-proiektuak eranskin bat jasoko du, eremuaren ingurumen- eta paisaia-integrazioa barne hartuta. Eranskin horrek eremuko berdeguneak leheneratzearekin lotutako zuzenketa-neurriak jaso beharko ditu, ibai-sistemari esleitutako eremuak barne.

Plan Bereziaren X. eranskin gisa jasotako hizkuntza-inpaktuaren azterketaren ondorioak, zuzenketa-neurriak, jarraipen-kronograma eta ebaluazio-adierazleak hartuko dira kontuan.

2.6.2 artikulua. Neurri bereziak eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruek.

Eraikuntza-lanek dirauten bitartean, beharrezkotzat jotzen da obraren ingurumen-kontrola egitea, kasuan kasuko proiektuan zehaztutako babes- eta zuzenketa-neurriak (dagokion urbanizazio-proiektuan zehaztutako dira) betetzen direla ziurtatzeko.

Eremua lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako Geoiker 20063-002227 (zabortegea) kodeko lurzatian dago.

Obrak egin bitartean lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten beste kokagune batzuk atzemanaz gero, edo lurzorua kutsatzen duten substantziak daudelako zantzu funtsatuak egonez gero, horren berri eman beharko zaie, berehala, Oiarzungo Udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, azken horrek zehatz ditzen neurri hartu behar diren eta zein pertsona fisikok edo juridikok bete beharko dituen neurriak, lurzorua kutsatzea saihesteko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikuluaekin bat etorriz.

2.6.3 artikulua. Kalitate akustikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikulua ezartzen duenari jarraikiz, etorkizuneko garapenak aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan xedatutakoa beteko dute, Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren eta Ingurumen Txosten Estrategikoaren zuzenketa-neurrietatik ondorioztatzen den moduan.

Zonako Planean jasotako neurriak ezarri arren kalitate-helburuak bete gabe jarraitzen bada, Toki Administrazioak eremua Egoera Akustiko Bereziko Eremu izendatuko du, eta helburu horiek betetzeko neurri osagarri berriak ezarriko ditu.

Beraz, ARR-1A eremua eta ARR-1B sektorea Babes Akustiko Bereziko Eremu izendatu beharko dira, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 45. artikuluen arabera.

Azken zuzenketa-neurriak Babes Akustiko Bereziko Eremu izendapenaren esparruan egingo den Zonako Planean zehaztuko dira (Dekretuaren 46. artikulua).

Nolanahi ere, eraikin sentikorren barruko espazioetan kalitate akustikoaren helburuak bete beharko dira (etxebizitza-erabilerako nahiz ospitale-, hezkuntza-, kultura-, erlijio- edo administrazio-erabileretarako eraikinetan). Horretarako, Udalak dagokion lizentzia eman aurretik gai hori justifikatzen duen txostena egin beharko du, eta kanpoko ingurunea babesteko zuzenketa-neurriak ezarri beharko ditu.

Obretako zaratak: Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonifikazio akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinak emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Dekretuak aldatu du) eta arau osagarrietan ezarritakora.

Obrek iraun artean, jardunbide operatibo egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko; bereziki, hondeaketetan, eraispentetan, zamalanetan, garraio-lanetan eta abar, bai eta erabilitako makinak mantentze-lan orokorretan eta zaraten eta bibrazioen sorburuko murrizketan ere.

Egunez lan egingo da.

Obrek sei hilabete baino gehiago iraungo dutela aurreikusten bada, inpaktu akustikoaren azterketa egin beharko da, egoki diren zuzenketa-neurriak zehazteko, hala ezarrita baitago urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 35 bis artikuluan.

2.6.4 artikulua. Lurzoruaren kalitatea.

Planeko jarduketek lurzoruaren kalitate-adierazpenaren arabera izan behar dute. Adierazpen-prozedura lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean dago jasota.

2.6.5 artikulua. Zuzenketa-neurriak obra-fasean.

Aurreikusitako garapenetan, ingurumen-balioei eustea bermatzen duten neurri guztiak aplikatu beharko dira. Bereziki, honako hauek:

- Obrako langileek erabili behar duten jardunbide egokien gidaliburuak gai hauekin zerikusia duten alderdiak bilduko ditu, gutxienez: lanaldiak, makineria, aldi baterako desbideratzeak, isurketak saihestea, ahalik eta hauts eta soinu gutxien sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa izan dezaketen jardunak minimizatzea, hondakinak kudeatzea eta abar.
- Obra-eremua mugatzea eta instalazio osagarriak kokatzea. Obrak, bai eta lurzoru okupatu beharra dakarten jardura osagarriak ere, proiektua egikaritzeko behar-beharrezkoa den gutxienezko eremuan gauzatuko dira. Kontratataren instalazio-eremuak, barnean hartuta makinak gordetzeko guneak, obra-txabolak, obrako materialak aldi batean pilatzeko guneak, landare-lurra

eta hondakinak aldi baterako metatzeko eremuak, ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpideei jarraikiz proiektatuko dira.

- Hondakinen sorrera eta kudeaketa: obrak egin eta garbiketa-kanpainak dirauen bitartean sortutako hondakinak kudeatzeko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta berariazko arauetan xedatutakoa beteko da. Eraikuntza- eta eraispén-hondakinak Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa arautzen duen Dekretuan (112/2012 Dekretua, ekainaren 26koan) xedatutakoaren arabera kudeatuko dira. Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte (833/1988 Errege Dekretua, Hondakin toxikoei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko Erregelamendua onartzekoa). Industria-olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko dira sortutako olio erabiliak.
- Airearen kalitatea babestea. Ibilgailuak eta makinak garbitzeko gailuak egongo dira, baita gurpilak garbitzeko plataformak ere, lokatzik edo hautsik ez hedatzeko, eta kamioiek obretan sartzeko eta obretatik ateratzeko erabiliko dituzten bideak garbi eduki beharko dira, presiozko ura edo erratz-makinak erabilia. Hezetasun-baldintza egokietan garraiatuko da hondeaketa-materiala, hain zuzen, zama-estalkiak dituzten ibilgailuetan, lohi eta partikularik ez barreiatzeko.
- Lurzoruak eta lurpeko urak babestea: prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezarriko dira dagokion obra-faserako, istripuzko isuriaren eragina saihesteko, bereziki makinaren mantentze-lanetan (obrado instalazio osagarriak iragazgaiztea, material xurgatzaileak erabiltzea, etab.).
- Salgai arriskutsuen garraioaren ondoriozko arriskuari buruzko neurriak (errepideak eta trenbidea): Errepidez eta trenbidez salgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko plan berezian adierazitakoa aplikatuko da (Eusko Jaurlaritza, 2001).
- Airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babestea: Eguneako lan-ordutegian jardungo da, eta kamioiek obran sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira; horretarako, presioko ura edo erratz-makina mekanikoak erabiliko dira.
- Kamioiek obra-lekura sartzeko eta handik irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi eduki beharko dira; horretarako, presioko ura edo erratz-makina mekanikoak erabiliko dira.
- Kultura-ondarearen babesa. Horrek guztiak ez du kentzen Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa betetzea; hau da, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala emango zaio horren berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari, hark zer neurri hartu behar diren erabaki dezan.
- Salgai arriskutsuen garraioaren ondoriozko arriskuari buruzko neurriak (errepideak eta trenbidea): Errepidez eta trenbidez salgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko plan berezian adierazitakoa aplikatuko da (Eusko Jaurlaritza, 2001).

Obra-fasean, trafikoa kontrolatu egingo da ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko eta trafikoa areagotzeak eragin ditzakeen arriskuak minimizatzeko.

Horretarako, obrako eremuan ibiltzen diren ibilgailuen abiadura eta kopurua kontrolatu egingo da, batik bat haize handia dabilen egunetan eta egun lehorretan. Jarduketa-eremuaren inguruko zonetara ere zabalduko da kontrol hori.

Obrako berezko makinek zarata minimizatzeko beharrezkoak diren gailuak izango dituzte, eta honako Zuzentarau hauetan xedatutakoa bete beharko dute: Pala hidraulikoen, kable-palen, aurretiko toparien, kargagailuen eta pala kargatzaileen soinu-emisioak mugatzeari buruzko Kontseiluaren 1986ko abenduaren 22ko 86/662/EEE Zuzentarauan, eta 1995eko ekainaren 29ko 95/27/EE Zuzentarauan; azken horren bitartez, Pala hidraulikoen, kable-palen, aurretiko toparien, kargagailuen eta pala

«B» DOK. GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAUAK

OIARTZUN

2026ko apirila

kargatzaileen soinu-emisioak mugatzeari buruzko Kontseiluaren 1986ko abenduaren 22ko 86/662/EEE Zuzentaraua aldatzen da. Horretaz gain, makineria behar bezala zainduko da eta beharrezkoak gerta daitezkeen azterketak egingo zaizkio.

Lanek iraun bitartean, jardunbide egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko, bereziki indusketa-, eraispin-, zamalan- eta garraio-lanetan, baita erabilitako makineriaren mantentze-lanetan, zaraten eta bibrazioen murrizketan, eta erabilitako ekipamenduen zaraten kontrolean ere.

Zaradari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatzeko akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinen emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Dekretuak aldatu du) eta arau osagarrietan ezarritakora.

Beste alde batetik, Plana garatzetik eratortzen diren proiektuen ondoriozko obrek sortutako soinu-mailak ezingo ditu gainditu 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurarenak, ezartzen dituen kalitate akustikoaren helburuak obra horien eragin-eremuan.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzeari aurrea hartzea sustatu behar da, edo, hala badagokio, uztailearen 28ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkeran kudeatu daitezela, hau da: prebentzioa, berrerailetzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne.

Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da alde aurretik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balioestea.

Industriaren Erabilitako Olioaren Kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko dira olio erabiliak.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemek independenteak izan beharko dute, baldin eta beren tipologia dela eta, isurketaren baten ondorioz nahasiz gero, arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete. Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte hondakin arriskutsuak dituzten edukiontziek edo ontzietan, eta itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezkeen. Aipatutako edukiontzietan edo ontzietan era argian, irakurgarrian eta ezabaezinean etiketatuta egon beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Eremu jakin bat egokituko da behin-behinean pilotatzeko hondakin arriskutsuak, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar. Gainera, hondakin geldoak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita. Era berean, lanek irauten duten bitartean, sortzen diren hondakinak biltzeko elementu estankoa (bidoiak eta abar) jarriko dira lanak egiteko eremu osoan. Motaren arabera bereiziko dira hondakinak eta, ondoren, aldi baterako biltegitratuko dira aipatutako garbigunean.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarriko dira, nahasketok saihesteko.

Olio erabiliak, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean utziko dira behar bezala etiketatutako edukiontzi estankoei; zolata iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, kubo txikietan edo ihesei eta isuriei eusteko sistemen barruan.

Araudia betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereiziko, inola ere ez da kontrolik gabeko efluenterik sortuko erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinen mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak

erretzeagatik.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa arautzen duen Dekretuan (112/2012 Dekretua, ekainaren 26koan) xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Lur-soberakinak sortuz gero, lehentasuna emango zaio mailegu-lurak behar dituen hurbileko obra batean lurren eta arroken soberakinak balorizatzeari. Balorazioa ezinezkoa bada, soberakinak metatzeko egon daitezkeen kokalekuak identifikatuko dira, eta ingurumen-irizpideekin aztertuko da nora eraman daitezkeen soberakinak, ingurumen-inpaktu txikiena duen lekua hautatzeko. Azken kasu horretan, baimendutako soberakin-biltegi bat izango da, eta kudeaketak hauek bete beharko ditu: 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak zabartegietan utziz ezabatzeako jarduera arautzen duena; eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

2.6.6 artikulua. Mugikortasun-jasangarritasunaren gaineko eragina murriztera bideratutako neurriak.

Urbanizazio-proiektuen bitartez, mugikortasun-eredu jasangarrienak bultzatzeko baldintzak sustatu beharko dira, eta horretarako oinezkoentzako bide edo espaloiak eta bidegorriak proposatuko dira.

Urbanizazio-proiektuek honako lege hauetan ezarritako xedapenak bete behar dituzte: Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea, eta Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan.

Bizitegi-eraikin berriek bizikletentzako leku seguruak eta babestuak izan beharko dituzte: eraikitako etxebizitza berri bakoitzeko 1,5 bizikleta-plaza gutxienez (Euskadiko Mugikortasun Jasangarriari buruzko Legearen 8. artikulua).

2.6.7 artikulua. Zuzenketa-neurriak urbanizazio-proiektuetan.

Urbanizazio-proiektuak idazterakoan kontuan hartu beharko da Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren 9.2 apartatua aurreikusitakoa —Plan Bereziaren aldaketari buruzko zuzenketa-neurriei dagokienez—, baita honako hauek ere:

- Kalitate-bermearen adierazgarria eta ingurumen-ziurtagiriak dituzten produktu eta materialak erabiltzea aurreikusiko da. Ahal dela, iraupen luzeko materialak, berriz erabili eta birziklatu daitezkeen materialak erabiliko dira.
- Proposatutako eremuetako espazio publikoetan nahiz eraikin berrietako espazio komunetan, honako arau hauetan xedatutakoa betetzen duten argizatze-sistemak erabili behar dira: Kanpoko argiteria-instalazioen energia eraginkortasunaren araubideari buruzko azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuan eta horri dagozkion Jarraibide tekniko osagarrietan —EA-01etik EA-07ra bitartekoak—.
- Eremuak urbanizatzean, zolatu daitezkeen eremu ez-iragazkorrek mugatzeko ahaleginak egingo dira, lurak berez duen iragazte-ahalmenari eustearren.
- Oinezkoen espazioetan eta ibilgailu-bideetan, euria iragazten uzten duten materialak erabiltzea proposatuko da: aparkaleku berdeak, lorategidun lauza txikiak...; eta, halaber, zarata xurgatzeko ahalmen handiko drainatze-zoladura erabiliko da.
- Urbanizazio-proiektuak eranskin bat jasoko du, eremuaren ingurumen- eta paisaia-integrazioa barne hartuta. Eranskin horrek eremuko berdeguneak leheneratzearekin lotutako zuzenketa-neurriak jaso beharko ditu, ibai-sistemari esleitutako eremuak barne.
- Garapen berriko eremuetan, interes handieneko landaretza-orbanak (landaretza autoktonoa eta ibaiertzeko landaretza) errespetatu eta integratuko dira.

- Urbanizazio-proiektuak autobus-geltoki bat instalatzea aurreikusiko du, garraio publikoa eremuan errazago integratzeko.
 - Bizikletentzako aparkalekua jarriko da espazio publikoetan: plaza bat 25 etxebizitza bakoitzeko.
 - Planean aurreikusitako berdeguneek gain, urbanizazio-proiektuan espazio libreak naturalizatzeko estrategiak txertatzea proposatzen da, ingurune naturalizatueta topaguneak, atsedenera eta jolasarako eremuak sustatuz.
 - Urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuek lurrazaleko uretara solidoak ahalik eta gutxien iristeko neurriak aurreikusi beharko dituzte, adibidez, jalkitze-tangak, sedimentuentzako tranpak edo iragazkiak.
 - Urbanizazio-proiektuak hondakin- eta euri-urak bereiz biltzeko sare bat diseinatu beharko du. Hondakin-urak udalerriko hondakin-uren kolektore orokorrera konektatuko dira.
 - Sestra azpiko garajeak dituzten espazio publikoak badaude, landare handiak edo zuhaitzak ezartzeko estrategiak aztertuko ditu urbanizazio-proiektuak. Adibidez, garajea -1. solairuan 3-4 aparkaleku kendu ahal izango dira txorko erraldoiak landatzeko.
 - Euri-urei dagokionez, hiri-drainatze sistemek hirigintzako garapenaren inpaktua jatorrian txikiagotu beharko dute, euri-uren jariatzeak daraman karga kutsatzaileari dagokionez; halaber, jariatze-uren bolumena murrizteko neurriak aurreikusi behar dituzte (Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoaren Araudiaren 44. artikulua). Hori dela eta, garapen-proiektuek drainatze jasagarriko sistemak jaso beharko dituzte hiriko drainatze-azpiegituran (Drainatze Jasagarriko Hiri Sistemak). Gainazal iragazkorren gutxienezko ehunekoa %20koa izango da espaloietan, eta %35koa plaza eta hiri-berdeguneetan. Urbanizazio-proiektuak behar bezala adierazi beharko du urbanizatu behar diren lurzoruen espazio libreen akabera iragazkorren ehunekoa zein den (Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 48. artikulua).
 - Idatzi behar den urbanizazio-proiektuak xehetasunez definituko du ibilgu naturalizatu berria, dagokion justifikazio hidraulikoa barne. Gainera, kontuan hartu beharko da ezin izango dela kanalizazio artifizialik egin, eta eragindako errekaen leheneratze morfologikoa eta ingurumenekoa sustatu beharko dela, hormigoizko kanalizazio-egiturarik gabe. Ibilgu berria definitzerakoan, landarez babestutako lur-eremuetan ertzak eta substratu irregularreko oheak egokitu beharko dira (baita bideen azpiko galerietan ere); horrela, ur-lamina iraunkorra bermatuko da eta errekaen inguruan fauna ibiltzea ahalbidetuko da.
 - Lintziren errekaen kasuan, ibilguak gutxienez 2 metroko zabalera izango du eta 2 metroko ertzak alde bakoitzean. Gainera, haltzadi kantauriarrean bereizgarri diren espezieak landatuko dira.
- Izenik gabeko errekaen gaineko bidegorriaren pasabidea definitzerakoan berariaz bete beharko da 47. artikulua, zubiak, estaldurak, babes-neurri estrukturalak eta ibilguen trazadura aldatzeko arau espezifikoak buruzkoa.
- Ibai-ibilguei eragiten dien jarduketak orok Plan Hidrologikoaren araudian ezarritakoa bete beharko du, bereziki uholde-arriskuko eremuetako lurzoruen erabilera dagokionez, eta zehazki 45.1 artikuluan xedatutakoa.
- Jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo haren babes-eremuetan (zortasun- eta zaintza-eremua) kokatzen den jarduera orotan Uraren Euskal Agentziaren nahitaezko baimena beharko da.
- Autoen abiadura murrizteko eta oinezkoen mugikortasuna errazteko eta babesteko estrategiak lehenetsiko dira: oinezkoen pasabide gehiago jarriko dira, bizikletei lekua egingo zaie bideetan, ahal bada ibilbide zuzenak saihestuko dira, behar izanez gero estuguneak edo kota-aldaketak txertatuko dira, zoladura irregularrak tartekatuko dira, etab.

Oro har, eremuko berdeguneak diseinatzeko, «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» hartuko da kontuan, Udalsarea 21en lan-koadernoan —20.b zenbakia, 2017ko apirila — eta Eusko Jaurlaritzaren «Ibaietako natura-ingeniaritzako tekniken eskuliburua».

Ahalmen inbaditzaileko espezie aloktonoen zabalkundea saihesteko neurriak hartuko dira (*Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana* edo bestelakoak). Ildo horretan, kontrol-neurriak hartuko dira landare-espezie inbaditzailearik sar ez dadin mugitutako lurren eta landararik gabe utzitako lursailen bidez (prestatutako gainazaletan segituan landatzea eta ereitea, landare-lurren pilaketan babesa eta abar). Era berean, espezie horien propaguluak eduki ditzakeen landare-lurra bereizita kudeatzea proposatuko da.

Zentzu horretan, «Flora aloktono inbaditzailea desagerrarazteko eta kontrolatzeko protokoloa» txertatuko da, gaur egun dauden espezie inbaditzaileak desagerrarazteko neurriak jasoko dituen. Ibai-sarearen kasuan, espezie inbaditzaile horien kudeaketa gidaliburu honen arabera egingo da «EAEko ibai-eremuetan landare inbaditzaileen espezieak kudeatzeko jardunbide egokien gidaliburua» (URA, 2021).

- Era berean, eta aipatutako eremuaren urbanizazioari dagokionez, «Urbanizazio-proiektuen garapen jasangarrirako gida»-ko gomendioak kontuan hartu beharko dira. Gidaliburu horren helburua da proiektu horien diseinuaren, egikaritzaren, mantentzearen eta bizitza-amaieraren jasangarritasun-maila baloratzea.

Neurri horiek, gutxienez, arlo hauetan izan beharko dute eragina:

- Materialak. Lehengai berriztaezinen kopurua murriztea.
- Energia. Iturri berriztaezinen bidez sortzen den energiaren sorkuntza edo kontsumoa murriztea.
- Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa gutxitzea.
- Uraren zikloa. Uraren kudeaketa eta kalitatea hobetzea.
- Atmosfera. Gas-, hauts-, zarata-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
- Hondakinak. Hondakin solido gutxiago sortzea.
- Lurzoruaren erabilera. Lurzoruaren okupazioa murriztea.
- Mugikortasuna eta garraioa. Garraio-prozesuak gutxitzea eta pertsonen mugikortasuna hobetzea.
- Ekosistemak eta biodibertsitatea. Naturaren funtzioak hobetzea eta biodibertsitatea handitzea eta/edo kontserbatzea.
- Paisaia. Sektorearen eta haren instalazioen paisaia-integrazioa.
- Arriskuak eta segurtasuna. Arrisku naturalak edo antropikoak minimizatzea.
- Klima-aldaketa. Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea.

Lurzoruak eta urak babesteari dagokionez, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Oro har, ibilguen mugakide diren obrek Jabari Publiko Hidraulikoaren zortasun-eremua (5 m) igarotzeko libre eta oztoporik gabe utzi behar dute, bai eta lursail naturala aldatzeko esku-hartzerik gabe ere (hala nola eraikinak, instalazioak edo eraikuntzak, lur-mugimenduak, betelanak, etab.). Nolanahi ere, egoera onean dagoen ibaiertzeko landarediari eragitea saihestuko da.
- Ibaien egoera naturalak eta horiei lotutako ibaiertzeko landaredia babestu eta kontserbatu beharko dira, edo, bestela, egoera horiek leheneratu.
- Prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezarriko dira dagokion obraren faserako, ustekabeko isurien eragina saihesteko, bereziki makinerien mantentze-lanetan.
- Pilaketa-eremuak, instalazio osagarriak edo makineriaren parkea gainazal iragazgaitzetan kokatuko dira, lurpera sar ez daitezten. Eremu horietako drainatzea hidraulikoki isolatuta egon beharko da inguruko drainatze naturalarekiko, efluenteen trataera egokia bermatzeko.

- Makineria eta ekipoen mantentze-lanak obra-esparruaren beraren barruan xede horretarako prestatutako eremuetan egingo dira; eremu horiek behar bezala kontrolatuta eta egokituta egongo dira, balizko isuriak jasotzeko. Nolanahi ere, obran erabiliko den makineriaren erregaia hornitzeko lanak, lubrifikatzaileak aldatzeko lanak eta antzekoak plataforma iragazgaiztu baten gainean egingo dira, hondakinak (bereziki erabilitako olioak) biltzeko sistemarekin, lurzoruan infiltraziorik ez gertatzeko eta urak ez kutsatzeko.
- Material xurgatzaile espezifikoak eduki beharko da (hala nola sepiolita edo antzeko material baliokideak), olio, erregai edo bestelako substantzia arriskutsuen ustekabeko isurketen aurrean berehala jarduteko.

Nolanahi ere, Plan Berezi honetako «C» dokumentuan xedatutakoari jarraituko zaio, bai zehaztaperen lotesleetan, bai orientagarrietan.

Era berean, Ingurumen Txosten Estrategikoan ezarritako zehaztaperen guztiak hartuko dira kontuan.

2.6.8 artikulua. Zuzenketa-neurriak eraikuntza-proiektuetan.

Eraikuntza-proiektuei dagokienez, honako alderdi hauek aintzat hartu behar dira:

- Eraikinetan erabiliko diren eraikuntza-materialek isolamendu termikoko maila handia izan beharko dute, iraunkorrenak izango dira eta ahal den gutxien kutsatuko dute.
- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoaren 15. artikuluari jarraiki, eguzki-kaptadoreak eta metagailuak ipiniko dira etxeko ur beroaren eta/edo berogailuaren hornidurarako.
- Sare bereziak proposatuko dira: bata hondakin-urentzat eta bestea euri-urentzat. Etxebizitzaren barruan bertan ere urak bereizteko aukera aztertuko da, ur horien kalitatearen arabera: ur beltzak (komunekoak) eta ur grisak (komuneko gainerakoa, harraskakoa eta garbigailukoa).
- Urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege Dekretu bidez ezarritako oinarritzko prozedurari jarraiki, Eraikinen Energia Efizientziaren Ziurtagiria eskuratu behar da.
- Kalitate-bermearen adierazgarria eta ingurumen-ziurtagiriak dituzten produktu eta materialak erabiltzea aurreikusiko da. Ahal dela, iraupen luzeko materialak, berriz erabili eta birziklatu daitezkeen materialak erabiliko dira.
- Plan Bereziaren eremuan eraikintza eta eraikuntza jasangarrienerako behar diren ezaugarriak dagokienez, EAEko Etxebizitzaren Eraikintza Jasangarriaren Giden gomendioak hartu beharko dira kontuan, eraikinen energia-aurrezpena eta -efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko.

Neurri horiek, gutxienez, arlo hauetan izan beharko dute eragina:

- Materialak. Lehengai berriztaezinen kopurua murriztea.
- Energia. Iturri berriztaezinen bidez sortzen den energiaren sorkuntza edo kontsumoa murriztea.
 - Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa gutxitzea.
 - Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
 - Uraren zikloa. Uraren kudeaketa eta kalitatea hobetzea.
 - Atmosfera. Gas-, hauts-, zarata-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
 - Eraikinen barne-kalitatea. Barneko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.
 - Hondakinak. Hondakin solido gutxiago sortzea.
 - Arriskuak eta segurtasuna. Arrisku naturalak edo antropikoak minimizatzea.
 - Klima-aldaketa. Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea.

Nolanahi ere, Plan Berezi honetako «C» dokumentuan xedatutakoari jarraituko zaio, bai zehaztaperen lotesleetan, bai orientagarrietan.

«B» DOK. GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAUAK

OIARTZUN

2026ko apirila

- Plan Bereziaren eremuko lursailen zati bat uholde-arriskuko eremuan dagoenez, eraikinak honako baldintza hauek kontuan hartuta proiektatuko dira:

Eraikinak diseinatzerakoan, dagoen uholde-arriskua hartuko da kontuan, eta bizitegi-erabilera berriak 500 urteko errepikatze-denborako uraldien eragin-eremutik kanpo egoteko moduko kotan kokatuko dira. Beraz, uholde-arriskua eta uholde-mota aintzat hartuta diseinatu beharko dira. Lurpeko garajeak eta sotoak izan ahalko dituzte, betiere bermatzen bada eremua iragazkorra dela 500 urteko errepikatze-denborako uraldien aurrean, eta berariazko azterlanak egiten badira eraikinak behera ez etortzeko. Horretarako, kontuan hartuko da garraiatutako karga solidoa. Garaje eta sotoak, gainera, ebakuazio-bideak eta haizebideak izango dituzte aipatu uholde-kotatik gora. Uholde-larrialdietan irisgarriak izatea hartuko da kontuan.

Genero-inpaktuaren azterlanetik eratorritako baldintzei dagokienez, eta ikus-eremua ahalik eta handiena izan dadin, fatxadaren lerrokaduran egiturari dagozkion elementuak baino ez dira egongo: euskarri biluziak, ahal dela oinplano zirkularrekoak. Horretarako, instalazioak (euri-uren hodiak...) ataripeetako sabai faltsuen bidez bideratu beharko dira barruko lerrokadura aldera.

Gainera, arreta berezia jarriko zaio atarietan kokatutako mugikortasun pertsonalerako ibilgailuak gordetzeko lokalen diseinuari. Horretarako, ahal den neurrian, ARR-1A eremuko plan bereziaren generoaren arabera aurretiazko inpaktu-ebaluazioan, «Mugikortasun pertsonalerako ibilgailuentzako lokala atarian» atalean (22. orria), jasotakoa aplikatuko da.


2.7 KAPITULUA.

HEGAZKINTZA ZIBILAREN BALDINTZAK.

2.7.1 artikulua. Zortasun aeronautikoak.

Aztertutako eremua Donostiako Aireportuaren zortasun aeronautikoko gunean sartuta dago. Atxikitako planoetan, aztertutako eremuari eragiten dioten Donostiako Aireportuko zortasun aeronautikoak mugatzen dituzten azalaren maila-lerroak irudikatzen dira, eta horiek itsas mailarekiko gehieneko altuerak zehazten dituzte. Horiek horrela, ezin izango dituzte altuera horiek gainditu ez eraikinek edo instalazioek —haien elementuak barne, besteak beste, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuko ekipoak, igogailu-zuloak, kartelak eta erremate-apaingarriak—, ez plantazioek, ez lurzoruan egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek edo mugikorrek —zutoinak, antenak, haize-sorgailuak eta horien palak, kartelak eta beste—, ez eta bide-azpiegituretako galiboak ere.

Hori gorabehera, 584/1972 Dekretuaren 8. artikulua arabera, gaur egungo idazketan, edozein eraikuntza, instalazio edo landaketa egiteko, baldin eta tokian bertan 100 metrotik gorako altuera hartzen bada, Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren (AESA) alde aurreko erabakia beharko da, aireko operazioen segurtasunean duen eraginari buruz.



2.8 KAPITULUA.

TRENBIDE-SEKTOREAREN BALDINTZAK.

2.8.1 artikulua. Afekzio-eremua.

Trenbide Sektorearen Legeak trenbidearen eragin-eremuak mugatzeko ezartzen dituen distantziak bete beharko dira kasu guztietan, honako definizio hauen arabera:

- Honako hauek osatzen dute jabari publikoko eremua: tren-lineek eta plataformaren alde bakoitzean utzi behar den 5 metroko lursail-zerrenda batek; hura horizontalean neurtuko da, ardatzarekiko modu perpendikularrean, lautadaren kanpoko ertzetatik.
- Babes-gunea: tren-linearen bi aldeetan dagoen lursail-zerrenda bat izango da; hura jabari publikoko guneak mugatuko du barnealdean, eta lautadaren kanpoaldeko ertzetatik 20 metrotara kokatutako bi lerro paralelok kanpoaldean.
- Eraikitze muga-lerroa: plataformatik gertuen dagoen kanpoaldeko ertzetik 20 metrotara dago, aipatutako ertz horretatik horizontalki neurtuta.

Era berean, azpiegituraren administratzaileak zaratari buruz adierazitakoa bete beharko da kasu guztietan.

HIRUGARREN TITULUA

GARAPENeko HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK, ARRAGUA ARR-1A HJE EREMUko LURZATIEI APLIKATU BEHARREKOAK, ERAIKUNTZARI ETA ERABILERARI DAGOKIENEZ „

PRI/ARR-1A,1 LURZATIA

AZALERA: 735 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Bizitegi-erabilera intentsiboko lurzattia.
(erabilera bereizgarria: Bizitegia, etxebizitza librea)

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

* Eraikigarritasuna:

- Bizitegi-erabilera 2.981 m² (s)
- Hirugarren sektoreko erabilera 257 m² (s)
- Garaje-, trasteleku-, instalazio-erabilera (sestra azpitik) 1.470 m² (s)

Hirugarren sektoreko erabileraren eraikigarritasuna handitu edo murriztu ahal izango da, lurzati bakoitzean atarietarako, erreserba-geletarako eta instalazioetarako geratzen den eraikigarritasunaren arabera.

* Etxebizitza kopurua 30 etxebizitza aurreikusten dira

Adierazitako etxebizitza-kopurua gorantz edo beherantz aldatu ahal izango da, eraikuntza-proiektuen banaketa- eta diseinu-beharren arabera.

* Garaje-plazen kopurua Guztira 42 garaje-plaza aurreikusten dira.

* Eraikuntzen forma arautzea:

- Baldintza orokorrak: Plan berezi honek lurzatiaren gehieneko eta derrigorrezko lerrokadurak zehazten ditu. Lerrokadurak apur bat doitu ahal izango dira, betiere doikuntza hori behar bezala justifikatzen bada etxebizitzak eta garajeak antolatzeko arrazoiengatik.

- «Okupazioa»: 432 m² (s). Sestra gainean jarriko dira hirugarren sektoreko erabilerak, atarietarako sarbideak, instalazio-gelak, garraioak, etab. Atarietarako eta erabilera osagarrietarako 175 m² (s)-ko azalera aurreikusten da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Horrenbestez, hirugarren sektoreko erabilerarako 257 m² (s)-ko eraikigarritasuna kalkulatu da; dena den, kopuru hori gorantz edo beherantz aldatu ahal izango da, lurzati bakoitzean atarietarako, erreserba-geletarako eta instalazioetarako ateratzen den eraikigarritasunaren arabera.

735 m² (s) Sestra azpian, aurreko puntuan adierazitako lerrokadura-doikuntzak salbu.

- «Eraikuntza-profila»:

PRI/ARR-1A,1 lurzatian eraikiko den eraikina laukizuzen formako bloke bakar batek osatuko du. Eraikinak honako profil hau izango du: sotoko bi solairu, garajeetarako eta bizitegi-erabileraren erabilera osagarrietarako; beheko solairu bat, hirugarren sektoreko erabileretarako eta atarietarako; eta goiko 6 solairu. Profil hori handitu ahal izango da, aipatutako gehieneko lerrokadurekiko 2 metro atzeraemandako teilatupe batekin, baldin eta eraikuntza-proiektuak justifikatzen badu lurzatian antolatutako eraikigarritasuna ezin dela gauzatu ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren zehaztapenen arabera.

- Eraikuntzaren altuera:

Eraikuntzaren altuera plan berezi honetako O-06 planoan zehaztutakoa izango da, aurreko puntuan adierazitako baimendutako gehieneko profila izan ezik.

ERABILERA-BALDINTZAK:

* Baldintza orokorrak:

Erabilera- eta jabari-baldintzak Oiarzungo Plan Orokorrean «bizitegi-erabilera intentsiboko» ezarritako zehaztapen orokorretara egokituko dira.

* Baldintza partikularrak:

Ataripeetan eta sestra gaineko eraiki gabeko gune pribatuetan, lur gaineko garajeen lurzati pribatuaren gainean erabilera publikoko zortasuna ezartzen da.

GAUZATZE-BALDINTZAK:

«Lurzatia» zatitzeko aukerari dagokionez, dokumentu honetako 1.2.10 artikuluan xedatutakoa errespetatuko da.

- * Lurzatian antolatutako ataripeak jarraitutasuna izan beharko du ondoko lurzati-taketako ataripeekin; horrenbestez, bizitegi-eraikuntza proiektuarekin batera eta modu bateratuan gauzatuko da, lurzatiaren mugaraino.

PRI/ARR-1A,2 LURZATIA

AZALERA:

903 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA:

Bizitegi-erabilera intentsiboko lurzattia.
(erabilera bereizgarria: Bizitegia, etxebizitza librea)

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

*** Eraikigarritasuna:**

- Bizitegi-erabilera 2.981 m² (s)
- Hirugarren sektoreko erabilera 257 m² (s)
- Garaje-, trasteleku-, instalazio-erabilera (sestra azpitik) 1.806 m² (s)

Hirugarren sektoreko erabileraren eraikigarritasuna handitu edo murriztu ahal izango da, lurzati bakoitzean atarietarako, erreserba-geletarako eta instalazioetarako geratzen den eraikigarritasunaren arabera.

- * Etxebizitza kopurua 30 etxebizitza aurreikusten dira.
Adierazitako etxebizitza-kopurua gorantz edo beherantz aldatu ahal izango da, eraikuntza-proiektuen banaketa- eta diseinu-beharren arabera.

- * Garaje-plazen kopurua Guztira 42 garaje-plaza aurreikusten dira.

*** Eraikuntzen forma arautzea:**

- Baldintza orokorrak: Plan berezi honek lurzatiaren gehieneko eta derrigorrezko lerrokadurak zehazten ditu. Lerrokadurak apur bat doitu ahal izango dira, betiere doikuntza hori behar bezala justifikatzen bada etxebizitzak eta garajeak antolatzeko arrazoiengatik.
- «Okupazioa»: 432 m² (s). Atarietara sartzeko hirugarren sektoreko erabilera eta bizitegi-erabilera sestraren gainean. Atarietarako eta erabilera osagarrietarako 175 m² (s)-ko azalera aurreikusten da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Horrenbestez, hirugarren sektoreko erabilerarako 257 m² (s)-ko eraikigarritasuna kalkulatu da; dena den, kopuru hori gorantz edo beherantz aldatu ahal izango da, lurzati bakoitzean atarietarako, erreserba-geletarako eta instalazioetarako ateratzen den eraikigarritasunaren arabera. 903 m² (s) Sestra azpian, aurreko puntuan adierazitako lerrokatzeen salbuespenarekin.
- «Eraikuntza-profila»: PRI/ARR-1A,2 lurzatian eraikiko den eraikina laukizuzen formako bloke bakar batek osatuko du. Eraikinak honako profil hau izango du: sotoko bi solairu, garajeetarako

eta bizitegi-erabileraren erabilera osagarrietarako; beheko solairu bat, hirugarren sektoreko erabileretarako eta atarietarako; eta goiko 6 solairu. Profil hori handitu ahal izango da, aipatutako gehieneko lerrokadurekiko 2 metro atzeraemandako teilatupe batekin, baldin eta eraikuntza-proiektuak justifikatzen badu lurzatian antolatutako eraikigarritasuna ezin dela gauzatu ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren zehaztapenen arabera.

- Eraikuntzaren altuera:

Eraikuntzaren altuera plan berezi honetako O-06 planoan zehaztutakoa izango da, aurreko puntuan adierazitako baimendutako gehieneko profila izan ezik.

ERABILERA-BALDINTZAK:

- * Baldintza orokorrak:

Erabilera- eta jabari-baldintzak Oiartzungo Plan Orokorrean «bizitegi-erabilera intentsiboko» ezarritako zehaztapen orokorretara egokituko dira.

- * Baldintza partikularrak:

Ataripeetan eta sestra gaineko eraiki gabeko gunen pribatuetan, lur gaineko garajeen lurzati pribatuaren gainean erabilera publikoko zortasuna ezartzen da.

GAUZATZE-BALDINTZAK:

- «Lurzatia» zatitzeko aukerari dagokionez, dokumentu honetako 1.2.10 artikuluan xedatutakoa errespetatuko da.
- * Lurzatian antolatutako ataripeak jarraitutasuna izan beharko du ondoko lurzati-tako ataripeekin; horrenbestez, bizitegi-eraikuntza proiektuarekin batera eta modu bateratuan gauzatuko da, lurzatiaren mugaraino.

PRI/ARR-1A,3 LURZATIA

AZALERA:

651 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA:

Bizitegi-erabilera intentsiboko lurzattia.
(erabilera bereizgarria: bizitegia, etxebizitza
tasatua)

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

*** Eraikigarritasuna:**

- Bizitegi-erabilera 1.987 m² (s)
- Hirugarren sektoreko erabilera 248 m² (s)
- Garaje-, trasteleku-, instalazio-erabilera (sestra azpitik) 1.302 m² (s)

Hirugarren sektoreko erabileraren eraikigarritasuna handitu edo murriztu ahal izango da, lurzati bakoitzean atarietarako, erreserba-geletarako eta instalazioetarako geratzen den eraikigarritasunaren arabera.

- * Etxebizitza kopurua 18 etxebizitza aurreikusten dira.

Adierazitako etxebizitza-kopurua gorantz edo beherantz aldatu ahal izango da, eraikuntza-proiektuen banaketa- eta diseinu-beharren arabera.

- * Garaje-plazen kopurua Guztira 28 garaje-plaza aurreikusten dira.

- * Eraikuntzen forma arautzea:

- Baldintza orokorrak: Plan berezi honek lurzatiaren gehieneko eta derrigorrezko lerrokadurak zehazten ditu. Lerrokadurak apur bat doitu ahal izango dira, betiere doikuntza hori behar bezala justifikatzen bada etxebizitzak eta garajeak antolatzeke arrazoiengatik.

- «Okupazioa»: 368 m² (s). Atarietara sartzeko hirugarren sektoreko erabilera eta bizitegi-erabilera sestraren gainean. Atarietarako eta erabilera osagarrietarako 120 m² (s)-ko azalera aurreikusten da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Horrenbestez, hirugarren sektoreko erabilerarako 248 m² (s)-ko eraikigarritasuna kalkulatu da; dena den, kopuru hori gorantz edo beherantz aldatu ahal izango da, lurzati bakoitzean atarietarako, erreserba-geletarako eta instalazioetarako ateratzen den eraikigarritasunaren arabera. 651 m² (s) Sestra azpian, aurreko puntuan adierazitako lerrokadura-doikuntzak salbu.

- «Eraikuntza-profila»: PRI/ARR-1A,3 lurzatian eraikiko den eraikina laukizuzen formako bloke bakar batek osatuko du. Eraikinak honako profil hau izango du: sotoko bi solairu, garajeetarako

eta bizitegi-erabileraren erabilera osagarrietarako; beheko solairu bat, hirugarren sektoreko erabileretarako eta atarietarako; eta goiko 6 solairu. Profil hori handitu ahal izango da, aipatutako gehieneko lerroakadurekiko 2 metro atzeraemandako teilatupe batekin, baldin eta eraikuntza-proiektuak justifikatzen badu lurzatian antolatutako eraikigarritasuna ezin dela gauzatu ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren zehaztapenen arabera.

- Eraikuntzaren altuera:

Eraikuntzaren altuera plan berezi honetako O-06 planoan zehaztutakoa izango da, aurreko puntuan adierazitako baimendutako gehieneko profila izan ezik.

ERABILERA-BALDINTZAK:

- * Baldintza orokorrak:

Erabilera- eta jabari-baldintzak Oiartzungo Plan Orokorrean «bizitegi-erabilera intentsiboko» ezarritako zehaztapen orokorretara egokituko dira.

- * Baldintza partikularrak:

Ataripeetan eta sestra gaineko eraiki gabeko gunen pribatuetan, lur gaineko garajeen lurzati pribatuaren gainean erabilera publikoko zortasuna ezartzen da.

GAUZATZE-BALDINTZAK:

«Lurzatia» zatitzeko aukerari dagokionez, dokumentu honetako 1.2.10 artikuluan xedatutakoa errespetatuko da.

- * Lurzatian antolatutako ataripeak jarraitutasuna izan beharko du ondoko lurzati-tako ataripeekin; horrenbestez, bizitegi-eraikuntza proiektuarekin batera eta modu bateratuan gauzatuko da, lurzatiaren mugaraino.

PRI/ARR-1A,4 LURZATIA

<u>AZALERA:</u>	483 m ²
<u>KALIFIKAZIO XEHATUA:</u>	Bizitegi-erabilera intentsiboko lurzatia. (erabilera bereizgarria: bizitegia, BOE)
<u>ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:</u>	
* Eraikigarritasuna:	
- Bizitegi-erabilera	1.987 m ² (s)
- Hirugarren sektoreko erabilera	248 m ² (s)
- Garaje-, trasteleku-, instalazio-erabilera (sestra azpitik)	966 m ² (s)
Hirugarren sektoreko erabileraren eraikigarritasuna handitu edo murriztu ahal izango da, lurzati bakoitzean atarietarako, erreserba-geletarako eta instalazioetarako geratzen den eraikigarritasunaren arabera.	
* Etxebizitza kopurua	18 etxebizitza aurreikusten dira.
Adierazitako etxebizitza-kopurua gorantz edo beherantz aldatu ahal izango da, eraikuntza-proiektuen banaketa- eta diseinu-beharren arabera.	
* Garaje-plazen kopurua	Guztira 28 garaje-plaza aurreikusten dira.
* Eraikuntzen forma arautzea:	
- Baldintza orokorrak:	Plan berezi honek lurzatiaren gehieneko eta derrigorrezko lerroakurak zehazten ditu. Lerroakurak apur bat doitu ahal izango dira, betiere doikuntza hori behar bezala justifikatzen bada etxebizitzak eta garajeak antolatzeke arrazoiengatik.
- «Okupazioa»:	368 m ² (s). Atarietara sartzeko hirugarren sektoreko erabilera eta bizitegi-erabilera sestraren gainean. Atarietarako eta erabilera osagarrietarako 120 m ² (s)-ko azalera aurreikusten da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Horrenbestez, hirugarren sektoreko erabilerarako 248 m ² (s)-ko eraikigarritasuna kalkulatu da; dena den, kopuru hori gorantz edo beherantz aldatu ahal izango da, lurzati bakoitzean atarietarako, erreserba-geletarako eta instalazioetarako ateratzen den eraikigarritasunaren arabera. 483 m ² (s) Sestra azpian, aurreko puntuan adierazitako lerroakadura-doikuntzak salbu.
- «Eraikuntza-profila»:	PRI/ARR-1A,4 lurzatian eraikiko den eraikina laukizuzen formako bloke bakar batek osatuko du. Eraikinak honako profil hau izango du: sotoko bi solairu, garajeetarako eta bizitegi-erabileraren erabilera osagarrietarako; beheko solairu bat, hirugarren sektoreko erabileretarako eta

atarietarako; eta goiko 6 solairu. Profil hori handitu ahal izango da, aipatutako gehieneko lerroakadurekiko 2 metro atzeraemandako teilatupe batekin, baldin eta eraikuntza-proiektuak justifikatzen badu lurzatian antolatutako eraikigarritasuna ezin dela gauzatu ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren zehaztapenen arabera.

- Eraikuntzaren altuera:

Eraikuntzaren altuera plan berezi honetako O-06 planoan zehaztutakoa izango da, aurreko puntuan adierazitako baimendutako gehieneko profila izan ezik.

ERABILERA-BALDINTZAK:

- * Baldintza orokorrak:

Erabilera- eta jabari-baldintzak Oiartzungo Plan Orokorrean «bizitegi-erabilera intentsiboko» ezarritako zehaztapen orokorretara egokituko dira.

- * Baldintza partikularrak:

Ataripeetan eta sestra gaineko eraiki gabeko gune pribatuetan, lur gaineko garajeen lurzati pribatuaren gainean erabilera publikoko zortasuna ezartzen da.

GAUZATZE-BALDINTZAK:

«Lurzatia» zatitzeko aukerari dagokionez, dokumentu honetako 1.2.10 artikuluan xedatutakoa errespetatuko da.

- * Lurzatian antolatutako ataripeak jarraitutasuna izan beharko du ondoko lurzati-tako ataripeekin; horrenbestez, bizitegi-eraikuntza proiektuarekin batera eta modu bateratuan gauzatuko da, lurzatiaren mugaraino.

PD1 LURZATIA

AZALERA: 980 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Tokiko sistema. Zuzkidura-lurzatia.
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 300 m² (s) (Sestra gainean)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Zuzkidura-erabilera. Titulartasun publikoko ekipamendu publikoa
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiertzungo Plan Orokorrean ezarritako zehaztapen orokorrei egokituko zaizkie.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

PD2 LURZATIA

AZALERA: 1.230 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Tokiko sistema. Zuzkidura-lurzatia.
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Zuzkidura-erabilera. Titulartasun publikoko ekipamendu publikoa
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiertzungo Plan Orokorrean ezarritako zehaztapen orokorrei egokituko zaizkie.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

ELZV1 LURZATIA

AZALERA: 317 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Espazio libreen tokiko sistema (Berdeguneak)
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Espazio libreak eta berdeguneak
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiartzungo Plan Orokorrean espazio libreko lurzatietarako ezarri diren ezarpen orokorretara egokituko dira, bai eta Plan honetako hirigintza-arau orokorretara ere.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

ELZV2 LURZATIA

AZALERA: 1.228 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Espazio libreen tokiko sistema (Berdeguneak)
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Espazio libreak eta berdeguneak
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiartzungo Plan Orokorrean espazio libreko lurzatietarako ezarri diren ezarpen orokorretara egokituko dira, bai eta Plan honetako hirigintza-arau orokorretara ere.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

ELZ3 LURZATIA

AZALERA: 269 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Espazio libreen tokiko sistema (Berdeguneak)
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Espazio libreak eta berdeguneak
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiartzungo Plan Orokorrean espazio libreko lurzatietarako ezarri diren ezarpen orokorretara egokituko dira, bai eta Plan honetako hirigintza-arau orokorretara ere.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

ELZV4 LURZATIA

AZALERA: 1.928 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Espazio libreen sistema orokorra (Berdeguneak)
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Espazio libreak eta berdeguneak
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiartzungo Plan Orokorrean espazio libreko lurzatietarako ezarri diren ezarpen orokorretara egokituko dira, bai eta Plan honetako hirigintza-arau orokorretara ere.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

ELZV5 LURZATIA

AZALERA: 629 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Espazio libreen tokiko sistema (Berdeguneak)
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Espazio libreak eta berdeguneak
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiartzungo Plan Orokorrean espazio libreko lurzatietarako ezarri diren ezarpen orokorretara egokituko dira, bai eta Plan honetako hirigintza-arau orokorretara ere.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

CF1 LURZATIA

AZALERA: 157 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Ibai-ibilguen sistema orokorra
Titulartasun publikoa.

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Ibai-ibilguak
- Baldintza orokorrak: Erabilera baldintzak Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko arau orokorretan ibai-ibilguetarako ezarri diren ezarpen orokorretara egokituko dira, bai eta Plan honetako hirigintza-arau orokorretara ere. Nolanahi ere, aplikatzekoa den legeria sektorialean ezarritakoa beteko da, eta, bereziki, Uraren Legea.
-

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatiaren kontserbazio- eta mantentze-lanak Oiartzungo Udalaren eta URAREN artean sinatutako lankidetzatza-protokoloak arautuko ditu, Jabari Publiko Hidraulikoaren ibilgu eta ertzetan batera esku hartzeko.

UR-BALIABIDEEN ERAGINARI BURUZKO NEURRIAK.

Erreka desbideratzeari, bideratzeari eta ingurumen-hobekuntzari dagokienez, Urbanizazio Proiektuak zehaztasun eta definizio handiagok jaso beharko ditu haren egokitzapen morfologikoa eta ingurunean integratzeko natura-tekniken ezarpena.

Ibilgu berria definitzerakoan, kontuan hartu behar da ez dela kanalizazio artifizialik egingo eta landarez babestutako lur-ezpondak nahiz substratu irregularreko oheak egokitu beharko direla (baita bideen azpiko galerietan ere); horrela, ur-lamina iraunkorra bermatuko da eta erreken inguruan fauna ibiltzea ahalbidetuko da.

Jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo haren babes-eremuetan (zortasun- eta zaintza-eremua) kokatzen den jardura orotan Uraren Euskal Agentziaren nahitaezko baimena beharko da.

Izenik gabeko erreken gainean proposatutako zubietan berariaz bete beharko da 47. artikulua, zubiak, estaldurak, babes-neurri estrukturalak eta ibilguen trazadura aldatzeko arau espezifikoak buruzkoa.

Ibai-ibilguei eragiten dien jarduketa orok Plan Hidrologikoaren araudian ezarritakoa bete beharko du, bereziki uholde-arriskuko eremuetako lurzoruen erabilerari dagokionez, eta zehazki 45.1 artikuluan xedatutakoa.

RV1 LURZATIA

AZALERA: 1.041 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Tokiko sistema. Bide-sarea.
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Ibilgailuentzako bidea.
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiertzungo Plan Orokorrean ezarritako zehaztapen orokorrei egokituko zaizkie.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

CB1 LURZATIA

AZALERA: 331 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Bidegorri Sarearen Sistema Orokorra.
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Bidegorriaren ibilbidea.
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiertzungo Plan Orokorrean ezarritako zehaztapen orokorrei egokituko zaizkie.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

ELZP1 LURZATIA

AZALERA: 1.251 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Tokiko sistema. Espazio libreak eta oinezkoen guneak
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainean)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Espaloiak.
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiertzungo Plan Orokorrean ezarritako zehaztapen orokorrei egokituko zaizkie. Lurzati honetan autobus-geltokietako markesinei, azpiegiturei, mahaitxoei, terrazei eta abarri buruzko erabilerak onartuko dira.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.

ELZP2 LURZATIA

AZALERA: 569 m²

KALIFIKAZIO XEHATUA: Espazio libreen tokiko sistema eta oinezkoen guneak
Titulartasun publikoa

ERAIKUNTZAKO BALDINTZAK:

- Eraikigarritasuna: 0 m² (s) (Sestra gainea)
0 m² (s) (Sestra azpian)

ERABILERA-BALDINTZAK:

- Berezko erabilera: Espaloiak.
- Baldintza orokorrak: Erabilera-baldintzak Oiertzungo Plan Orokorrean ezarritako zehaztapen orokorreii egokituiko zaizkie. Lurzati honetan autobus-geltokietako markesinei, azpiegiturei, mahaitxoei, terrazei eta abarri buruzko erabilerak onartuko dira.

MANTENTZE- ETA ERABILERA-BALDINTZAK:

Lurzatia kontserbatzea eta mantentzea udal-administrazioen kontura izango da, lurzati urbanizatua jaso ondoren.



III. ERANSKINA

Lankidetzako Esparru-Hitzarmena
GARBITANIA ZERO ZABOR SMri bere udal bazkideek egin beharreko jarduera-enkarguen
araubide juridikoa arautzen duena

Hernanin, 2026ko **apirilaren XXn**

BILDUTA:

XABIER URDANGARIN LASA JN.

XABIER LERTXUNDI ASTEASUINZARRA JN.

JOANA MENDIBOURE GARAIAR, AND.

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA AND.

ESKU HARTZEN DUTE:

XABIER LERTXUNDI ASTEASUINZARRA JN., Hernaniko Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

XABIER URDANGARIN LASA JN., Astigarragako Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

JOANA MENDIBOURE GARAIAR, AND., Oiartzungo udalaren izenean eta ordezkaritzan.

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA AND., Usurbilgo udalaren izenean eta ordezkaritzan.



ADIERAZTEN DUTE:

- I. 2010eko maiatzaren 7an Garbitania Zero Zabor SM (aurrerantzean «Garbitania») sozietatea eratu zuten Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo udalek, kapital sozialean, hurrenez hurren, % 49, % 33 eta % 18ko partaidetzarekin.

Estatutuen 2. artikulua araber, sozietatearen xedea honako jardura hauek osatzen dute:

A. «Hiri-hondakinen eta hondakin asimilagarrien gaikako bilketa, kudeaketa, aprobetxamendua eta tratamendua», gai horri buruzko bertako lege-xedapenak eta Europakoak beteaz.

B. Arlo horietan era guztietako aholkularitza ematea. Hondakinak biltzeko, kudeatzeko eta tratatzeko sistema espezifikoak inplementatzeko bitartekoak eta moduak zabaltzea, hondakinen sorrera ahalik eta gehien murrizteko, ahalik eta birziklatze-maila handienak lortzeko eta arlo horretan indarrean dauden xedapenetako zehaztapenak hobeto betetzeko».

Sozietatea bazkide diren udalen bitarteko eta zerbitzu teknikotzat jo zen estatutueto 1. artikuluko bigarren eta hirugarren lerroketan. Honela diote:

«Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrit, Usurbilek, Hernanik eta Oiartzunek erakundearen kapital sozialaren partaidetza dutenez. Sozietatea sektore publikoaren barruan egongo da eta aipatutako legea aplikatuko zaio.

Horiek horrela, erakundeak Hernaniko, Oiartzungo eta Usurbilgo Udalen bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izaera izango du».

- II. Gaur egun, Garbitania lau udalek osatzen dute, hain zuzen: Astigarragako Udalak, Hernaniko Udalak, Oiartzungo Udalak eta Usurbilgo Udalak. Horrela, kapital sozialean gaur egun dituen partaidetzak honako hauek dira: Hernaniko Udala (% 44,41), Usurbilgo Udala (% 23,09), Astigarragako Udala (% 21,49) eta Oiartzungo Udala (% 11,01) Estatutuak aipatutako partaidetzekin bat etorrit aldatu ziren, 2026ko martxoaren 11ko Batzar Orokorraren erabakiz, eta, ondoren, eskritura



publikoa egin zen 2026ko martxoaren 26n. Estatutu sozial horietan behar bezala adierazten da lau udal horien berezko bitarteko dela.

- III. Garbitaniaren helburu soziala handitu egin zen 2019ko apirilaren 30eko Batzar Orokorraren erabakiz, eta eskritura publiko egin zen 2019ko maiatzaren 23an, estatutuetako 2. artikuluan aipatutako jardueraz gain, honako hau ere jasota:

C. Kalea, bide publikoak eta lorategiak garbitzeko zerbitzua.

- IV. Baliabide propioei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.d) artikulua (aurrerantzean, SPKL) ezartzen du botere adjudikatzailerik eman diezazkieketen **enkarguen araubide juridikoa eta administratiboa arautzea**, baldin eta bitarteko propio pertsonifikatuak izaera hori badu eta erregulazio **hori estatutuetan edo ente hartzailearen sortze-egintzan ezartzen bada**.
- V. SPKLren 32. artikulua 4. zenbakian aurreikusitako **hainbat botere esleitzailerik bitarteko propioaren** kasuan garrantzi berezia hartzen du eskakizun horrek; izan ere, arau horrek eskatzen duen kontrol bateratua betetzat jotzeko, **bitarteko propioa** botere esleitzailerik horietako edozeinek agintzen dizkion **jarduketak egitera behartuta** egon behar du, hala **aurreikusita baitago sozietate-estatutu edo sozietate-itunetan**. Hau da, estatutu edo itun sozial horietatik zalantzarik gabe ondorioztatu behar da horietako edozeinek enkarguak eman diezazkiekeela, eta enkargu horiek nahitaez bete beharrekoak direla bitarteko propioarentzat.
- VI. Aurreko guztia ikusita eta Garbitania bere udal bazkide guztien baliabide propioa denez, beharrezkoa da udal horiek, oro har, Garbitaniari egin diezazkieketen jarduera-enkarguen araubide juridiko, ekonomiko eta administratiboa arautzea. Hori egiteko 2024ko azaroaren 20an une horretan Garbitaniako bazkide ziren hiru udal



bazkideek lehenengo Lankidetzako Esparru-Hitzarmena sinatu zuten. **Gaur egungo sozietatearen egitura kontuan hartuta, hitzarmen berri bat sinatzea, aurrekoa ordezkatzeko duena beharrezkotzat hartu da.** Hori horrela, UDAL BAZKIDEEK GARBITANIA ZERO ZABOR, SM ENPRESARI EGIN BEHARREKO JARDUERA-ENKARGUEN ARAUBIDE JURIDIKO, EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBO HORI ARAUTZEN DUEN LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMEN HONETAN egitea erabaki da, honako hauen arabera:

XEDAPENAK

Lehenengoa.-Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Garbitaniak bitarteko propio den udalekin dituen harremanen araubide juridiko, ekonomiko eta administratiboa garatzea, eta, zehazki, udalek egin diezazkioketen jarduera-enkarguena.

Garbitania behartuta egongo da bere udal bazkideek eskatzen dizkioten prestazioak egitera, sozietatea udal horien bitarteko propio pertsonifikatua den heinean, betiere gauzatzen diren jarduera-enkarguek hitzarmen honetan jasotako zehaztapenak betetzen badituzte.

Horrela, hitzarmen hau sinatzen duten udalek Garbitaniari egindako enkarguek datu pertsonalak kudeatzea badakarte, Garbitania tratamenduaren arduraduntzat (3/2018 Lege Organikoaren arabera "tratamenduaren eragile") hartuko da, eta, horretarako, informazio pertsonala kudeatzeko eta babesteko indarrean dagoen araudia bete beharko du. Kasu horretan, datu horiek eskuratzea ez da hartuko datuen komunikazio edo lagapentzat, tratamendu-enkargua gauzatzea baizik.

Hori horrela izanik, hitzarmen hau da jarduketa-enkargu oro egiteko eta nahitaez gauzatzeko derrigorrez bete beharreko zehaztapenak ezartzen dituen dokumentu arauemailea.

Udal sinatzaileek, Garbitaniako bazkide diren aldetik, eta estatutuek araubide juridiko hori zehazteko eskatzen duten betekizuna betetze aldera, konpromisoa hartzen dute sozietatearen estatutuetan, igorpen gisa, hitzarmen honen berariazko aipamen bat sartzeko, jarduteko enkarguen araubide hori arautzeko.



Garbitaniak ezin izango du parte hartu udalek deitutako lizitazio publikoetan, haien bitarteko propioa baita. Nolanahi ere, lizitatzailerik aurkezten ez bada, eta ondorioz lizitazioa hutsik geratzen denean, xede den prestazioa gauzatzeko eskatu ahal izango zaio.

Bigarrenena.-Aplikazio-eremua.

Hitzarmen hau botere esleitzailerik guztiei aplikatuko zaie, baldin eta, Garbitaniako bazkide izanik, bitarteko propio pertsonifikatu gisa aitortu badute.

Hitzarmen hau sinatzen duen edozein udalek Garbitaniako bazkide izateari utziko balio, Garbitaniak berezko bitarteko izateari utziko lioke udal horri dagokionez, eta bazkide diren gainerako udalek estatutu-aldaketa egokiak egin beharko dituzte, sozietatearen estatutuetan dagokion aipamena kentzeko. Kasu horretan, automatikoki hautsiko da Hitzarmen honekiko lotura.

Korrelatiboki, botere esleitzailerik berriak sozietateko bazkide izatera pasatzen badira eta Garbitania bitarteko propio aitortzen badute, beharrezko estatutu-aldaketak egingo dira izaera horren berri emateko. Ondoren, dagokion gehigarria sinatuta, erakunde berria Hitzarmen honi atxikiko zaio.

Hirugarrena.-Enkarguen xedea.

Hitzarmen hau sinatzen duten udalek Garbitaniari enkarguak eman ahal izango dizkiote, hitzarmenaren xede sozialaren barruan egonik, beren eskumenak eta eginkizunak betetzeko behar dituzten lan eta jarduerak buruz, bai eta osagarriak direnei buruz ere.

Jarduteko enkargu horiek, Hitzarmen honetan aurreikusitakoa errespetatzen dutenean, nahitaez bete beharrekoak izango dira Garbitaniarentzat.

Laugarrena.- Araubide juridikoa.

Egiten diren jarduera-enkarguek izaera instrumentala dute eta ez dute kontratu izaerarik, barnekoak eta mendeak dira. Garbitania behartuta egongo da enkargu horien lanak eta jarduerak egitera.

Bostgarrena.-Ekonomia-araubidea.

Oro har, udalek agindutako obrak, lanak, laguntza teknikoak, aholkularitzak, hornidurak eta zerbitzuak egiteagatik Garbitaniak jaso beharreko konpentsazioa udal bazkide guztiek onetsitako tarifen arabera ezarriko da, dokumentu honen seigarren klausulan aurreikusitako moduan. Nolanahi ere, tarifa horiek jarduera egitearen benetako kostuak adierazi beharko dituzte. Prestazio edo jarduera jakin batzuk bitarteko propioaren bidez



azpikontratatzeko badira, azpikontratazio horrek jasandako benetako kostuari ere erreparatu zaio.

Zehazki, konpentsazio hauek jasoko dira:

- a) Klausula honen hurrengo paragrafoetan adierazten den prozeduraren arabera egindako aurrekontutik ateratzen den zenbatekoa, Garbitaniak zuzenean gauzatutako jarduketaren (edo jarduketaren zati baten) kasuan.
- b) Garbitaniak ordaindutako zenbatekoa, dokumentu honen hamargarren klausularen arabera kalkulaturik, enpresaburu partikularrek azpikontratazioaren bidez gauzatutako jarduketaren kasuan (edo jarduketaren zati bat).

Aurreko paragrafoa a) idatz-zatian aipatutako aurrekontua egiterakoan, honako zehaztapen hauek beteko dira:

- Agindutako jarduketaren gauzatze materialaren aurrekontua honako hauen baturaz osatuko da:
 - Jarduketei tarifak aplikatuz kalkulaturik guztizko kostu zuzenen zenbatekoa, hurrengo klausularen arabera finkatuta.
 - Zeharkako kostuen eta gastu orokorren ehunekoa aplikatuta ateratzen den zenbatekoa.

Zeharkako giza baliabideak zuzeneko giza baliabideen benetako kostuaren ehunekoaren arabera hainbanatuko dira.

Gastu orokorrak, bestalde, ustiapen-kostu osoaren gainerakoari eta giza baliabideen benetako kostuari aplikaturik ehunekoaren arabera hainbanatuko dira.

- Aurrekontu horri dagokion BEZa gehituko zaio, bai eta jarduera horrengatik Garbitaniak ordaindu behar dituen tasak eta zergak ere, baldin eta kengarriak ez badira.

Ondorengo klausulen arabera finkaturik onartu ez bada, onartutako tarifa duten eta kasuan kasuko jarduketaren parte diren beste jarduketa batzuk osatzen



dituzten elementuei dagokien tarifatik abiatuta baloratu ahal izango da haien kostua. Prozedura hori ere ezin bada aplikatu, horren kostua udalak onartutako aurrekontuan agertzen dena izango da, eta kostuak, beraz, enkarguari dagokion jarduketa zehatzerako bakarrik izango dira baliozkoak.

Seigarrena.-Tarifak.

Tarifak jarduera zehatzaren kostu erreal osoen (zuzeneko zein zeharkako eta gastu orokorrak) arabera kalkulatu dira.

Tarifa berriak onartzeko edo daudenak aldatzeko, administrazio-kontseiluko kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da.

Tarifak onartzeko erabakia honako klausula hauetan zehazten den Jarduera Plan Orokorra (hemendik aurrera, JPO) izeneko dokumentua adosten duen bera izango da. Erabaki horretan, tarifen balio-epea eta, hala badagokio, indarrean dauden bitartean dagokien eguneratze-sistema ezarriko da, betiere Espainiako ekonomia desindexatzeko martxoaren 30eko 2/2015 Legean eta hura garatzen duen araudian xedatutakoarekin bat etorritik.

Tarifa berriak ezartzeko, daudenak aldatzeko eta, lanen izaeraren arabera, berrikusteko eta onartzeko aplikatu behar diren prozedurak, mekanismoak edo formulak zehazteko lanak administrazio-kontseiluko kide gehienek onespenez beharko dute.

Zazpigarrena.-Enkargua prestatzea eta formalizatzea.

Nahitaezko jarduketa-enkarguak egiteko prozedurari dagokionez, enkarguak egingo dituzten udalek behar besteko zehaztasunez definituko dituzte JPO izeneko dokumentu batean. Dokumentu hori urtero egingo da, eta dagokion aurrekontuan baloratuko dira, bosgarren xedapenean aipatutako sistemaren arabera.

Enkargua formalizatu eta Garbitaniari jakinarazi aurretik, udalak agiri horiek onartzeko beharrezko diren udal izapideak egin beharko ditu. Alegia, nahitaezko izapide teknikoak, juridikoak, aurrekontukoak eta gastua kontrolatu eta onartzekoak.

Enkargua aipatutako JPOn formalizatu beharko da, eta dokumentu horren bertsio bat SPKLren 63.6 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratu da.

Ondorio horietarako, Udalek ezingo diote Garbitaniari enkargu formalik gabeko jarduketa materialik egiten hastea eskatu eskumena duen organoaren enkargurik gabe.



Nahitaezko jarduketa bakoitzaren enkargua formalki jakinaraziko dio Garbitaniari enkargua egiten dion udalak, eta, horrekin batera, lehen aipatutako formalizazio-dokumentua aurkeztuko du, honako hauek jasoko dituenak: jarduera-proiektua, kronograma, udalarentzako exekuzio-aurrekontua, bai eta gauzatzeko behar den beste edozein dokumentazio ere, guztiak organo eskudunak sinatuta.

Dokumentazio horretan, besteak beste, egin beharreko jarduerak, unitate arduradunak eta horien aurrekontua jaso beharko dira, bai eta jarduera horiek gauzatzeko ardura duten pertsonak edo zerbitzuak ere.

JPOn aurreikusi ez diren eta hurrengoa onartu aurretik gauzatu behar diren jarduketan kasuan, honela jokatu da, JPOn onartutako gainerako jarduketei modu esanguratsuan eragiten dien ala ez kontuan hartuta:

- Dagoeneko onartutako jarduketan plangintzan edo gauzatzean eraginik ez duten jarduketan kasuan, horiek gauzatzeko aurrekontua eta ekintza-plana egingo dira. Agiri horien onarpenak hasteko agindua ekarriko du. Administrazio-kontseiluari horien berri emango zaio agindua eman ondoren egiten den lehenengo bilkuran.
- Onartutako JPOn jasotakoari orokorrean eragiten dieten jarduketan kasuan, JPO bera onartzeko gauzatutako prozedura bera jarraitu beharko da.

Zortzigarrena.- Enkargua gauzatzea eta ordaintzea.

Enkargua egiten duen udalak lanen zuzendaria izenda dezake. Garbitaniak bere jarduketak aurreko klausulan aipatutako agirien eta udalak enkargu horretarako izendatutako lanen zuzendariaren jarraibideen arabera egingo ditu.

Enkarguaren xede diren lanen edo jarduketan izaeraren arabera, gauzatutakoaren harrera edo adostasuna egiaztatzeko helburuarekin, udalak formalitate jakin batzuk betetzeko eskatu ahal izango du, komenigarritzat jotzen duen aldizkakotasunarekin. Era berean, enkargua egin duen udalak gauzatzearen eta aurrekontuaren betetze-mailaren egoera jasoko duen hileroko txostena eskatu ahal izango du. Txosten hori eskatzen bada, jarduketa onartutzat joko da, baldin udalak kontrakorik adierazten ez badu, eta, enkarguan jaso gisa, exekuzioarekin jarraitzeko agindua izango da.

Enkargua zuzendu edo aldatu behar izanez gero, enkargua onartzeko eskatzen den prozedura bera erabili beharko da.



Egindako lanen zenbatekoa enkargua ematen duen udalak ordainduko du, dagokion jarduera osorik edo zati batean egin eta hurrengo 30 eguneko epean.

Enkargua egin duen udalak egokitzat jotzen badu, jarduketa amaitu ondoren egiaztatu egingo da, eta, hala dagokionean, jaso izanaren egintza gauzatuko da dagokion dokumentuan. Ondoren, likidazioa egingo da, enkarguaren beraren edo udalak erabakitakoaren arabera.

Garbitaniak, enkargua egiten duen udalaren nahierara, aurrerakinak jaso ahal izango ditu enkarguak gauzatzeko egindako prestaketa-eragiketengatik, enkargua ematen duen udalaren aurrekontu-araudian aplikagarri den gehieneko mugaraino.

Bederatzigarrena.- Baliabide propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaeraren ondoriozko betebeharrak.

Garbitaniak honako hauek bete beharko ditu bere izenean, udal bazkideen kontura, hitzarmen honetan eta formalizatutako enkarguetan adostutakoari jarraiki:

- a) Eskatzen zaion zerbitzu publikoa eskaintzea.
- b) Zerbitzua eskaintzean gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea dagokion udalari.
- c) Aholkularitza tekniko eta lankidetzaren eskaintzea udal organo eskudunei zerbitzuarekin zerikusia duten gaien inguruan.
- d) Aholkularitza tekniko eta lankidetzaren eskaintzea udal-teknikariei edo alkateek izendatutako pertsonen, sozietatearen helburu sozialarekin zerikusia duten gaietan
- e) Legea eta kontabilitate-printzipioak betez, urteko kontuen memoria eta araudia betetzeari buruzko txostena aurkeztea, honako eremuei dagokienez: aurrekontua, finantza- eta zor-eragiketak, langileen kontratazioa eta zerbitzuen eta horniduren kontratazio publikoa.
- f) Urteko jardueraren ikuskaritza-txostena aurkeztea.

Hamargarrena.- Hirugarrenekin azpikontratatzeko.

Udalek egiten dituzten enkarguak gauzatzean, Garbitaniak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du, baina azpikontratazio horrek ezin izango du enkarguaren zenbatekoaren % 50 gainditu, SPKLren 32.7 artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta salbuespenekin.



Azpikontatrazioaren xede diren jarduketan aurrekontuan sartutako zenbatekoa esleipen-prezioarekin ordeztuko da ziurtagirietan edo harrera-agirian, zeharkako kostuen eta gastu orokorren ehunekoa gehituta.

Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Administrazio arteko hitzarmen honek lau urteko indarraldia du, baina, edozein unetan, epe hori amaitu baino lehen, sinatzaileek aho batez erabaki dezakete hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urtez. Nolanahi ere, hitzarmena azkentzeak ez du eraginik izango haren babesean egindako jarduera-enkarguen indarraldian.

Hamabigarrena.- Esparru-Hitzarmena aldatzeko araubidea.

Esparru-Hitzarmena aldatu ahal izateko, udal sinatzaileek aho batez hartu beharko dute erabakia.

Hamahirugarrena.- Jarraipen-Batzordea.

Alderdiek Esparru-Hitzarmenaren betearazpenaren Jarraipen-Batzordea eratzea adostu dute. Administrazio-kontseiluko kideek osatuko dute batzorde hori.

Jarraipen-Batzorde horrek zeregin hauek izango ditu:

- Esparru-Hitzarmena betetzen dela zaintzea, eta interpretazioari, betetzeari eta gauzatzeari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea.
- Esparru-Hitzarmenaren betetze-maila eta exekuzio-maila aztertzea.
- Udal sinatzaileek kasu bakoitzean zehazten duten beste edozein eginkizun.

Jarraipen-Batzordeak berak ezarriko ditu bere funtzionamendurako barne-arauak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako esparruaren barruan.

Batzordeak hitzarmena betearazteko jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoa hartuko du kontuan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen ondorioetarako.

Hamalagarrena.- Esparru-Hitzarmena iraungitzea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. eta 52.



artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko dira Esparru-Hitzarmena azkentzea eta haren ondorioak.

Hamabosgarrena.- Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa.

Esparru-Hitzarmena Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluari eta hurrengoei eta aplikatzekoa den toki-araubidearen araudiari lotuta dago.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta ordenamendu juridiko administratiboaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Hamaseigarrena.- Gatazkak konpontzea.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute, Esparru-Hitzarmen hau betetzeari dagokionez, sor daitezkeen desadostasunak hamabigarren puntuan aurreikusitako Jarraipen Batzordean konpontzeko.

Horretarako, elkarrizketa eta negoziazioaren bideak zein eskura dituzten bitarteko guztiak erabiliko dira. Gatazkarik sortuz gero, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-organoek izango dute sortzen diren auzigaien gaineko konpetentzia.

Horren fede emanez, alderdiek Esparru-Hitzarmena sinatzen dute Hernanin, 2026ko XXXXX, bost aletan, alde bakarrean inprimatutako paper arrunteko orri guztietan, goian adierazitako tokian eta egunean.

**Agurtzane
Solaberrieta Mesa**

**Xabier Lasa
Urdangarin**

**Xabier Lertxundi
Asteasuinzarra**

**Joana Mendiboure
Garaier**



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026ID370005-Akta/Akta (OIARTZUNGO UDALA)